Zu hemen zaude.
goiena“

2024-05-24 EGUBAKOITZA / 1.037. ZENBAKIA / 24. URTEA
**DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA** GOIENA.EUS TOKIKOM




+ Biniloak: musika entzuteko era xarmanta

Felix Zubia medikuari elkarrizketa



# BUS ZERBITZUA HOBETZEKO ESKARIAK

Geroago eta ekimen gehiago Debagoienean autobusen egoera, lineak eta zerbitzua hobetzeko asmoz: alkateak harremanetan dira Diputazioarekin; langileak kexu dira busen egoerarekin; eta gazte erakundeek kalera atera dituzte aldarrikapenak / 2

Autobus-bidaiariak Arrasaten, Zalduspeko geltokian, eguaztenean. XABIER URTZELAI

## Ointxe! saskibaloi klubeko MU taldea, mailaz igotzeko txartelaren bila Granadan / 33

**SINADURAK**


MAITE TOLEDO / **20**


BEÑARDO KORTABARRIA / **6**


MANU EGAÑA TXOPITEA / **29**


ITSASO ERRETOLATZA / **9**


AINTZANE OIARBIDE / **40**






# Ahots geroz eta gehiago autobus zerbitzu hobea eskatzeko Debagoienean

Bailarako alkateak eta Diputazioa harremanetan daude Lurraldebusek eskualdean ematen duen zerbitzua hobetze aldera. Avanza enpresako langileek eta Debagoieneko Ernaiko kideek ere gaia gizarteratu nahi dute, kexei soluzioa emateko



Eguaztenean Aretxabaleta eta Arrasate arteko zerbitzua eman zuen autobus bat, bidaiariekin.

**Amaia Txintxurreta Guridi** ARRASATE

Debagoieneko autobus zerbitzuari buruzko kezkak azaleratu eta autobus zerbitzu egokia aldarrikatu dute hainbat alditan hainbat agentek.

Batetik, ezinegona dago erabiltzaileen artean; izan ere, diote, esaterako, puntualitatea ez dela errespetatzen sarritan. Langileen aldetik ere, Avanza enpresakoak hainbat alditan kexatu dira; besteak beste, esaten dute autobusak ez dituztela behar bezala zaintzen. Debagoieneko alkateak –EH Bildukoak– Gipuzkoako Mugikortasun arduradunekin batzartu ziren iazko abenduan, bailaran autobus zerbitzu hobea eskaintzeko aurrerapausoak emateko. Eta Debagoieneko Ernai gazte erakundetik ere gaia lantzen dabiltza 2022a ezkero, eta mobilizazioa deitu dute biharko, zapatua, Bergaran, autobus zerbitzu "duina" aldarrikatzeko.

Gaiak kezka eragiten jarraitzen du eta askotariko hobekuntzak egiteko eskatzen jarraitzen dute.

### Egungo egoera

Avanzako autobus gidari eta LAB sindikatuko ordezkari Marijo Arzak eta Fermin Iregik gaur egun eurek bizi duten egoera zein den azaldu dute: "Hiriburuak lotzeko diren autobus batzuk berritu egin dituzte; Donostiara, Bilbora eta Gasteizera doazen autobusen zerbitzu horiendako. Baina hemen bertan herri barruko zerbitzuak betetzeko dauzkagun autobusak dezente zahartuta daude, eta, datorren urtean hamar urte beteko dituztenez eta pentsatzen denez aldatu egingo dituztela hamar urte betetzean, egiten zaien mantentzea eskasa da. Eta zer gertatzen da? Askotan, matxuraren bat gertatzen bada, gelditu egin behar dugula. Adibidez, Eskoriatza-Aretxabaleta-Bergara-Zumarraga linean, zerbitzua askotan bertan behera utzi beharra izaten dugu eta erabiltzaileei ez zaie soluziorik ematen".

Horregatik, hau eskatzen dute: "Autobusei mantentze-lan gehiago egitea eta autobusek benetan gutxieneko baldintza batzuk betetzea. Izan ere, gertatzen zaiguna da ohitzen ari garela hartzen ditugun autobusak zerbait gaizki edukitzera, eta horrek gure gainesfortzu bat eskatzen du. Zortzi ordu egon behar duzu lanean, eta, materiala ez badago baldintza onetan, gure osasuna ari gara behartzen".

Eskatzen dute baita ere linea bakoitza berriro aztertzea; izan ere, diote herrietako abiadura mugak leku batzuetan murriztu egin direla 30era edo 20ra eta kasu batzuetan gertatzen dela ez direla iristen geltokietara dagokien orduan.

### Kexa horiek alkateei

Avanzako langileen kexa horiek alkateei iritsi zitzaizkiela adierazi du Oñatiko alkate Izaro Elorzak, eta, aurretik ere jasotzen zituzten kezkei irtenbidea bilatu nahian, Debagoieneko alkateak Azahara Dominguez Mugikortasun diputatuarekin batzartu ziren iazko abenduan.

Bertan bi gairen inguruan hitz egin zutela adierazi du Elorzak: "Alde batetik, gaur egun autobusen egoerak kezkatzen gintuela adierazi genion Debagoieneko alkateok; izan ere, matxura asko izaten ari ziren/dira eta garraiolarien aldetik ere kezka eta kexak jaso genituen; ez ziren gure kontrako kexak, herrien arteko autobus zerbitzua ez baita gure eskumenekoa. Egoeraren berri eman ziguten, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin genuen harremanean kontuan izateko. Bestetik, bailarako autobus zerbitzuaren arazo eta gabeziez hitz egin genuen. Gure ustetan, mugikortasun jasangarria bultzatu nahi bada, Aldundiak arlo horretan badauka zer hobetua. Mugikortasun iraunkorra bultzatu gura bada, estrategikoa izan behar du autobus zerbitzua hobetzeak, eta hori horrela izan dadin egingo dugu lan Debagoieneko alkateok".

**"ZERBITZU BATZUK BERTAN BEHERA UTZI BEHAR IZATEN DITUGU MATXURENGATIK"**

MARIJO ARZA

**"DATORREN KURTSORAKO NEURRIAK HARTZEA ESKATZEN DUGU"**

MAIDER MORRAS

**"OÑATITIK OSO LINEA GUTXI DITUGU ETA OSO ZAILA DA LOTURAK EGITEA"**

IZARO ELORZA

**"GAZTEOK BIHARKO MOBILIZAZIOKO LEHEN LERROAN EGONGO GARA"**

BEÑAT LOIDI

## PREMIA NAGUSIAK DIRA AUTOBUSEN KALITATEA ETA KOMUNIKAZIOA HOBETZEA

## ALKATEEK MUGIKORTASUN TALDEA SORTU DUTE GAIARI IRTENBIDEA EMATEKO

Arrasateko alkate Maider Morrasek azaldu du, bestetik, bilera hartan erabaki zutela bailarako proposamen bateratu bat egiteko, eta, handik abiatuta, lanean jarri ziren ikusteko zeintzuk diren herri bakoitzak dauzkan lehentasunak. Hau azaldu du: "Premiazko lehentasun bat daukagu eta da autobusen matxurak eta autobusen kalitatea hobetzea. Eta bestea da komunikazioa. Erabaki genuen arlo horretan herri bakoitzak zehaztuko zituela zeintzuk diren bere lehentasunak. Gure bailara da Gipuzkoan okerren komunikatuta dagoena, eta, era berean, da pertsona gehien jasotzen dituena eta joaten dena bailaratik egunero. Unibertsitatea eta enpresa ugari dauzkagu eta mugikortasunerako izugarrizko arazoak ditugu".

### Mugikortasun Taldea

Ondorioz, eta gaiari duen garrantzitik heldu eta irtenbide egokia bilatzeko asmoz, Mugikortasun Taldea eratu dute. Bertako partaide dira bailarako alkate guztiak, baina horren ardura hiruk daramate: Arrasateko alkate Maider Morrasek, Aretxabaletako alkate Gari Iturbek eta Elgetako alkate Ibon


Arrasateko autobus geltokian erabiltzaile batzuk Bergararako autobusa hartzen. X.U.



XABIER URZELAI

**ALDUNDIAK ADIERAZI DU KEXEN ERREGISTROA ASKO JAITSI DELA AZKEN HILABETEOTAN**

Unzetabarrenetxeak. Hiru horiek elkartuko dira Gipuzkoako Mugikortasuneko arduradunekin ekainaren 13an, Foru Aldundian.

**Gazteak ere kezkatuta**

Ernaikoek 2022an abiatu zuten, bestetik, *Garraio publiko duina* ekimena. Eta lau aldarrikapen nagusi dituztela azaldu du taldeko Beñat Loidik: "Enpresa pribatuen esku hartzeekin amaituz, garraio publikoa guztiz publifikatzea; eskualdeko 4.000 biztanletik gorako herrien arteko linea zuzenak ezartzea; gaur egun behar handiena duten lineen maiztasuna handitzea; eta langileen eta erabiltzaileen segurtasuna bermatuko duten autobusak erabiltzea. Gure eskualdean garraioa duintzera bidean hartu daitezkeen oinarrizko batzuk dira soilik horiek, argi dago beste neurri batzuk ere hartu beharko direla garraio publikoa guztiz duintzeko".

**Beste kexa batzuk**

Arrasateko alkateak beste hobekuntza batzuk ere eskatuko ditu Mugikortasun Taldetik herriarentzat: "Onartu behar dugu Arrasate bailarako herri handiena denez autobus zerbitzurik onena daukagula, baina izugarrizko arazoak dauzkagu detektatuta aspaldidanik. Hauek, esaterako: goizetan, adibidez, Gasteizera eta hiriburuetara doazen autobusak –baina, batez ere, Gasteizera doana– sekulako eskaria dauka eta jendeak joan behar du oso-oso azkar autobusa hartzera, bestela ez da heltzen lanera; Bilborekin komunikazioak hobetu behar dira bai edo bai; puntualitatea da beste bat; eta matxurez gain, autobusetan nola joaten garen ere aztertu behar dela uste dut. Izan ere, legala izango da, baina Gasteizera joateko zutik joan behar baduzu autobusean autobidetik edo autobiatik, segurtasuna ez dakit bermatzen den. Legala izango da, baina segurua ere bai?".

Ildo horretatik, kexu dira baita ere autobus gidari eta LAB sindikatuko Marijo Arza eta Fermin Iregi: "Eskoriatzatik Gasteizerako linean 13:30eko ordu horretan jende asko zutik eraman beharra egoten da. Horrelako zerbitzu gehiago ere badaude; esaterako, zapatu goizetan ere badakigu arazoak egoten direla. Nahiz eta abiadura 80ra jaitsi, egunen batean istripu bat izaten baldin badugu, horko eragina oso gogorra izango da, zutik doan jendea despedituta aterako delako. Benetan guri ez zaigu gustatzen jendea zutik eramatea, baina legala da, eta, legala den bitartean, enpresak ez du ezer egingo".

Morrasek gaineratu du *gautxorietan* eskaripean gelditu beharko litzatekeela autobusa, batez ere, emakumezkoen segurtasuna bermatzeko, beste herri batzuetan egiten den moduan.

Bestetik, Oñati "isolatuta" dago, eta Elorza alkateak kezka hauek nabarmendu ditu: "Oñatiren kasua harrigarria da. Oso linea gutxi ditugu bertatik igarotzen direnak, eta oso zaila da lineen arteko loturak egitea. Gainera, gaur egun, lekualdatze gehienetan dugu Elorregira joan beharra beste autobus bat hartzera. Eta hori gutxi balitz, bertara joateko aukerak gura baino urriagoak dira, eta, maiztasunagatik eta ordutegiagatik, gura genukeen autobusa galtzen dugu edo denbora asko egon beharra dugu autobusa etorri zain. Finean, zailtasun ugari ditugu autobus publikoa erabiltzeko. Gauza asko dago aldatu beharra herri arteko autobus zerbitzuak Oñatiri eskaintzen dizkion aukeretan. Aldaketa sakona behar da. Duela zenbait urte, hobekuntzak izan ziren, bai. Urte batzuk geroago, ordea, bertan behera gelditu ziren hobekuntza haiek. Hitzez asko egiten da berba mugikortasun iraunkorraz. Horregatik da unea bide horretako politikak abiarazteko".

**Sinadura bilketa**

Hori guztia kontuan hartuta eta egin beharreko hobekuntzak eskatzeko asmoz, Debagoieneko Ernaikoek sinadura bilketa dute martxan. Momentuz, 2.000 inguru jaso dituzte –bai modu fisikoan, zein digitalki–, eta ekain amaierara arte izango da horretarako aukera. Esaterako, euren sare sozialetako profileko loturatik joan daiteke sinadura egitera edota hainbat autobus geltokitan jarri dituzten QR kodeen bitartez ere iritsi daiteke sinatzeko formulariora.

**Mobilizazioa bihar Bergaran**

Garraio zerbitzu publiko "duinaren" aldeko mobilizazioa ere deitu du Ernaik. Bihar, zapatua, 17:30ean izango da, San Martin plazan. Loidik adierazi du bertan parte hartuko dutela eskualdeko hainbat subjektuk; ikasleek, langileek, Avanzakoek, sindikatuetako langile ordezkariek eta, nola ez, gazteek protagonismoa izango dutela aurreikusten dute, eta gaineratu du "lehen lerroan" egongo direla. Horrekin, Diputazioan eragin nahi dute.

**Helburua, zerbitzua hobetzea**

Arrasateko eta Oñatiko alkateek, bestetik, Foru Aldundiaren aldetik prestutasuna ikusi dute lanean lehenbailehen hasteko, baina hitzetatik ekintzetara pasa beharra azpimarratu dute. Elorzak hau adierazi du: "Nik uste dut aukera bat badaukagula, baina argi dago Aldundiak apustua egin behar badu baliabide gehiago bideratu beharko dituela arlo horretara. Hitzetatik ekintzetara pasa beharra dago. Guk argi dugu gure ikuspegia, ezagutzen ditugu gure lehentasunak… Beste aldeak erabaki beharko du zeintzuk diren harenak".

Eta Morrasek hauxe gaineratu du: "Eskatzen dut neurriak hartzea ahalik eta azkarren. Datorren kurtsorako posible baldin bada, guk eskertuko genuke. Izan ere, herriak zenbat eta konektatuagoak izan, mugikortasuna orduan eta hobea izango da. Guk gure herrietako mugikortasuna hobetzeko, Diputazioak bere eskumenekoak ere hobetu egin behar ditu".

## Diputazioa eta alkateak, bileretan

Bailarako alkateak abenduan bildu ziren Gipuzkoako Foru Aldundian Mugikortasuneko arduradunekin. Beste batzar bat ere zehaztuta zuten, baina bertan behera utzi behar izan zuten. Dagoeneko, baina, badute data berria: ekainaren 13an elkartuko dira bigarrenez.

**Zerbitzua hobetzeko nahia**

Oñatiko alkateak azaldu du zerbitzuaren "arazo eta gabeziez" hitz egin zutela lehen bileran eta Arrasateko alkateak gaineratu du bailarako proposamen bateratu bat egingo zutela. Dagoeneko, gainera, zehaztuta dituzte herri bakoitzak dituen lehentasunak. Diputaziotik adierazi dute Avanzak ematen duen zerbitzuaren "azterketa sakona" egiten jarraitzeko konpromisoa hartu zuela orduan Azahara Dominguez diputatuak. Eta hauxe gaineratu dute: "Jarraipena etengabea eta jarraitua da jardun dezakegun fronte guztietan, eta horrela jarraituko dugu. Batzar Nagusietan azaldu genuen moduan, Departamentuak erabiltzaileek zein gidariek zerbitzuaren inguruan jakinarazten dituzten gorabeheren jarraipena egiten du ia denbora errealean.

**ALDUNDIAK ESAN DU 21 AUTOBUS BERRI IZANGO DITUELA AVANZAKO FLOTAK**

Erabiltzaileen eta gidarien kexak nabarmen jaitsi dira azken hilabeteetan. Ibilgailuei dagokienez, 21 berri izango ditu Avanzako flotak".

**Hobekuntzak Leintz Gatzagan**

Urrats batzuk egin dituzte Aldunditik Leintz Gatzagan: "Badakigu beharrak etengabe aldatzen direla, eta, beraz, zerbitzuak egokitu behar direla, eta harreman estua daukagu udalekin Lurraldebuseko zerbitzua geroz eta hobea izan dadin. Horrela egin dugu, adibidez, azken asteetan, Leintz Gatzagako Dorleta Elkorobarrutia alkateak egindako eskakizun konkretu batzuekin. Baita beste eskualde batzuetako hainbat herrirekin ere", adierazi dute.


2022ko abenduan D2030 ekimenak Garaian egindako jardunaldia. GOIENA

# Klima larrialdiaren zazpi ertz aztertuko dituzte

Debagoiena 2030 lankidetza sareak antolatu duen 'Iraunkortasunari hamaika begirada' jardunaldien ekimen nagusia egingo dute gaur, egubakoitza, Arrasaten. Alor askotariko zazpi adituk klima larrialdiaren hainbat ertz izango dituzte aztergai

**Gontzal Belategi Zubia** ARRASATE

Debagoiena 2030 lankidetza sareak antolatutako *Iraunkortasunari hamaika begirada* jardunaldiek aurrera jarraitzen dute. Ekimenak bultzatutako *Eraginez piztu* estrategiaren baitan antolatu zituzten jardunaldiak, komunitatearen ahalduntzea bultzatzeko lan ildoaren baitan. Helburua da klima larrialdiaren inguruan eskualdean dagoen ezagutza zabaltzea.

### Jardunaldi nagusiak

Zabaltze horren baitan, garrantzi handia du gaur Arrasaten, Kulturateko areto nagusian, egingo duten jardunaldi nagusiak. 09:00etan hasiko dute jardunaldia eta 16:15ak arte iraungo du. Bertan, klima larrialdiaren testuinguruan Debagoienak bizi izango dituen errealitate eta erronka berriak izango dituzte aztergai. Horretarako, hainbat esparrutan lanean dihardunen zazpi adituren hitzak jasoko dituzte jardunaldi nagusian.

Lehen aditua Euskalmeteko Onintze Salazar izango da. Klima larrialdiak Debagoienean izan dezakeen inpaktuaz hausnartuko du hark. Maila globalean izango diren aldaketa meteorologikoak eta haiek Debagoienean izan dezaketen eraginak izango ditu aztergai Salazarrek.

Bigarrena Iñaki Etxebeste izango da, Erraz eta Tantai kooperatiba elkarteetako kidea. Klima larrialdiaren baitan gertatzen diren aldaketa biofisikoek Debagoieneko biodibertsitatean eta lehen sektorean izango duten eragina izango du hizpide.

Jarraian, Tecnaliako Adriana Aguirrek klima larrialdiak hirigintzan izango duen eragina aztertuko du. EHUko Iñaki Antiguedadek, berriz, eskualdeko ur-sistemaz hausnartuko du.

EHUn eta DC3n lan egiten duen Elisa Sainz de Murietaren txanda izango da ostean. Klima larrialdiaren testuinguruan lehenetsi beharreko arloak zeintzuk izan beharko liratekeen azalduko du hark.

MUko eta Ikerbasqueko Markel Peñalba izango da hurrena oholtzara igotzen. Sortu daitezkeen aldaketek Debagoieneko industrian izan ditzaketen eraginez hausnartuko du Peñalbak, klima larrialdia gelditzeko hartuko diren neurriek industrian izan ditzaketen eraginak azaltzeaz gain.

Ikerbasqueko eta BC3ko Unai Pascual izango da hitza hartuko duen azken aditua. Klima larrialdiak demografian, osasunean eta bestelako arlo sozialetan izango duen eragina aztertuko du. Eragin horiek gutxitu eta horietara egokitzeko gakoak ere azalduko ditu.

Adituak, euren gaia jorratzeaz gain, askotariko eszenatokiak aurreikusten ahaleginduko dira.

> **"GURE LURRALDEAN ZE ARRISKU KLIMATIKO DITUGUN ULERTU BEHAR DUGU"**
> ADRIANA AGUIRRE, TECNALIAKO KIDEA

> **"EGOKITZAPENEAN JARRI BEHAR DUGU ARRETA, ETA HORREN ARDATZA URA DA"**
> IÑAKI ANTIGUEDAD, EHU-KO IRAKASLEA

### Adituen hitzak

Jardunaldietan parte hartuko duten bi aditurekin hitz egin du GOIENAk: Adriana Aguirrerekin eta Iñaki Antiguedadekin.

Hirigintza du oinarri Aguirreren hitzartzeak. "Gure lurraldean ze arrisku klimatiko ditugun ulertu behar dugu. Mehatxuaren eta esposizioaren bidez ulertzen da hau. Mehatxuak, adibidez, uholdeak edo itsas mailaren igoera izan daitezke, muturreko gertaerak. Esposizioa, berriz, hiriak edo azpiegiturak izan daitezke. Beharrezkoa da esposizioko elementu horiek egokitzeko duten gaitasuna zein den jakitea", dio Aguirrek. Haren ustez, beharrezkoa da neurriak orain hartzen hastea, etorkizunean babesgabe ez geratzeko.

Klima larrialdiak eta ur sistemak duten harremanaz jardungo du Antiguedadek. "Sarri, arintzean dugu begirada, eta asko hitz egiten da karbonoaz, gure emisioak gutxitzeaz, baina atmosferan kontuan hartu behar da baita besteek egiten dutena ere. Egokitzapenean jarri behar dugu arreta, hori lurraldean bertan egiten delako, eta horren ardatza ura da", dio hidrologoak. Kexu da akuiferoek instituzioen partetik jasotzen duten gutxiespenaz, eta garbi du haiek gaizki zaintzeak etorkizunean ondorio larriak eragingo dituela.

Agirreren iritziz, oso garrantzitsuak dira horrelako jardunaldiak: "Guk nahi dugun jakintza izan dezakegu, baina gizarteak ez badu ulertzen zein garrantzitsua den neurriak hartzea, ez dugu ezer lortuko. Guztiok ulertu behar dugu zeintzuk diren ditugun arriskuak". Antiguedad harago doa, eta jardunaldiei baino garrantzi handiagoa ematen dio prentsak jardunaldi horiei egiten dien jarraipenari: "Garrantzitsuak dira? Bai, noski, garrantzitsuak dira, baina ez horrenbesteraino bertan izango garenontzat. Garrantzitsuagoa da hedabideek hori gizarteratzeko egiten duten lana".

## LABen 50 urteko ibilbidea jasotzen duen dokumentala

*Eskuz esku. LAB zabaltzen* dokumentala eman zuten Kulturaten joan den eguaztenean. Hain zuzen ere, sindikatuaren mende laurdenaren ospakizunaren baitan antolatu zuten. "Dokumentalak azken 50 urte hauetako ibilbidearen eta lanaren errepasoa egiten du", azaldu du Xabi Llodiok, LABeko arduradunak. Besteak beste, diktadura ostea, martxoaren 3a eta ELArekin izandako uztartzea jasotzen dira dokumentalean.

Ikus-entzunezkoaren emanaldiaren ostean, solasaldia izan zen. Bertan, LABeko hiru kide debagoiendarrek hartu zuten parte: Jose Luis Loidi *Rossli*-k, Amaia Aranak eta Aitor Atxak. "Hizlariak hautatzerakoan generoa, adina eta sektore ezberdinetako parte hartzea bermatu nahi izan ditugu. Alde horretatik, gazte batek, historiko batek eta sektore feminizatuetan borroka egin duen batek hartu dute parte", adierazi du Llodiok.

## 'Landaren mendekua' izan dute hizpide Oñatiko kultur etxean

Manuel Pimentelek *La venganza del campo* liburua aurkeztu zuen atzo Oñatiko kultur etxean. Aznarren Gobernuan Lan eta Gizarte Gaietako Ministro izan zen Pimentel, eta idazlea, nekazaritza ingeniaria eta Zuzenbidean doktorea ere bada. Nekazaritzak gaur egun bizi duen egoera kaxkarra du oinarri liburuak; horren arrazoiak eta nondik norakoak azaltzen ditu.

Ricardo Guisado-Balanzategui albaitaria eta udal hauteskundeetan Oñatiko Alderdi Popularraren hautagaia eta Xabier Iraola ENBAko koordinatzailea ibili ziren aurkezle lanetan.

Solasaldi zabala eta mamitsua izan zen aurkezpenaren ondoren. Xabier Mugarza zinegotzi oñatiarrak egin zituen moderatzaile lanak. Horrekin batera, lau hizlari izan ziren solasaldian: Manuel Pimentel, Xabier Iraola, Batis Otaegi –Oñatiko Artzain Eskolako zuzendari ohia– eta Andoni Altuna –Gipuzkoako Baso Elkarteko kidea–.

# Caritasen bihotzak taupaka jarraitu gura du

Maiatzaren 27tik 31ra bitartean iritsiko da Oñatira Caritas Gipuzkoaren 'Taupagunea' ekimena, 'Keinu txikiek ere komunitatea egiten' dute lelopean. Gertukoen egoera ezagutarazi eta Caritasek egiten duen lana erakusteko helburua du ekimenak

**Iñigo Barrena Kortabarria** OÑATI

Donostian izan zuen lehen esperientzia Caritas Gipuzkoaren *Taupagunea* ekimenak eta datorren astean Oñatira iritsiko da, *Keinu txikiek ere komunitatea egiten dute* lelopean. Corpus astean, maiatzaren 27tik 31ra bitartean karpa bat jarriko dute herriko plazan, gertukoen egoera ezagutarazi eta Caritasek egiten duen lana ezagutarazteko.

Hain zuzen, Caritas Gipuzkoak Gabonetan eta Corpusetan egiten du kanpainarik handiena eta, aldi berean, diru bilketarik handiena ere; baina hori baino gehiago izan nahi dutela adierazi zuen eguazteneko aurkezpenean Caritas Gipuzkoako delegatu Patxi Aizpitartek: "*Taupagunea*-k, hitzak berak dioen bezala, bihotz taupada izan nahi du. Alde batetik, gizartean behar handien dutenentzako oxigenoa izan gura du, eta, bestetik, herritarrentzako topagunea eta elkarrizketarako lekua ere izan nahi du".

### Bost eguneko egitaraua

Maiatzaren 27tik 31ra bitartean, Caritas Gipuzkoak egiten dituen hainbat proiektu ezagutzeko aukera egongo da karpan; inaugurazioa 27an 11:30ean izango da. Etxerik Gabeko Pertsonen Saila, emakumeei arreta integrala eskaintzen dien Miriam programa eta Bihotzdun Enpresa ekimena hurbilduko dituzte herritarrengana. Bertatik pasako dira, baita ere, Bidean, Bidebarri eta Elkarzabal zentro programak. Oñatiko abesbatzak inaugurazioan eta beste zenbait artistak datozen egunetan egingo dituzte emanaldiak.

Helduek ez ezik, ikasleek ere jarraituko dute ekimena bertatik bertara. "Bertako ikastetxeekin harremanetan jarri gara eta ikasleak guregana gerturatuko dira. Elkarrizketa, elkartasuna, elkar-zaintza eta halako balioak lantzeko. Horiek hainbat ekimenekin jorratuko ditugu", adierazi zuen Kontxi Elexpek, Caritas Gipuzkoako idazkariak.

**2023AN 2.368 FAMILIARI EMAN ZION LAGUNTZA CARITAS GIPIZKOAK DEBAGOIENEAN**

### Caritas Debagoienean

Agerraldia Debagoieneko datuak emateko ere baliatu zuten. Caritas Gipuzkoa Debagoieneko herri guztietako parrokietan dago, eta, azpimarratu zutenez, 2023an 2.368 laguni eman zioten akonpainamendua, 864 familiari. Horretarako, 43 boluntarioen laguntza izan dute, eta Caritas Gipuzkoak 143.412 euro bideratu zituen eskualdeko programetara. Oñatiko datuei erreparatuta, 196 pertsona artatu dituzte; denera, 138 familia eta sei pertsona aritzen dira boluntario lanean. Horrez gain, adierazi zuten 30.000 euroko inbertsioa egin dutela Oñatin.




Eguaztenean Caritasek Oñatiko kultur etxean egindako aurkezpena. IDOIA ARANBARRI




Gure Bazterrak taldeko kideak, gaztetxean egindako aurkezpenean. I.B.K.

## 1975eko Kanpanzarko erailketa ikertzeko "laguntza" gura dute

Gure Bazterrak Kultura Elkarteak ikerketa bat du abian; Pako Aristi idazlearen laguntza izango dute

**I.B.K.** OÑATI

Iazko martxoan aurkeztu zuen Gure Bazterrak Kultura Elkarteak *Irunberri 1990: arroilaren negarra;* orduan, 1990eko ekainaren 25ean Irunberriko arroilan hiru etakideren eta Guardia Zibilaren artean izandako tiroketaren gaineko gertaera ikertu zuten, eta, ondoren, Pako Aristi idazlearen laguntzarekin liburu batean jaso zituzten ikerketaren nondik norakoak. Orain, beste hainbat gertakariren gaineko ikerketa du abian elkarteak, eta, kasu horretan ere, Pako Aristi idazlearen laguntza izango dute ikertutakoa liburu batean kaleratzeko.

### 1975eko gertaerak

Oraingo honetan, 1975. urtean izan ziren hainbat gertaera ikertzen ari dira. Ikertzen ari diren kasuak lau dira, baina, bereziki, 1975eko urriaren 5ean Kanpanzarko tabernan eraila izan zen Iñaki Etxaberen kasuan jarri dute arreta oraingoan elkarteko kideek; horrez gain, Kanpanzarko gertaeraren egun berean Arantzazurako bidean atentatua izan zen; Juan Zelaia enpresari oñatiarra hiltzen ahalegindu ziren; eta urte bereko urriaren 12an Legution hil zuten German Agirreren kasua ere ikertzen dihardu Gure Bazterrak elkarteak. Informazio eske agertu dira herritarren aurrean. "Dagoeneko informazio asko batu dugu, baina testigantza gehiago egon litezkeelakoan gaude. Horregatik, herritarren batek gertaera haien inguruko informazioa baldin badu, gurekin harremanetan jartzeko eskatzen diogu", azaldu du Ander Lizarraldek, Gure Bazterrak Kultura Elkarteko kideak.

### Ekarpen ekonomikoak

Ikerketa martxan dute eta informazioa jasotzen ari dira, ondoren guztia liburu batean jasotzeko. Dena dela, ikerketa aurrera doan heinean "zailtasunak" aurkitu dituztela ere aitortu du Ander Lizarraldek, eta, horrenbestez, ekarpen informatiboak ez ezik, "ekarpen ekonomikoak" egiteko dei ere egin dute. Ekarpen horiek hiru motatakoak izan daitezkeela azaldu zuen: "Ekarpen ekonomikoak 20 eurokoak, 50 eurokoak edo 100 eurokoak izan daitezke, eta hura egin nahi duenari gurekin harremanetan jartzeko eskatzen diogu".

### Harremanetan jartzeko

Dagoeneko egin diete herritarrei dei eurekin harremanetan jartzeko, eta horretarako bi bide izango dituzte: alde batetik, *jardunaldiak@hotmail.com* helbide elektronikora idatzita; edo, bestela, 655 83 61 83 telefono-zenbakira deituta.

**HIRU MOTATAKO EKARPEN EKONOMIKOAK EGIN DAITEZKE: 20, 50 EDO 100 EUROKOAK**

## ZABALIK



**BEÑARDO KORTABARRIA**

# Palestina askatu!

Errobiren kontzertuan izan nintzen Euskaldunan. 50 urte Anje eta Michel, Daniel Landart-en laguntza ezinbestekoaz, jendaurrean kantuan hasi zirenetik. Giro eta kontzertu bikaina izan zen, oroitzapenez betea. Konturatu nintzen, ordea, denbora pasatu izanagatik gauzak ez direla ezer asko aldatu, duela mende erdi Errobiko kanten bidez barreiatzen ziren aldarrikapen gehienak oraindik ametsen zakuan daudela. Hona hemen adibide batzuk: euskararen justu-justuko biziraupena, Euskal Herriaren lurraldetasun lortezina, Franco-zaleen berrindartzea, telebista manipulatzailea… *ta gauean langilek zer eskainiko: pottotta ta ipurdi nagusiarendako!*

Errealitate bihurtu ez ditugun amets horiek alde batera utzita, ez gaude kexatzeko moduan. Baina ez pentsa, e! Gure borrokatxoak eta kezkak ere baditugu: Muniain badoa Athleticetik, Fermin Muguruzaren kontzerturako sarrerarik ez dugu lortu, oporretarako tokia hartzeko ez gara ados jartzen, etxe ondoan aparkatzeko tokirik ez dago, tabernan ez didate segituan kasu egiten, eta udaberriak ez digu bakerik ematen, kolesterolak ere ez, eta gaur bero bihar hotz. A zelako sufrikarioa gurea!

**HERIOTZA DA NAGUSI ETA SIONISTEN KRUDELKERIARI EZ ZAIO MUGARIK IKUSTEN**

Udaberria ez bezala, gu epel-epel bizi gara. Bilbon hegazkina hartu eta sei ordu eta erdian Tel Aviven egon gaitezke; hau da, duela mende erdi pasatxora arte, Palestinan. Handik oso gertu, Gaza. Han dagoeneko ez futbolak, ez oporrak, ez eguraldiak… ez du garrantzirik. Heriotza da nagusi, sionisten krudelkeriari ez zaio mugarik ikusten, egarriz eta gosez daude milaka pertsona… Ikara, beldurra, dardara, terrorea nozitzen dituzte egunero palestinarrek. Bizirik irautea dute helburu.

Hemen, berriz, epel gabiltza. Kanpaldiak eta manifak egiten ditugu, bada zerbait. Baina ez da ezer Gazan gertatzen ari den genozidioaren aurrean. Planto egin eta, behetik hasita, agintariak estutu eta Palestina askatzeko garaia da.

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE**




## HANDIK ETA HEMENDIK

### Hegaldi librea Viktoria Eugenian

**JOSERRA SENPERENA**
'BERRIA'-N ARGITARATUA
HTTPS://LABUR.EUS/7NIUG

Idoiak Viktoria Eugenian atzo emandako kontzertua dela eta, ekitaldi historiko batera joan nintzela iruditu zitzaidan. Bere hastapenetik, sailetik kanpoko artista bat ikusteko pribilegioa izan nuela esango nuke; 23 besterik ez, eta bigarren diskoa aurkezten ari zen.

Espero liteke lehen diskoarekin arrakasta izan duen artistak bigarrena komertziala egingo duela; ikus-entzuleria zabalago batengana iristeko aukera bilatuko duela, bere tokia baieztatzearren. *De amar y desandar* disko ausarta da. Egilearen azken bizi-esperientzietatik abiatzen dira abestiak, eta modako *hit*-etan ohikoak ez diren bihurguneak eta mailaketak bilatzen ditu. Idoia ausartzen da kantatzera, hizki larriz esanda. Ausartzen da *forte, piano, a capella*; ausartzen da *falseteak* egitera, *ritardandoak* egitera, testu bat off-ean errezitatzera… Kontatu nahi duena kontatzeko eta kantatu nahi duena kantatzeko behar diren baliabide guztiak erabiltzen ditu.

Hori guztia estiloen gainetik hegan eginez eskaintzen du, eta horietako bakar bati ere konturik eman gabe. Aramaioko musikariak popetik abesten du, souletik, hegoamerikar musikatik edo Gaztelako folketik pasatuz, naturaltasun osoz abesten duelako, pasabide ikusezin batean soilik handiek egiten duten moduan. Eta bere melodiak aske doaz, ez dago grabitaterik; akordeak, konponketak eta instrumentazioa desagertu egiten dira, eta abestiak hegan doaz. Musika.

Atzoko kontzertuan Txus Aranburu (teklatuak), Karlos Aranzegi (bateria), Ander Ederra (gitarrak) eta Joanes Ederra (baxua) izan zituen lagun, guztiak ere prestigio handiko musikariak. […]

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA
www.goiena.eus

**Argitaratzailea**
Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**
Monika Belastegi.
**Zuzendari nagusia**
Iban Arantzabal.
**Eduki zuzendaria**
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**
Eneko Azkarate, Goiatz Arana, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**
Mireia Larrañaga.
**Administrazio zuzendaria**
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**
Iñaki Iturbe.
**Hizkuntza arduraduna**
Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**
Igone Osinaga.

**Saileko arduradunak**
Xabier Urzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
**Maketazioa**
Imanol Soriano, Aitor Lagoma, Amaia Martinez de Arenaza.
**Publizitatea**
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin, Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Leire Etxebarria.

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*harpidetza@goiena.eus*

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*publi@goiena.eus*
**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp: 688 69 00 07
*berriak@goiena.eus*

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 18.550 ale

**Inprimategia:**
Zeroa Multimedia

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK
Arrasateko Udala, Bergarako Udala, Oñatiko Udala, Aretxabaletako Udala, Eskoriatzako Udala, Antzuolako Udala, Aramaioko Udala, Elgetako Udala, Leintz Gatzagako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI



Beñat Arzadun, *Hemen Debagoiena* saioko platoan, eguenean. IÑIGO BARRENA

# "Hazkunde jasangarria sustatzea aberatsen ardura da"

**BEÑAT ARZADUN** MUNDUKIDEKO KOOPERANTEA

**Iñigo Barrena** ARRASATE
Etzi ospatuko dute Afrika Eguna, eta, horren harira, hainbat dira egun horren bueltan antolatu dituzten ekintzak. Esaterako, 15 urtez Mozambiken bizi izandako Mundukideko kooperante Beñat Arzadunek (Errenteria, 1973) *Europa eta Afrika. Klima aldaketaren nor nori, nork* hitzaldia egin zuen Oñatin. Goiena telebistako *Hemen Debagoiena* saioan ere jardun du gai horren gainean.

**Afrika Eguna noiztik eta zertarako? Orain arte, esaterako, zertarako bide eman du?**
Afrika Eguna gure mahaian aitzakia bat da Afrikari buruz hitz egiteko eta haiekin dugun harremanari buruz hausnartzeko.

**Kliman jarri gura izan duzu arreta zuk; diozu "hemengo aberatsak" ari garela klima hondatzen.**
Askotan, kezka izaten da munduan beste toki batzuetan miseria dagoela, eta ea gu garen horren arduradunak edo eragina dugun horretan. Agian, ekonomiari begiratuz gero ez da hain erraza erantzuten, baina klima aldaketan datu oso garbiak daude zailak direnak eztabaidatzeko, eta horregatik heldu genion gaia lantzeari.

**Zeintzuk dira historia hau laburbiltzen duten datu horiek?**
Lehenik, hitzaldian herrien aberastasun maila erakutsi genuen. Euskal Herriko datuak ez genituen aurkitu, baina Espainia eta Frantzia jarri genituen, eta garbi dago erdi-mailakoak ez garela. Mundu mailan aberatsak gara, eta gure erdia edo herena dutenek guk besteko heziketa maila eta itxaropen maila dute. Gure azken bi herenak beste gauza batzuetarako dira, ez oinarrizkoetarako.
Bigarren froga klima aldaketa gertatzen ari dela da. Satelite bidez neurtzen dituzte datuak eta urtetik urtera tenperatura gora doa. Hirugarrena horrek dakartzan ondorioak dira; adibidez, Afrikako hegoaldean zikloiek gora egin dute, eta Afrika bezalako herrialde batek dituen azpiegitura baliabideak oso txikiak dira; hala, horrela oso zaila da aurrera egitea. Behin betiko froga, berriz, CO2an ikusten da. Espainian eta Frantzian urtero gutako bakoitzak bost tona isurtzen ditu, eta Mozambikeko eta Tanzaniako biztanle bakoitzak, berriz, 200 kilo urtean. Hala, zikloiak han izaten jarraitzen dute eta kalte egiten ari gara, eta, hain zuzen, hau da eman nahi genuen mezua. Kontuan izan behar dugu hori.

**Eta bueltan datorrena? Fenomeno atmosferikoak berdin gertatzen dira leku guztietan?**
Hori Mozambiken neurtzea ez da hain erraza; zikloiak neurtzea, ordea, errazagoa da, meteorologoek oso zehatz eramaten dituztelako zikloien gaineko datuak. Zikloiena kontatzea erraza da, baina eguraldiaren aldaketa erradikalagoak izaten ari dira.

**Era berean eragiten diete ogibide nagusi industria edo nekazaritza duten herrialdeei?**
Hemen asko esaten da gure nekazaritza gehiago izan behar dugula, kanpokoen menpe egonez gero, janari gabe geldituko garelako egunen batean. Baina nire esperientzia kontrakoa da. Gosea pasatzen duena baserritarra da. Dirua duenak beti aurkitzen du dirua duenaren mahairainoko bidea, hori da nire esperientzia. Beraz, munduan gosea badago, gu izango gara azkenak gosea pasatzen, hemen batere nekazaritzarik eduki gabe.

**15 urtez egon zara zu kooperante Mozambiken; zer esan diezagukezu han bizi izandako esperientziatik?**
Klima aldaketan guk gehien nabaritu duguna zikloien kontua da. Zaila da esatea lehen baino lehorte gehiago edo gutxiago izan diren, baina zikloiena bai. Duela 20 urte, hainbat urtean behin izaten zen, eta orain, urtean behin edo bitan izaten da. Ospitale berri bat eraikitzen da eta bi urtean teilatu gabe gelditzen da, hemen bunkerrak egiten ditugun bitartean. Diru faltak hori du.

**Halako fenomenoak gero eta ohikoagoak dira; inflexio punturen bat identifikatu duzu?**
Ez nuke hori esaten jakingo. Ikusten dena da urtetik urtera pauso bat aurrera egiten dugula.

**"GAUR EGUN, URTEAN BEHIN EDO BITAN IZATEN DITUZTE ZIKLOIAK MOZAMBIKEN"**

**Eta klima aldaketaren ondorioek nola eragiten diete nekazariei? Zer egin behar izaten dute pairatzen dutenaren ondorioz?**
Han ez dute erremediorik. Erremedio bakarra guk isurtzeari uztea da. Pentsatzen dugu diru gehiago emanda ondorioei aurre egingo dietela, baina ez da horrela. Konponbide bakarra gure isurketak asko murriztea da.

**Zein da hango egoera egun?**
Mozambiken gauza asko hobetu dira ni iritsi nintzenetik, baina oraindik bide handia dago egiteko.

**Zein potentzial du Afrikak, kontinente mailan ez ezik mundu mailan ere, hazkunde ekonomiko jasangarria sustatzeko?**
Ardurak banatu behar ditugu. Hazkunde jasangarria sustatzea aberatsen ardura da. Afrikaren ardura garatzea da eta Europarena, berriz, guztiak izorratzen uztea. Esaterako, Afrikan 25 urtetik beherako 800 milioi gazte daude, eta Euskadiko enpresek atzerrian inbertitzen duten dirutik %1,5 inbertitzen da Afrikan. Gero esaten da hemen jendea falta dela lanerako; ba, hortxe dute aukera. Afrika Norvegia baino gertuago daukagu, eta 800 milioi gazte daude han; han dute non inbertitu eta non lanpostuak sortu. Ez haiek gurera ekarriz, han inbertituz baizik.

**Zerekin diharduzue gaur egun hemendik Afrikara begira?**
Ni hemen nago, baina proiektuak han jarraitzen du beste lankide batzuekin, eta handik zabaltzen jarraitzen dugu. Iazko emaitzak oso onak izan ziren, eta orain uzta saltzen hasten ari dira. Itxura du salmenta ondo joango dela eta urte ona izango dela. Gure helburua da hainbat eskualdetako baserritar gehiagori gure programan sartzeko aukera zabaltzea.

**"KLIMA ALDAKETA GELDITZEKO, GURE CO2 ISURKETAK MURRIZTEA LITZAKE KONPONBIDEA"**




Ttak gazte taldeko hainbat kide, biharko eguna iragartzeko kartelarekin. TTAK TALDEA

# Gazteak eta euskara bat eginda, Ttaken eskutik

Bihar, zapatua, Ttak Eguna egingo dute; gazte arrasatearrak euskaraz bizi daitezen aldarrikatzeko egun bat izango da, kide berriak erakartzeko baliatzeaz gain. "Beraz, gazteei dei egiten diegu gurekin batera ondo pasatzeko, euskaraz", diote taldekideek

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE
Ohikoa den moduan, Arrasateko gazteen artean euskara sustatzea izango da Ttak Egunaren helburu nagusia. Eguna hasteko, hika eta noka ikastaroa zuten prestatuta, baina ez dute taldea osatzerik lortu eta, beraz, bertan behera geratu da. Edozelan ere, ikastaro hori egin ahal izateko lanean jarraituko dutela adierazi dute Ttakeko kideek.

Bazkaria bai, hori egingo dute, 14:30ean gaztetxean elkartuta. Txartela AEDn eskuratu ahal izango da, bost eurotan. "Aukera beganoa ere egongo da, nahi duenarentzat, baina txartela erosterakoan adierazi egin beharko da", azaldu du Aines Gonzalezek, Ttakeko kideak.

Eguna borobiltzeko, kontzertuak egongo dira gaztetxean bertan, 22:30ean hasita. Sukena eta Azken Sustraiak taldeak eta DJBD musikaria ariko dira oholtza gainean eta sarrera momentuan bertan erosi beharko da, bost eurotan.

**AEDren gazte taldea da Ttak**

AED elkartearen gazte taldea da Ttak eta helburu nagusia da Arrasateko gazteen artean euskara sustatzea eta euskaraz hitz egiteko espazioak sortzea. "Gurekin egon ohi dira DBHko laugarren mailatik batxilergoko bigarren mailara arteko ikasleak. Egia da gero ere jarraitzeko aukera izaten dutela, baina gehienek utzi egiten dute, unibertsitateko ikasketak hasten dituztelako", adierazi du Gorka Davila dinamizatzaileak.

Urte naturalarekin batera funtzionatzen dute. Hala, normalean, urtarrilean berritzen dute taldea, orduan sartzen dira kide berriak. "Hori bai, ekintzak irailetik ekainera bitartean egiten ditugu, ikasturtearekin batera".

**BAZKARIRAKO TXARTELAK AED-N ESKURATU AHAL IZANGO DIRA, BOST EUROTAN**

Egiten dituzten ekintzen artean, Ttakeko kideak ikastetxez ikastetxe joan ohi dira, taldearen nondik norakoak azaltzera. "Horrez gain, hainbat kidek euren esperientziaren berri ematen diete ikasleei. Bisita horien helburua da kide berriak erakartzea", dio Davilak.

Hain zuzen, berriki taldera batu denetako bat da Gonzalez: "Gustatu zitzaigun taldeak egiten duen lana. Hala, kuadrillako batzuen artean berba egin, eta taldera batzea erabaki genuen".

**Bilerak, domeketan**

Domeketan elkartzen dira, 17:30ean. "Zorionez, taldekide asko gara eta AEDren lokalean ez gara sartzen. Beraz, gazte txokoan egiten ditugu bilerak. Udalak horretarako utzi digu espazioa", azaldu du Davilak.

Biharkoaren ostean, sanjuanei begira jarriko dira, Txosna Batzordeko kide ere badira eta.

## Euskarak enpresetan duen pisuaz ariko dira eguaztenean

'Hizkuntzen kudeaketa eta euskara gure enpresetan' mahai-ingurua egingo dute Garaian, AEDren eskutik

**E.A.** ARRASATE
Euskararen biziberritzeak daukan erronka nagusietako bat da lan mundura eta, zehazki, industria eta zerbitzu enpresetara iristea, eta, hain zuzen, arlo horretan ibilbide oparoa egiten ari diren hiru enpresatako ordezkariak izango dira maiatzaren 29an Garaia parke teknologikoan egingo duten solasaldian. 17:00etan izango da saioa, Muru gelan, eta Goienako kazetari Txomin Madinak gidatuko du.

Esan moduan, euskara industria eta zerbitzuetara iristeko lanean diharduten hiru enpresatako ordezkariak izango dira. Batetik, Antzuolako Elay enpresa aitzindaria izan zen euskararen erabilera normalizatzeko plan integral bat martxan jartzen, eta Kristina Elkorok emango du horren berri. Bestetik, Ikerlaneko zuzendari Jon Etxeberria duela 30 martxan jarri zuten euskara normalizatzeko planaz ariko da. Azkenik, ABB-Niessen enpresako Txuss Alonso ere mahaiaren bueltan egongo da, Euskara Batzordea nola sortu zuten kontatzeko, besteak beste.

## Desfibriladoreak erabiltzeko boluntario sarea osatu gura dute

Formakuntza jasotzeko izen-emate epea ireki du Udalak; ekainaren 3tik 20ra izango dira saio horiek

**E.A.** ARRASATE
Desfibriladoreak erabiltzeko boluntarioen sarea sortu eta formakuntza jasotzeko izen-emate epea ireki du Arrasateko Udalak. Saio horiek Bexen Cardio enpresak emango ditu, trebatzaile espezializatuen bidez, teoria eta praktika uztartuz.

Formakuntza doakoa izango da eta ekainaren 3tik 20ra arte egingo dute –hiru orduko ikastaroa–. Izena emateko epea maiatzaren 31ra arte egongo da zabalik. Guneak eta ordutegiak *Goiena.eus*-en daude ikusgai.

Bultzada emateko, herriko hainbat pertsona esanguratsuk babesa agertu diote ekimenari. Besteak beste, honako hauek dira: Pili Iriarte, Arrasateko Nagusien Kontseiluko presidentea; Asier Azkarate, kirolaria; Tirso Sagarminaga, familiako medikua Arrasateko anbulatorioan; Joxerra Fernandez, pediatra Arrasateko anbulatorioan; eta Mariasun Garai, Bedoñako auzo-alkatea. Kide guztiek boluntario sarean parte hartu eta formakuntzan izena ematera animatu dituzte herritarrak.

## Aniztasun Astearen baitan, hainbat ekintza asteburuan

Gaur, egubakoitza, Arizmendi Ikastolaren eskutik, munduko jolasen lanketa eta jaialdia egingo dute haurrekin eta familiekin, 14:30etik 16:30era, Arimazubin. Bihar, bestalde, komunitate jaia dute Arrasate Herri Eskolakoek. Ipuin kontaketaren ostean, bazkari multikulturala egingo dute Erguinen; horren ondoren, dantzak izango dira.

Bihar, era berean, boxeoa ardatz hartuta, genero ikuspegia landuko dute Erguingo gazte txokoan, Txatxilipurdiren eskutik, 12:00etan.

Datorren astera begira badaude beste hainbat ekintza ere. Esaterako, maiatzaren 27an, astelehena, *Gure nortasuna* proiektua aurkeztuko dute AMS erakundeak eta Garagunek, Kulturaten, 11:30ean.

Maiatzaren 30ean, kulturaniztasunaren jaia egingo dute Arizmendikoek Santa Teresan.

# Eider Abarrategirena da sanjuanetako kartela

Arrasatearrak 'Sustraiak errotuz, sanjuanak bultzatuz' lanarekin irabazi du aurtengo lehiaketa; halaber, Udalak jakinarazi du aurten ez dela barrakarik egongo Maiatzaren Bata plazan, eta haurren programazioa indartu egingo dutela horri aurre egiteko

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE
Arrasateko San Juan jaien bueltako askotariko elementuak txertatu ditu kartelean Eider Abarrategi arrasatearrak, kartel lehiaketa irabazi duen artistak. "Hainbat kultur taldetako elementuak erabili ditut: erraldoiak eta kilikiak, gaiteroak, txistulariak, zezenak, dragoia, gazteak, dantzariak, makala... jaien parte direlako", nabarmendu du artistak. "Figura edo elementu horiek ematen diete San Juan jaiei bizitasun eta kolore puntu hori", gehitu du.

Elementuak eta figurak, era berean, belaunaldi ezberdinei erreferentzia egin eta bizipen pertsonalean oinarrituta daudela adierazi du Abarrategik. "Txikitatik ibili izan naiz sanjuanetan murgilduta, Arrasate Musikalen eta Txikitxu-Arrostaitz dantza taldean, eta familian ere badauzkat kide batzuk beste kultur diziplina batzuetan aritzen direnak", adierazi du. "Adinean aurrera egin ahala, San Juan jaietako etapa guztiak pasatu ditut: txikitan, erraldoiak eta kilikiak ikusten; gero, makala igotzen; gaur egun, errementari dantzan parte hartzen... Hortaz, kartela egiteko, nire esperientzian oinarritu naizela esan dezaket".



2024ko sanjuanetako kartela. E.A.

**Barrakarik ez da egongo**
Horrez gain, Udalak aditzera eman duenez, aurtengo jaietan ez da barrakarik etorriko Arrasatera, ez baita inor aurkeztu. Horri azalpena eman guran, udal ordezkariek adierazi dute sanjuanetan jende gutxiago ibiltzen dela barraken gunean, Maiatzaren Bata plazan, eta horrek bideragarritasun ekonomikoa ezbaian jartzen diela barraken arduradunei. "Hala adierazi izan digute haiekin hitz egin dugunean", azpimarratu dute udal ordezkariek.

Halaber, "berria ez den arazo baten aurrean" daudela adierazi dute: "Udalak barraketako arduradunen kexak jaso izan ditu, ohartaraziz jaietan ez zela ekonomikoki bideragarria barrakak jartzea; aurten ez etortzea erabaki duten arte. Horrek hausnarketa bat egitera eraman behar gaitu, eta, jai hauek pasata, baldintzak berrikusteko prozesua abiaraziko dugu, datorren urtean barrakak egoteko ahalegin guztiak egiteko".

Hutsune horri aurre egiteko, haurrentzako jolasetan erreformtzu bat egingo du aurten Udalak, aurrekontuan partida berri bat gehituta. "Modu horretan, San Juan jaiek iraun bitartean, haurrentzako entretenimendua eta jolasa bermatuko dugu".

**Egitarauaren berri, ekainean**
Gaineratu dutenez, dagoeneko egitarauaren "azken ukituak" egiten ari dira udal teknikari eta politikariak, eta programazio osoa ekaineko lehen astean iragartzeko asmoa dute. "Egitarauan ohiko ekintzak egongo dira: errementari dantza, erraldoi eta kilikiak, gazte programazioa, kontzertuak... Baina berritasunak ere izango dira", diote. Horien guztien berri ekainean emango dute.

## 'Magaletik herrira' jaia ospatuko du bihar Ikerlanek

50. urteurrenaren baitako jaia izango da, herritarrei teknologia "modu ludikoan hurbiltzea" helburu hartuta. Hala, musika, magia eta bakarrizketa ikuskizunak izango dira, baita dantza bertikaleko saio bat ere. 11:00etan hasiko dituzte ekintzak, eta, Biteri eta Seber Altube plazetan ez ezik, Zaldibarko udal pilotalekuan ere egingo dituzte.

## Ekainaren 6an egingo dute udaberriko Jostailu Truke Azoka

Laugarren urtez, udaberrira begirako jostailuen trukea egiteko aukera eskainiko du Txatxilipurdi Elkarteak, Monterron parkean egingo duten azokaren bidez. Horretarako, aurrez, jostailuak batuko dituzte: maiatzaren 28an, Santa Marinako ludotekan; 29an, Kulturolako aterpean; eta 30ean, Arimazubin. Hiru egunetan, 18:00etatik 18:45era.

## Elkarretaratzea egingo dute Douglas denda aurrean gaur

BDZ Arrasate taldeak Douglas dendaren aurkako kanpaina abiatu du, Israelek ekoitzitako Alma-K markako gatz mineralak saltzen dituelako. Hala, dendaren aurrean elkartuko dira gaur, egubakoitza, 19:00etan. Produktu hori saltzeak okupazioaren ekonomia, apartheida eta palestinar herriaren genozidioa bultzatzen duela diote deitzaileek.

NIRE USTEZ



ITSASO ERRETOLATZA

## Plazer etika

Aristotelesen arrazoiaren beste ertzean, Epikuroren etikan plazera sortzen duen guztia ona ei da. Nahiz eta plazerak aukeratzen jakin behar dugula zioen, Antzinako Grezian.

Sexuaren ikasgaia aldatuz doala jakinekoa da. Eta galdegin diot neure buruari: nola hautatzen ote dute egungo gazteek?

Ikusmiran, Broncano bezalakoek naturaltasun osoz hitz egiten dute klitori xurgagailuaz, eta barre egin neskak esaten dionean: "Laster ez dugu zuen beharrik izango".

Bitartean, Suedian, urteak dira neska batek esperma eskaera online egin eta etxean berak bakarrik ernaldu dezakeela.

Eta TEDx gomendagarri batean, Erika Luster film egileak pornografia kontsumoaz aditzera ematen digu Googlen lautik batek pornoa bilatzen duela. Eta denon erantzukizuna badela, filmek zein eredu irakasten duten: berdintasunarena ala emakumea objektu bat dena... Zer jasotzen duten nerabeek, artean sexua probatu gabe sarritan.

Eta hirugarren adinean sexu bidez transmititutako gaixotasunak goraka ei doaz, nahiz eta poztekoa den adin horietan hartu-emanak izatea.

Handik, zer ikusi, hura aukeratu.



KONTU KONTARI


Anton Herrarte Garai, Arrasaten, San Andres auzoko Etxaluze nagusien egoitza kanpoan. MARKEL ARRAYAGO

# "Okina nintzela uste zuten arren, ez dut sekula ogirik egin"

## ANTON HERRARTE GARAI

Etxaluze nagusien egoitzan egin du hitzordua Mikel Lezamizek Herrarterekin, eta bizitakoez, izandako ogibideaz eta pasio duen musikaz jardun dute kontu kontari

**Imanol Beloki Unamuno** ARRASATE

Gerra ostean 1940. urtean jaiotakoa da Anton Herrarte Garai arrasatearra. San Andres auzoan, Miravalles baserrian; Olandixotik gora, berak dioen moduan, "*Dragoiaren bidetik* gora, lehengo bide ofizialetik, Arrasatetik Untzillara, eta Arabako lautadaraino joan zitekeen bidean. Baserria lautada batean dago, Debagoieneko bailarari begira. Miravalles, Mirabañes… deitua izan da; Valles de Artazubiaga kondearena izandakoa ere izan daiteke; gure amandreari entzunda diot kondeari erosi ziotela, hau da, Monterrongo kondearena zela gure amandrearen garaian".

### Zazpi anai-arrebako familia

Amak nahikoa lan izan zuela dio Herrartek, zazpi anai-arreba zirelako etxean; sei gizonezko eta emakumezko bat: "Koitaduak nahikoa lan izan zuen. Berrogeita urte gutxiaz hil zen, gazte, eta gure aita eta amandrea geratu ziren gurekin. Ni zaharrena nintzen; 14 urte nituen ama hil zenean". Gerra ostean jaio arren, baserriko bizimodua ez zela hain gogorra ere azpimarratu du Herrartek: "Jateko beti zegoen patata eta garia. Aita oso tradizionala zen, eta garia berandu arte erein zen gurean. Ganadua ere bagenuen, oiloak, frutak… Ez genuen goserik pasa".

### Karmelitetara 11 urterekin

Arantzazuko Amarengana joan behar zuen, hasiera batean, apaiz-ikasketak egitera, baina karmelitetara joan zen. "Niretzako Elizak izan duen errore handiena mutikotan apaiz izateko eramatea izan zen. Jesukristok ez zituen mutikoak hartu, gizonak hartu zituen, ezkongaiak edo ezkonduak, baina gizonak. Osaba bat karmeldarra nuen Txilen, behin etorri zen, eta, karmelitetara joan behar nuela esanda, ordaindu beharrekoak hark ordainduko zituela esan, eta hara joan nintzen. Ondo egon nintzen bertan, eta norberak nola izan behar duen jakiteko asko ikasi nuen orduko bizimodurako, baina ez apaiz izateko. Gero, pederastia kasuak-eta hortik datoz; mutikotan joan dutelako askok. 11 urterekin zoaz, eta indar handia behar duzu horri aurre egiteko. Nagusi joan diren apaizak, bestalde, onak dira. Han, 11 urtetik 14 urtera arte egon nintzen. Arrasatera etorri, eta Zarugalden, Tijerasen, hasi nintzen fabrikan lanean, soldaduskara arte".

### Guraizeak egiten lanean

Tijeras fabrikan hasi zen, aprendiz; gero, langile, liman, trokelak egiten… "Artaziak forjatuta egiten ziren, kategoriagoakoak egiten ziren, ez orain egiten diren modukoak, plastikozkoak. Orduan, 1965ean kooperatiben kontua pil-pilean zegoen, eta, dozena bat lagun batu, eta guk ere kooperatiba bat egin behar genuela pentsatu genuen. Kapital apur bat jarri genuen eta Uribarrin tailertxo bat ireki genuen. Ez genuen ezagutzarik, eta urte batzuk egin ostean porrot egin genuen. Gerenteari Afrikara joatea tokatu zitzaion soldaduskan, eta ni jarri ninduten gerente. Sindikatukoek ere esaten zidaten gutxi ordaintzen zela… eta esaten nien: 'Jarri enpresa bat, sortu zuek lanpostuak…'. Izan ere, denok dugu eskubidea lan egiteko, baina nork dauka obligazioa lana emateko? Gobernuak? Gizartean kontraesan izugarriak daude. Bizi izan nuen esperientzia hura aberatsa izan zen, baina esperientzia bakarrik; izan ere, diru barik geratu nintzen, ogia saltzen hasi nintzen arte.

> **"DOZENA BAT LAGUNEN ARTEAN KOOPERATIBA TXIKI BAT ERE SORTU GENUEN"**

> **"BASERRIKOOI KALEKO OGIA GUSTATZEN ZAIGU; ETA KALEKOEI, BASERRIKOA"**

### Ogia saltzen 36 urtez

Arreba kalera jaisten zela esnea saltzera eta bueltan ogia ekarri behar zuen arren erostera joan eta ogirik ez zegoela gogoan du Herrartek: "Lau okindegi zeuden herrian, eta San Andres auzoa ere kanpotik etorritakoekin handitzen hasia zen. Denontzat ez zegoen ogirik. Gainera, baserrikooi kaleko ogia gustatzen zaigu; eta kalekoei, baserrikoa. Ogia banatzen hasi nintzen, Aramaion ogia egiten zuen bati erosita; gero zabaldu genuen denda San Andresen, Zigarrolan ere ireki nuen beste bat, Santa Marinan, eta gero, ezkontzean, andregaiarekin aritu nintzen ogia saltzen. Okina nintzela esaten zidaten, baina ez dut sekula ogirik egin, saldu egin dut. Horrela, 66 urtera arte. 36 urtean, urte askoan ez oporrik ez jairik eta ezer ez. Goizeko bostetan hasi eta, sarritan, 20:00ak arte. Milioika kilometro egin ditut Arrasatetik Aramaiora".

### Musika pasio

Karmelitetan ikasi zuen musika Herrartek, eta haren kabuz gustatzen zitzaion musika egitea; poesia irakurriaz, musika jartzen zien letrei. "Beti izan dut musika sortzeko ahalmena, baina ez dut formakuntzarik izan".

**Beethoven gustuko, ezizen bera jasota**

"Beethoven niretzat aurkikuntza bat izan zen. Gasteizera joan nintzen musika denda batera, Arrasaten ez zegoelako, eta bederatzi sinfoniak erosi nituen, baita disko-jogailu bat ere. Gero, koruko kideak *Beethoven* ezizenez deitzen hasi ziren".

Erreportajea ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.

# "Saria bera izanagatik, hau ezberdina izan da"

**ANDER MURUA** PILOTARIA

Ander Murua pilotari arrasatearrak beste txapel bat eskuratu du, Bergara Hiria txapelketakoa. Bigarrenez jantzi du lehiaketako txapela Soraluze klubeko pilotariak



Ander Murua, Bergara Hiriko txapela jantzita. IÑIGO BARRENA

**Gontzal Belategi Zubia** ARRASATE

Ander Murua (Arrasate, 2000) pilotariak bere bidea egiten jarraitzen du frontoian. Azken txapela jantzi berri du Bergara Hiria txapelketan. Txapela eskuratzen duen bigarren aldia da. Pilotari onenaren saria ere eskuratu du edizio honetan.

**Ze sentsaziorekin bukatu zenuen Bergara Hiria txapelketa?**

Oso gustura. Aurreko urtean ere irabaztea lortu nuen, baina ordezko bezala sartu nintzen finalean. Aurten hiru partiduak jokatu ditut eta, egia esan, oso gustura gelditu naiz.

**Ezberdina izan da partidu guztiak jokatuta irabaztea?**

Bai; saria bera izanagatik, aurten ezberdina izan da. Agian, pertsonalki, garrantzi handiagoa eman diot. Horrelako torneoa eginda gustura gelditu naiz.

**Gainera, pilotari onenaren saria irabazi zenuen, ezta?**

Bai, hala izan zen, baina beti esan izan dut ez diedala garrantzirik ematen horrelako sariei. Azkenean, binakakoa zen, eta atzelariak lan ona egin izan ez balu ez genuen irabaziko. Bioi esker irabazi genuen. Anekdota bezala hartzen dut saria.

**Arrasatearren babesa ere izan duzu.**

Bai, horrela izan da. Eskerrak eman nahi nizkieke Arrasatetik nire partiduak ikustera joaten direnei. Baita pilota klubeko haurrei, ilusio handia egiten dit haiek harmailan ikusteak.

**Bestela, zelan joan da denboraldia?**

Ondo joan da. Denboraldia irailetik aurrera hartzen baldin badugu, oso ondo joan da. Partidu guztietan eman dut maila eta emaitza onak izan ditut.

**Espainiako txapelketan ere ibili zara jokatzen.**

Bai; Aste Santuan Bartzelonan izan nintzen eta Errege Kopako txapeldun izatea lortu genuen. Han ere oso gustura ibili nintzen.

**Nola ikusten duzu denboraldiaren azken txanpa hau?**

Orain, txapelketa gutxi gelditzen dira. Uda hasten da, eta sasoi horretan erakustaldi eta jaialdiak hasten dira. Horietan ahalik eta gehien jokatu nahi nuke, irailera arte maila ona mantentzeko.

**Aurrera begira, posible ikusten duzu profesional izatea?**

Zail ikusten dut. Maila handia dago gaur egun profesionaletan. Aukera etortzen bada, ondo, baina ez bada etortzen, ez da ezer gertatzen. Ez diot buelta handirik ematen, horrekin obsesionatzeak ez du ezertarako balio. Presionatuz gero, kantxan nabaritu egiten da. Mantentzen dut ilusioa, polita delako ilusioa izatea, baina hortik harago ez.

## Ibilbide bikaina Bergara Hirian

Apirilaren 9an hasi zen Bergara Hiria txapelketa. Ander Muruaz gain, beste bi debagoiendarrek hartu zuten parte: Ander Etxaniz bergararrak eta Manex Balerdi antzuolarrak. Endika Uriondo gizaburuagarra izan zen Muruaren bikotekidea.

Txapelketa bikaina egin dute bi pilotariek. Apirilaren 23an jokatu zuen lehen partidua arrasatearrak, Lizeaga-Oliden bikotearen aurka. 22-07 amaitu zen lehia. Finalerdia maiatzaren 14an jokatu zuten Muruak eta Uriondok. Partidu hartan ere erraz eskuratu zuten garaipena, 22-11eginda Canabal-Apeztegia bikotearen aurka. Maiatzaren 20an izan zen final handia. Amiano-Garmendia bikotea zuten aurrean. Azkenean, 22-13ko emaitzarekin irabazi zuten txapelketa Muruak eta Uriondok.



# Musikaldiaren azken doinuak asteburuan

Udaberriko Musikaldia azken astean sartu da. Eguaztenean Aitor Garitano tenorea egon zen JAMEko auditoriumean, eta bihar eta etzi, 19:30ean, Iñar Sastre piano-jolearen eta Eñaut Zubizarreta 'Trigger' biolontxelo-jotzailearen txanda izango da

**Iñigo Barrena** ARRASATE

Udaberriko Musikaldia azken asteburuan sartu berri da eta bi emanaldi besterik ez da gelditzen amaitzeko: lehenengoa gaur izango da, 19:30ean, eta Iñar Sastre piano-jolea entzuteko aukera egongo da; bigarrena, etzi, ordu berean: Eñaut Zubizarreta *Trigger* biolontxelo-jotzaileak emango du kontzertua. Bi emanaldiak Juan Arzamendi Musika Etxeko (JAME) auditoriumean izango dira. Eguaztenean, ordea, Aitor Garitano tenorea bakarlari moduan aritu zen auditoriumean.

**Bihar, Iñar Sastre**

Azken aurreko emanaldian Irurako Iñar Sastre piano-jotzailea egongo da oholtza gainean. Duela hilabete batzuk izan zen Arrasaten, liburu aurkezpen batean, eta ordutik, gogotsu zegoen berriz bertara itzuli eta kontzertua emateko. Donostiako Jazzaldian ere izango da bakarkako saioarekin, baina aurretik Arrasaten egin nahi du lehen proba. "Ez da kontzertu klasiko bat izango, nahiko irekia izango da, abiapuntu ezberdinetatik egindako sortze lan bat izango da", dio Iñar Sastrek.

Piano-jotzaile irurarrari, gainera, ilusioa egiten dio Udaberriko Musikaldian parte hartzeak: "Bizitza handia duen eskualdea da eta herriek pertsonalitate handia dute. Gainera, ikusi besterik ez dago nolako programa antolatu duten. Egia esan behar badizut, Jazzaldiko emanaldia prestatzen ari nintzenean, hura probatzeko burura etorri zitzaidan lehen espazioa Arrasate izan zen. Oroitzapen polita nuen azken alditik, eta, gainera, tradizioa duen toki bat ere bada".

**ASTEBURUKO IKUSKIZUNETARAKO SARRERAK DEBALDE IZANGO DIRA, EDUKIERA BETE ARTE**

**Etzi, 'Trigger'**

Musikaldiko azken emanaldia etzi (19:30) izango da, Eñaut Zubizarreta *Trigger* biolontxelo-jotzaile aretxabaletarrarena. Hirugarren lana kaleratu berri du, *Doodem* izenekoa, eta, beste behin, Euskal Herrian biolontxeloaren gaineko beste ikuskera bat zabaltzeko asmoz prestatu du. Disko berrian folk doinuak garatu ditu, Afrikako folk musikaren doinuak, hain zuzen, eta Euskal Herrian hasi eta Afrika hegoalderaino doan bidaia musikal batean murgiltzen du entzulea. Kontzertua arratsaldeko zazpi eta erdietan izango da, Juan Arzamendi Musika Etxeko auditoriumean.

Diskoa bakarka aurkeztu duen arren, taldean egindakoa dela azpimarratu du: "Konposizioak nik eginak dira, baina lantaldea oso zabala izan da". Gainera, taula gainean ez da bakarrik egongo: Iñigo Xalbadorrek saxo baritonoa joko du eta Amaiur Luluagak dantzan egingo du.



Aitor Garitano, eguaztenean JAMEn emandako kontzertuan. AITOR AGIRIANO



Martxoan ospatu zuten Andaluziarren Eguneko irudi bat. IMANOL SORIANO

## Ekintza ugari Al-Andalusen Kultura Astearen barruan

Eguaztenean hasi zuten Kultura Astea, baina ospakizun nagusiak asteburuan izango dira

**I.B.K.** ARRASATE

Aurten ere ez du hutsik egingo Al-Andalus elkartearen Kultura Asteak, eta, beste behin, egitarau zabala antolatu dute; aurten gainera, gazteendako ekintzak ere sartu dituzte. Hasi eguaztenean hasi zuten Kultura Astea, Erretiratuen Egunarekin, non 65 urtetik gorakoek luntx batekin gozatzeko aukera izan zuten. Atzo, berriz, Al-Andaluseko argazki zaharren proiekzioa eta Andaluziako produktuen dastaketa, gozogintzakoak eta barraskiloak probatzeko beta izan zuten.

**Ospakizun nagusiak asteburuan**

Kultura Astea martxan bada ere, ospakizun nagusiak gaurtik aurrera egingo dituzte. Hasteko, gaur, 19:30ean, Alarma Morea taldeak kontzertua emango du. Bihar, berriz, gastronomia kontuak izango dituzte: 12:30ean, parrillada eta txikientzat animazioa Aidarekin; 21:30ean, afaria bazkide eta jarraitzaileentzat; eta 23:00etan hasita, playback jaialdia. Kultura Astea ixteko, domekan, 13:00etan, Lourdes Oncalaren Sevillana Eskolaren emanaldia egongo da.

**Gazteen ekarpena**

Salva Delgado Al-Andalus elkarteko kideak adierazi duenez, egitaraua ez da "askorik" aldatu beste urte batzuekin alderatuz, baina aurten antolakuntzan gazteek egindako ekarpenak azpimarratu ditu: "Jende nagusi asko dugu elkartean, eta, nahiz eta laguntzen duten, adinean aurrera doaz. Aurten gazteei komentatu nien, inolako konpromisorik gabe; lehen aldia da, eta ea nola joaten den. Ideia berri asko dituzte eta horrek asko laguntzen du; bestela, beti berdina egingo genuke".

## 'Arkupeien' dantza emanaldia Lore Gazteaken eskutik

Gaur arratsaldean (19:30) izango da emanaldia, eta Iturriotz kaletik Portaloira bidean bost dantza egingo dituzte, Arrasateko gaiteroen laguntzarekin. Hain zuzen, azken horiek sortutako doinuetan oinarritutakoak dira bost dantzak: *Iturriotzetik, Kinka, Haban, Joka* eta *Arkupeien*. Herritarrei gonbita egin diete parte hartzeko.

## Lisabok itxiko du Kooltur Ostegunen denboraldia

Kooltur Ostegunek denboraldiko azken kontzertua izango dute datorren eguenean. Lisabo taldea izango da kontzertu denboraldia ixteko ardura izango duena, eta abenduan estreinatu zuten *Lorategi izoztuan hezur huts bilakatu arte* diskoko kantuak entzuteko aukera egongo da. Kontzertua 22:00etan izango da eta sarrerek zazpi euro balio dute.



2022ko Eguzkierripa Rock jaialdiko kontzertu bat Andra Mari ermitan. GOIENA

# Egun osoko egitaraua bueltan 15. urteurrenean

Poteoak, bazkariak, pilota partiduak eta kontzertuek osatuko dute Eguzkierripa Rock jaialdiaren aurtengo egitaraua, eta Andra Mari ermitan joko duten taldeak dira The Gominols, The Mindfucks, Xementerio, Rukula, Gorroto eta Coyunda & Ñacunda

**Idoia Aranbarri Arzuaga** ARAMAIO

Eguzkierripa Rock jaialdia egingo dute bihar Aramaion, eta hamabosgarren ediziorako egun osoko egitaraua prestatu dute antolatzaileek. Azken bizpahiru urteetan kontzertuak bakarrik egin dituzte, baina, urteurren honetarako, bazkaria eta egun osoko egitaraua berreskuratu nahi izan dute. Hortaz, 12:30ean poteoa egingo dute, 14:30ean izango da bazkaria, 17:00etan pilota partidua eta 21:30ean kontzertuak.

Bazkaria aurtengo berritasuna izateaz gain, bazkaltzeko lekua ere nobedadea izango da, aurtengo honetan kanpoko frontoian egingo baitute. Bazkaria egin izan duten aldietan Andra Mari ermitan egin izan dute, baina aurten herrira lekualdatu dute. "Lehen, dena Andra Mari ermitan egiten zen, baina aurten aldatu egin dugu apur bat formatua, poteoa kalean egiteko eta bazkaria errazago antolatzeko eta kudeatzeko. Horregatik, herriko kanpoko frontoian egitea erabaki genuen", dio antolakuntza taldeko Beñat Arregik. Bazkarirako txartelen salmenta joan den domekan itxi zen, eta Arregik adierazi du 50 lagun batuko direla.

Bazkaria frontoian egingo dutela aprobetxatuz, bazkalostean pilota partidua jokatuko dute Karnik eta Asierrek Etxezarreta anaien kontra.

**Kontzertuak protagonista**

Unerik gorena kontzertuena izaten da, eta The Gominols, The Mindfucks, Xementerio, Rukula, Gorroto eta Coyunda & Ñacunda taldeek joko dute Andra Mari ermitan; sarrera doan da. "Eguzkierripa Rocken identitatearen parte da kultura dohainik eskaintzea herriko eta inguruko jendeari. Jaialdia martxan dagoen bitartean, mantentzeko gauza bat da", esan du Arregik.

**BAZKARIA DA EGITARAUKO BERRITASUNETAKO BAT, ETA KANPOKO FRONTOIAN IZANGO DA**

Taldeen aukeraketaz galdetuta, esan du urtero saiatzen direla herriko edo inguruko taldeak eroaten, Eguzkierripa Rock jaialdiaren muina baita haiei aukera ematea publikoaren aurrean jotzeko. Hala ere, bailarakoa ez den talderen batek ere parte hartu izan du, eta aurten Ondarroako The Gominols eta Usurbilgo Rukula dira horiek.

**Antolatzen jarraitzeko prest**

Hamabost edizioen balorazio positiboa egin du Arregik, eta antolatzen jarraitzeko asmoz daude: "Giro polita egoten da. Etortzen den jendea eta musikariak ere gustura egoten dira. Antolatzen gabiltzanak gogotsu gaude. Espero dezagun hamasei baino gehiago egotea. Lehendabizi, ea aurtengoa zelan ateratzen den, eta baloratuko dugu hurrengoa egongo den".

## Amabizkak irabazi du Arabako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa

Bigarren postua eskuratu zuen Aramaioko Iraide Onaindiak, eta biak izango dira Euskal Herriko finalean

**I.A.A.** ARAMAIO

Arabako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa irabazi du Hegoi Amabizka gasteiztarrak, eta bigarren postuan geratu da Iraide Onaindia aramaioarra. Hortaz, bi bertsolariak izango dira ekainaren 15ean Arantzan jokatuko den Euskal Herriko Eskolarteko finalean kantuan.

Aramaioko kultur etxean jokatu zen, zapatuan, Arabako Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finala, eta sei bertsolari aritu ziren oholtzan, eta tartean zeuden bi aramaioar: Iraide Onaindia eta Anitz Abarrategi. Haiekin batera igo ziren oholtzara Hegoi Amabizka, June Astegieta, Samu Rodriguez eta Urko Lafuente gasteiztarrak. Peru Abarrategi antolakuntzako kideak saioaren amaieran adierazi zuen saio azkarra, txukuna eta entzungarria izan zela.

Aurrez, Arabako gaztetxoen kuadrilla artekoa jokatu zuten Gorbeialdeko, Lautadako eta Gasteizko taldeek, eta aramaioarrak Gorbeialdeko taldean izan ziren. Kasu horretan ere, gasteiztarrek irabazi zuten.

### Euskal Herriko Alboka Eguneko bazkarirako izen ematea zabalik

Aramaion ospatuko da Euskal Herriko Alboka Eguna ekainaren 1ean, eta alboka protagonista duen egun osoko egitaraua antolatu du Haizem@n albokari elkarteak 21. ediziorako. Tartean, bazkaria egingo dute, 14:30ean, kanpoko frontoi estalian, baina izena eman beharko da astelehena baino lehen –maiatzak 27–. Izena emateko, *labur.eus/HTY4B* webguneko galdetegia bete edo *haizemanalbokarielkartea@gmail.com* helbide elektronikora idatzi behar da. Helduendako txartelen prezioa hamar eurokoa da eta haurrena, berriz, bost eurokoa.

Albokarien topaketa herrikoiaren helburu nagusia da albokaren musika nahiz ondarea zabaldu eta indartzea. Antolatzaileek azaldu dute jaialdia erakusleiho "aparta" dela emanaldi tradizionalak zein egungo uztartzeak ikusgai jartzeko.

### Bi musika emanaldi martitzen eta eguen arratsaldean

Martitzeneko eta egueneko arratsaldeak musikaz jantziko dira Aramaion, bi emanaldi antolatu baitituzte: maiatzaren 28an, Alaiak Kantuan taldeak emanaldia egingo du, arratsaldeko seietan, Sastiñako ermitan, kantu tailerreko ikasturteari amaiera emateko. Horren ondoren, kantu-jira egingo dute herrian zehar, akordeoiaz lagunduta.

Bestalde, maiatzaren 30ean, musika eskolako gitarra eta piano eskoletako 30 ikasle inguruk kontzertua emango dute. Musika irakasle Larraitz Arriolabengoak aurreratu du hamabi abesti interpretatuko dituztela, talde txikietan banatuta. 18:00etan izango da, kultur etxean.

### OHARRAK

**Auzolanerako deia**

08:30ean, Andra Marirako eskaileratik karobirako bidea garbitu eta txukundu egingo dute bihar. 09:00etan hasita, aldiz, eguneko zentroko paretak margotuko dituzte.

**Liburu aurkezpena**

Jon Artanok *Juana* liburua aurkeztuko du gaur, ikus-entzunezko batek lagunduta, 18:00etan, kultur etxean.

**Lelo lehiaketa**

Hondakin organikoa biltzeko edukiontziak banatuko ditu Udalak eta kuboetan jartzeko lelo lehiaketa antolatu du. Baldintzak, *aramaio.eus*-en. Maiatzaren 31 da parte hartzeko azken eguna.



Kurtzebarri BHIko ikasleak eta Basotxoko abestaldeko kideak elkarrekin kantuan Kurtzebarri eskolan. MIRARI ALTUBE

# Erretiratuak eta gazteak elkarrekin lanean

Bakardadearen bueltako proiektua landu dute Kurtzebarri BHIko ikasleek Basotxo eta Atxabalta Lagunkoia elkarteetako ordezkariekin; bigarrenez heldu diote gaiari, eta aurten, ekimenari bukaera emateko, elkarrekin abestu dituzte hainbat kantu

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Adinekoen errealitatea ezagutzeko lanketa bat egin dute Kurtzebarri BHIko DBHko hirugarren mailako ikasleek. Bakardadean jarri dute arreta eta Basotxo erretiratuen elkarteari eta Atxabalta Lagunkoiari eskatu diete laguntza. Haiek galdera sorta bat prestatu zieten 70 urtetik gorakoei bideratzeko: "Herriko adinekoen egoeraren erreferentzia txiki bat jaso dugu eta balio izan digu zein arazo dituzten jakiteko", azaldu du Atxabalta Lagunkoiako ordezkari Juan Tomas Zabalak.

Behin hori esku artean, emaitzen gaineko solasaldia izan zuten ikasleekin bi elkarteetako lau kidek. "Basotxon ditugun jarduera guztien berri eman genien, adinekoek zein aukera dituzten jakin dezaten: dantza taldeak, memoria tailerrak...", dio erretiratuen elkarteko presidente Migel Elortzak, eta Zabalak gaineratu du: "Izan ere, bakardadea sarritan dator harremanak ez direlako lantzen, eta Basotxoren helburua da aukerak sortzea, gustuko zerbait topa dezaten guztiek".

### Elkarrekin abestu

Lanketa horri bukaera emateko, Basotxoko kantu taldeak eta ikasleek elkarrekin abestea erabaki zuten. "Entsegu bakarra egin genuen batera, baina ez dugu gehiagorik behar izan. Kontzertuari garrantzia emate aldera, gure saioetan bezala jantzi ginen eta gazteek ere zaindu zuten janzkera", azaldu du Jose Ramon Quintanillak.

Lau abesti prestatuta izan arren bosgarren bat ere abestu zuten Kurtzebarri eskolako hainbat ikasleren, irakasleren eta gurasoren aurrean, eta trukean txalo zaparrada beroa jaso zuten.



**MIGEL ELORTZA**
BASOTXO ELKARTEKO PRESIDENTEA

"Ikastetxean egindako lanketaren erantzuna zoragarria izan da eta abesteko ere ikasle guztiak agertu dira gertu; oso pozik gaude".



**GURUTZ MURUAMENDIARAZ**
KURTZEBARRI BHIKO KOORDINATZAILEA

"Proiektu komunitarioa izan da eta bigarrenez landu dugu bakardadea elkarrekin; ederto joan da, baita bukaerako emanaldia ere".

## Sei upategitako txakolina dastatzeko aukera izango da bihar

Bidasoako erraldoi konpartsaren kalejirak eta Etxeberria aita-seme trikitilariek girotuko dute eguerdi partea

**M.A. Aretxabaleta**

Txakolin Eguna bueltan dator, Udalak antolatuta; bihar, maiatzak 25, egingo dute, Mitarte kalean, 12:30etik 14:30era bitartean.

Sei upategitako edariak dastatu ahal izango dituzte, guztiak Getariako Txakolina jatorri izena dutenak: Agerre, Aizpurua, Basa Lore, Erlete Goikoa, Mokoroa eta Sagarmiña. Bost euroren truke bost tragotarako txartelak erosiko dituzte herritarrek eta kopa bat ere emango diete.

Edatekoaz gain, jatekoa ere egongo da; bertako ekoizleen hanburgesak, gazta eta pintxoak, hain zuzen ere.



Txakolina zerbitzatzen iaz. I. SORIANO

### Erraldoiak eta trikitilariak

Eguerdi partea girotuko dute Irundik etorriko diren Bidasoako Erraldoiak buruhandien eta erraldoien konpartsak eta azken hilabeteetan hain ezagun egin diren Basauriko Etxebarria aita-seme trikitilari mediatikoek.

Antolatzaileen helburua da herria girotzea eta aurreko urteetan izandako arrakasta errepikatzea.

## Elkarteen, alderdien eta herritarren iritziak jasoko ditu Udalak

Urtebetean egindako lanaren berri eman gura izan du Udal Gobernuak. Aurreko agintalditik martxan zeuden "proiektuak gauzatzen, egunerokotasunean eragiten eta etorkizuneko proiektuei forma ematen" diharduela adierazi du. Era berean, "norabide berria" markatzen duten erabakiak hartzen dabiltzala gaineratu dute kideek.

Datozen urteetako ekimenak zehazteko dinamika bat egin zuten maiatzaren 11n. Eta bide horri jarraituz, elkarteen, alderdi politikoen eta herritarren iritziak eta ekarpenak jaso nahi ditu Udal Gobernuak, ekainean.

Behin ekarpen horiek guztiak jasota, plan estrategikoa eta proiektu nagusiak aurkeztuko dituztela iragarri dute, baita 2025eko Udal aurrekontuaren ildo nagusiak ere; urriaren 15ean izango da hori, komentuko aretoan berrian.

ION ANDER CASTRO ZABALA
Era guztietako aulkien konponketa
Zumezko artikuluen salmenta
TAPIZERIA OROKORREAN
943 78 71 65
639 01 69 69

Mobiliario ARENAZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

# Dantza Astea gorputzak astintzera dator gaurtik

Zortzigarrenez antolatu du Jaiki elkarteak eta dantza garaikide ikuskizunak, dantza urbanoen tailerrak, DJen musika emanaldiak eta saltsa, euskal dantza eta lineako dantza erakustaldiak izango dira, besteak beste, zortzi egunetan

**Mirari Altube** ARETXABALETA
Dantza kalera atera eta herritarrak gorputza mugitzera animatu gura ditu Jaiki elkarteak, beste urte batez; zortzigarrenez, hain zuzen ere. Gaur, maiatzak 24, hasi eta 31ra bitartean, ikuskizun, ikastaro eta erakustaldi mordoa izango dira. "Dantzatzeko aukerak sortzeari eman diogu garrantzia. Luxuzko gonbidatuak izango ditugu eta jendea animatu gura dugu ikustera eta, bereziki, dantzatzera", adierazi du Jaikiko Maier Etxebarriak.

**Ikuskizun asko**

Kanpotik etorriko diren hainbat konpainiaren ikuskizunak nabarmendu ditu. Gasteizko Larrua Proiektuak eskainiko duen *Idi-begi,* Kaize Konpainiaren dantza urbano erakustaldia, "gustu handiarekin prestatutakoa", eta Zaragozako Yeinner Chicas taldearen *Metamorfosis 2.0:* "Zaragozako taldea Madrilen ezagutu genuen bat-bateko txapelketa batean, eta haien performancea asko gustatu zitzaigulako ekarri ditugu".

Berritasunen artean DJen emanaldiak daude: batetik, Nafarroatik datorren DJ Remyk kaleak girotuko ditu; eta, bestetik, Maikel Night aretxabaletarrak Ezkutu tabernan jarraituko du.

**Eragileekin elkarlanean**

Inguruko eragileen parte-hartzeak ez du hutsik egingo. Arrasate Musikalekoak etorriko dira ballet eta dantza garaikide ikuskizunarekin. Jose Nieto eta Tania Vinagreren taldeak saltsa dantzak ekarriko dituzte eta Basotxoko erretiratuek lineako dantzak eta euskal dantzak, baita Leizarra musika eskolakoek ere. Jaiki elkartekoek, ostera, Zutunpa Atxabaltako Txalapartariek izango dituzte lagun. Ludotekako umeek mugimendu jolasak egingo dituzte. Eta Gu Haziak Gara elkartekoek erritmo latindarren tailerrean hartuko dute parte. "Adin, jatorri eta gustu askotariko jendea elkartu gurako genuke".

**Estilo askotako ikastaroak**

Ikastaroak ere izango dira egunotan. Butoh dantzaren gainekoa Ainhoa Alberdirekin, bihar eta etzi, kuartelean; erritmo latinoen tailerra Yeinner Chicas taldearekin, martitzenean, Mitarte kalean; eta dantza urbanoen gainekoa, Ikigai Dance Studiorekin, kuartelean, debalde. Horietan parte hartzeko izena eman behar da Whatsapp bidez: 686 17 87 19.


Jaiki elkarteko kideen ikuskizuna Mitarte kalean, iazko Dantza Astean. JAIKI ELKARTEA

## Egitaraua

**Maiatzak 24, egubakoitza**
- **18:30** Ballet eta dantza garaikidea. Plaza.
- **19:00** Dantza garaikidea: *Idi-begi.* Larrua. Plaza.
- **19:30** DJ Remy. Plaza.
- **22:00** DJ M. Night. Ezkutu.

**Maiatzak 25, zapatua**
- **10:00** Ikastaroa: Butoh.

**Maiatzak 26, domeka**
- **11:00** Haur Dantzarien Eguna. Leizarra. Kaleak.

**Maiatzak 27, astelehena**
- **18:00** Euskal dantzak. Leizarra. Mitarte kalea.
- **18:30** Bat-bateko dantza. Jaiki eta txalapartariak. Mitarte.

**Maiatzak 28, martitzena**
- **17:30** Lineako dantzak. Basotxo. Mitarte.
- **18:30** Erritmo latinoen tailerra. Mitarte.
- **19:30** Saltsa. Mitarte.

**Maiatzak 29, eguaztena**
- **17:30** Euskal dantzak. Basotxo. Mitarte.
- **19:00** Performancea: *Metamorfosis 2.0.* Yeinner Chicas. Mitarte.

**Maiatzak 30, eguena**
- **17:00** Dantza jolasak. Ludoteka. Arlutz kantxa.
- **19:30** Euskal dantzak. Leizarra. Belorrieta.

**Maiatzak 31, egubakoitza**
- **18:00** Dantza urbano tailerra. Kuartela.
- **19:30** Dantza urbanoa. Kaizen. Mitarte.

## Dirulaguntzei buruzko argibideak emateko bilera elkarteentzat

Udalak aditzera eman du ekaina eta uztaila bitartean egingo duela 2024ko dirulaguntzen deialdia elkarteentzat. Halako deialdietara aurkeztu beharreko dokumentazioarekin laguntzeko eskaera jaso izan dute udal ordezkariek, eta, hori aintzat hartuta, argibideak eman gura dizkiete haiei.

Horretarako, elkarteek dituzten zalantzak jasotzeko zein azalpenak emateko, bilera bat deitu du Udalak datorren asterako. Bi data eman ditu aukeran, erraztasunak emate aldera; hona biak: maiatzaren 29a, eguaztena, eta 30a, eguena. Biak izango dira Arkupe kultur etxean, 18:30ean.

## Gu Haziak Gara laguntza elkartea bazkide bila dabil

Elkarguneak sortzea eta gizarteratze soziolaborala eta linguistikoa ahalbidetuko duten sareak osatzea helburu duen Gu Haziak Gara elkarteak bazkideak gura ditu; urtean 50 euro izango da egin beharreko ekarpena. Eskatzen den konpromisoa da elkartearen balioekin bat egitea eta urteko batzarrean parte hartzea. Era berean, bazkideei eskaintzen dizkieten onurak dira ikastaroetan beherapenak eta arropen konponketetarako bonuak.

Bazkide egiteko, elkartera jo daiteke –Irabalarri plaza, 5 behea–, edo telefonoz deitu –681 65 59 39–, eta diru ekarpena Laboral Kutxan egin behar da: ES82 3035 0002 1100 2006 4888.



# Mario Padilla txistulari, maisu, euskaltzale eta erreferenteari agur

Hilaren 16an hil zen, 95 urte zituela. Eskoriatzako bandako zuzendaria izan zen, baita Gorosarri dantza taldearen sortzailea ere; eta Eskoriatzako musika bandak haren izena duen pieza bat sortu zuen iaz. "Erreferentea" izan da "txistularien maisua"

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA
Mario Padilla Maguregi txistularia, Eskoriatzako txistularien "maisua", hil zen hilaren 16an, 95 urte zituela. Erreferente zuzena eta aita pontekoa" izan da txistulari eskoriatzar askorendako Padilla, eta penaz jaso dute haren heriotza beraren gertukoek.

**Txistularia baino gehiago**
Padilla 1928an jaio zen, Otxandion, baina umetatik izan du Eskoriatzarekin lotura, aita Zarimutz elizatekoa baitzuen. 1965ean, Edurne Magunazelaia emaztearekin sortutako familiarekin batera etorri zen Eskoriatzara bizitzera, eta, harrezkero, euskal kulturaren sustatzaile aparta izan da Eskoriatzan. Umetatik izan zuen musika-zaletasuna; koruan kantatzen hasi, musika ikasi eta txistularia izan da Padilla. Horrez gain, Eskoriatzan bandako zuzendaria ere izan zen Eskoriatzako txistularia, eta, baita Gorosarri dantza taldearen sortzailea ere. Gainera, ikastolaren bultzatzailea ere izan zen ikastolen mugimendua abiatu zenean.

**Omenaldi ugari jasotakoa**
Herriko jaietan, sanpedroetan, pregoilaria izan zen 1991n; 2005ean, berriz, omenaldi ekitaldi beroa egin zion Eskoriatzako herriak, haren ikasle izandako ehun bat txistularik egindako kalejirarekin; Udalak Txistularien Arratia izena jarri zion herriko txoko bati eta han

**IAZ, ESKORIATZAKO MUSIKA BANDAK BERE IZENA DUEN PIEZA SORTU ETA AURKEZTU ZUEN**



Padilla, *Ze barri?* aldizkarirako egindako argazki batean, 2000n. 'ESKORIATZA IRUDITAN'



Txistularien kalejira, Jose Aranan –ezkerretik lehena da Padilla–. 'ESKORIATZA IRUDITAN'

haren omenezko plaka jarri zuten, konpondu berria izan dena. 2019ko sanpedroetako pregoian nabarmendu zuten moduan, herritar ugarik ikasi zuten harekin txistua jotzen. "Esker oneko hitzak baino ez ditugu", adierazi zuten orduko hartan Eskoriatzako txistulari taldekoek. Gainera, hainbat ekitaldi eta kontzertu egin dira gaur arte haren omenez, eta Jesus Urrutiak –gaur egungo Eskoriatzako bandako zuzendaria– eta Imanol Andetxagak –bandako kidea– konposatutako *Mario* izeneko pieza estreinatu zuen 2022ko udaberriko kontzertuan Eskoriatzako bandak.

Azken omenaldi hunkigarria 2023ko urriaren 28an egin zioten, Bailarako Txistulari Egunean, txistulari talde osoak haren etxe aurrean *Atiarno biribilketa* jota; hark etxeko balkoitik txalotu eta eskertu zituen– Eskoriatzako udal webgunean dago bideoa ikusgai–.

**Erreferentea eta maisua**
"Erreferente zuzena eta aita pontekoa" izan da txistulari eskoriatzar askorendako Padilla, eta gaur egun Eskoriatzako Txistularien taldea osatzen duten dozena bat musikarik hori nabarmendu dute. "Belaunaldi askoren maisu, erreferente eta lagun izan da Mario, baina, irakasle izatearen gainetik, pertsona moduan erakutsitako balioak azpimarratzekoak dira", diote Eskoriatzako txistulariek.




Asteon, lore-sorta jarri du Udalak Mario Padillaren omenezko plakan. I.B.

## Lore-sorta Txistularien Arratian

Herriaren alde egindako lanagatik, 2005ean Udalak haren omenezko plaka bat ipini zuen Txistularien Arratian. Asteon, lurretik kendu dute plaka eta lekualdatu egin dute alboko paretara.

**JOTA ARRIETA**
TXISTULARIA

"Gizon ona zen. Eskoriatzako Txistulariok haren eskelan idatzita jarri genuen bezala, *Txistularia, maisua eta erreferentea* zen. Gaur egun herrian gauden txistulariak harekin aritutakoak gara, eta, txistulariak baldin bagaude, harengatik da".

**OIHANA ARANBURUZABALA**
TXISTULARIA

"Guretzat bigarren aitona bat izan da; niretzat, behintzat, bai. Txistulari moduan maisu eta pertsona moduan gertuko; asko eman diguna, pertsonalki, eta baita Eskoriatza herriari ere. Umiltasun osoz jokatzen zuen beti".

**ASIER ALEGRIA**
ATABALARIA

"Eskoriatzan 40 urte egin ditu, eta ni danborra jotzen harekin 25 urte aritu naiz. Txistulari moduan ezagutu nuen, eta belaunaldi askoren irakasle izan zen, baina, horrez gain, herrigintzan sekulako lana egin zuen, eredua izan da guretako".

# Kirol elkartearen lana plazara aterako dute

Zapatuan ospatuko dute, beste urte batez, Eskoriatza Kirol Elkartearen Eguna, eta, horretarako, egun osoko egitaraua prestatu dute, kirola eta musika oinarri. Ekintzak Fernando Eskoriatza plazan eta Manuel Muñoz kiroldegian egingo dituzte

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA

Eskoriatza Kirol Elkartea 1964an sortua da, eta, 1995era arte futbol taldea izan bazuen ere, gaur egun saskibaloian eta areto-futbolean ari da, nagusiki, hainbat kategoriatako taldeekin lehian. Hori horrela, kluba sortu zeneko 60. urteurrena ospatzeko hitzorduetako bat izango da zapatukoa, Eskoriatza Kirol Elkartearen Eguna.



Iaz, Eskoriatza Kirol Elkartearen Egunean egindako saskibaloi jokoetan. GOIENA

Areto-futbol topaketarekin hasiko dute eguna, 09:00etan, eta gero, 11:00etan, jaiaren hasiera ofiziala egingo dute, Fernando Eskoriatza plazan. Puzgarriak izango dira, zumba egiteko tartea hartuko dute eta beteranoek saskibaloi partiduak jokatuko dituzte. Eskoriatzako Ad Libitium txaranga kalera aterako da eguerdian, jaieguna musikaz girotzeko, eta, horrekin batera, *vintage* arropa salmenta egingo dute. Hau da, Eskoriatza Kirol Elkarteak izan dituen aspaldiko zein gaur egungo kamisetak izango dira salgai. Bazkaltzen hasi aurretik, berriz, 13:30ean, talde beteranoen aurkezpena egingo dute.

### Talde beteranoen aurkezpena

60 urtean Eskoriatza Kirol Elkarteak izan dituen kirol diziplinetako eta taldeetako jendea batu nahi dute talde-argazkia ateratzeko. "Sail guztietako kirolari guztiak batzea ezinezkoa izango da, baina eskupilotan, sokatiran, txirrindularitzan, areto-futbolean, futbolean... aritutakoak batu nahi ditugu. Ahal duena etor dadila; izan ere, aitortza txiki bat egin nahi diegu, eurak direlako klubaren historiaren parte", adierazi du Jabi Corbalek, Eskoriatza Kirol Elkarteko presidenteak.

Bazkaltzeko, berriz, urteroko ohiturari jarraituz, paella erraldoia prestatuko dute plazan. "Azken orduan, agian, izen-emateak gora egingo du, baina 200-230 lagun inguru egongo direla aurreikusten dugu", nabarmendu du Corbalek. Ondoren, karaokea eta saskibaloi jolasak izango dira, eta, 19:00 aldera, berriz, parrillada prestatuko dute. Horrekin batera, Patxi Luque bakarlariaren kontzertua izango da. Egun osoan, 11:00etatik aurrera, txosna egongo da kontzejupean, eta argazki erakusketa kultura etxean.

## Marokoko hiri urdinean

Olazar Erretiratuen Elkarteko 42 lagun oporretan daude Marokon. Hilaren 18an hasi zuten bidaia eta zapatu honetan bueltatuko dira. Fez eta Marrakex hirietan ere egon egon diren arren eta ekintza mordoa egiteko aukera izan duten arren, Rif mendikatearen bihotzetik (Chefchaouen), *hiri urdina* deritzon leku ederretik bidali dute GOIENAra talde-argazkia.



GURUTZE IDIGORAS



Joan den domekan izandako Gatz Egunean, bisitariak Gatz Museoan. IMANOL SORIANO

# Askorako eman du Gatz Egunaren zortzigarren edizioak

Urrian egin beharrean maiatzean egin dute aurtengoa, eta, dataz aldatuta ere, aberasten ari den festa da

**Imanol Beloki Unamuno** GATZAGA

Azoka, haurrendako tailerrak, *showcooking* saioa, Sei Pistols Eta Trabuko Bat taldeak girotutako herri bazkaria, Tio Teronen Semeak taldearen ikuskizuna eta Gatz Museoan bisita gidatuak egin zituzten joan den domekan ospatu zuten Gatz Egunaren zortzigarren edizioan, besteak beste. Egunak izandako harrera ikusita, bederatzigarren edizioari bueltak ematen hasiak dira dagoeneko herriko ordezkariak: "Gatzagako Udalaz gain, herri guztiak parte hartzen du Gatz Egunean, eta hori lantzen ari gara. Gure nortasuna plazaratu eta herriratu nahi dugu, eta horretan egingo dugu lan".

### Maiatzean arrakasta

Eguraldi iragarpena txarra zen arren, Gatz Egunean izandako eguraldi ona nabarmendu zuen Dorleta Elkorobarrutiak, Leintz Gatzagako alkateak: "Halako egun batean, kalean ospatzen dena izanda, eguraldiak ez badizu laguntzen, asko aldatzen da kontua. Batzuk oinez iritsi dira Gatz Bidetik, beste batzuk, autobusez… jende dezente izan da herrigunean zein Gatz Museo inguruan; beraz, pozik gaude". Gatz Eguna urrian edo maiatzean egin, gatzagarrek galdu ezin duten festa dela nabarmendu zuen Elkorobarrutiak: "Nortasuna ematen diguna da. Lehen, urrian egiten genuen, baina, San Milixan jaitik gertu izanda, maiatzera aldatzea erabaki dugu aurtengo edizioan, eta arrakastatsua izan da".

Urtez urte indarra hartzen ari den eguna dela gaineratu zuen Aitor Larrañagak, Leintz Gatzagako Gatz Museoko arduradunak: "Lehengoan, Euskadi Irratiko saio batean esan zuten urtero-urtero sona handiagoa izaten ari den festa dela, eta asko poztu gintuen hori entzuteak. Espero dugu hala jarraitzea".

### 'Urre zuria'-ren prozesua

Gatz Museoan bisita gidatuak egin zituzten, euskaraz eta gazteleraz, eta, urrea bezain preziatua denez Leintz Gatzagako gatza eta zuria ere badenez, *urre zuria* nola egiten den ikusteko aukera izan zuten Gatz Museora joandako bisitariek, Aitor Larrañagaren eskutik: "Gatz leku bat izateko oso leku berezian dago kokatuta; izan ere, baso batean ezkutatutako gatz-gune bat da. Paisaia moduan ere ikusgarria da, eta bertan egiten dugun produktua kalitatezkoa da; bertako egurrarekin eginda, gatza bere horretan da, ez du zuritzailerik, ezta bestelakorik ere. Mineral pila bat ditu eta magnesio asko du, janariaren zaporea indartzeko ahalmena dauka. Beraz, euskal sukaldaritzan janariaren zaporea indartzeko oso aproposa da."

**GATZ EKOIZPENAREN PRODUKZIOA IKUSTEAK ARRAKASTA IZAN ZUEN GATZ EGUNEAN**

PENTEKOSTEAK 2024



Xaxauri esker baltsen jaitsiera itzuli da; 18 baltsa irten ziren, eta Birkiwi kuadrilla izan zen azkarrena. ARGAZKIAK: GOIENA ETA XAXAU



Olinpiadak ikusteko hainbat herritar geratu ziren kanpoan; irabazlea, Litxar taldea.

# Bustiak bezain dibertigarriak

Euriari jarrera onarekin erantzun diote bergararrek. Jai Batzordearekin elkartu behar du Udalak "balorazio sakonagoa egiteko", baina lehen sentsazioak onak dira. Eraso matxisten kontrako gunean ez da salaketarik izan eta beste erakundeetatik ez da jakinarazpenik jaso

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA

Bitorianatxo udaletxera jaitsi, Txapa irratikoek jaiei hasiera eman eta Bitorianatxok kontrako bidea egin bitartean pasatu diren bost egunak bereziak izan dira aurten ere. Udaleko Kultura zinegotzi Maite Usabiagak "lehen balorazio bat" egin du jaiak amaitu berritan; betiere, maiatzaren 28an elkartuko den Jai Batzordearen "balorazio ofizialaren" zain: "Jaiak oso giro onean joan dira, oso jendetsuak izan dira. Programan izan dira berrikuntza batzuk; batez ere, haurrei eta nerabeei zuzenduta. Bestalde, eguraldiak edo beste ezusteko batzuek eragindako zailtasunei aurre egin zaie. Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu Pentekosteak posible egin duten udal langile eta eragile guztiei". Zailtasun horien artean dago, esaterako, zapatu gauean Su Ta Gar taldeak eman zuen kontzerturako soinu probetan euriak itoginak eragin zituela agertokian eta udal langileek berehala jarri behar izan zutela arazoa konpontzeko lanetan. Arazoa konponduta, Eibarko talde beteranoak ez zuen hutsik egin, eta gogoratzeko moduko kontzertua eman zuen heavyzalez goraino bete zen San Martin plazan.

Bestalde, eraso matxistei aurre egiteko arreta-puntua martxan egon da hiru egunez Irizar jauregian, eta, Udaletik adierazi dutenez, jaietan zehar ez dute inor artatu behar izan, eta, momentuz, ez da beste erakundeetatik jakinarazpenik jaso.

**Bergarako Zezenak, "harrituta"**

Zezen plazak herritar asko erakarri ditu aurten ere. Bergarako Zezenak ganadutegikoen arabera, jaietako ia ekitaldi guztietan bete dute 1.200 lagunendako lekua duen plaza, eta batzuetan jendeak kanpoan geratu behar izan du.

**BERGARAKO ZEZENAK GANADUTEGIKOEK SINADURAK BATU ZITUZTEN ZEZEN PLAZA MANTENTZEKO**

Ekintzak arrakastatsuak izan arren, Udaleko ordezkarien jarrerarekin "erabat harrituta" daudela diote: "31 urte daroatzagu zezen plazarekin eta 14 urte astelehenekeo kuadrillen olinpiadak antolatzen. Jaien aurretik behin eta berriz eskatu digute olinpiadak ez antolatzeko, eta ez dakigu zergatik. Ez digute fundamentuzko ezer esan. Datu objektiboa da jaietan ordaindu beharreko ikuskizun bakarrak direla zezen plazakoak eta ia guztietan goraino bete dela eta batzuetan herritar asko geratu direla kanpoan; bereziki, asteleheneko kuadrillen olinpiadan. Une hura baliatu genuen kuadrillei plaza bete izana bereziki eskertzeko, azken urtea izan daitekeelako; sinadura batzuk



Elormendi elkarteko David Martinezena izan da aurtengo bakailao onena.



Txupineroak Txapakoak izan dira aurten; azaroan 40 urte beteko ditu irrati libreak.



Pentekosterik ez erraldoirik gabe; irudian, 'Felixin' eta 'Felixin' zapatuko kalejiran.



Azken urtean jaio diren bergararrei zapi bana jarri ostean, talde-argazkia atera zuten San Pedro elizaren atarian, erraldoien babesarekin.



Ohitura bihurtu da zapatu goizean txosnak itxi eta kalejiran irtetea; irudian, gaupaseroen talde-argazkia Irizar kalean.



Ume bat barrakez gozatzen.



Mokoloblock, frontoiaren atarian.

ere batu genituen. Alkateak bilera batera deitu gaitu jaien ostean; ez dugu polemikarik nahi, baina ez gara isilik geratuko".

**Xaxautarrak, "oso pozik"**

Xaxauk jaietako ezinbesteko eragile izaten jarraitzen du. Bideberriko txosnagunea kudeatzeaz eta herrira begira bestelako ekintzak antolatzeaz gain, aurtengo egitarauko nobedade aipagarrienetako bat izan den baltsen jaitsierarekin asmatu egin dute. Eguraldiak ez zuen lagundu eta kuadrillek sortu zituzten 18 baltsek badute zer hobetu hurrengo urtera begira, baina astelehen goizari beste kolore bat eman ziotela ukaezina da: "Baltsen jaitsiera geratzeko itzuli da. 18 baltsa izan dira eta kopurua oso polita da, baina ea datorren urtean baltsa gehiago egiten diren, eta landuagoak". Izan ere, Ibargaraitik irten ziren baltsa gehienak Deba ibaian irauli ziren Bideberrira bidean. "Oso pozik" daude jaiekin, itzalen bat edo beste egon bada ere: "Orokorrean, oso positiboki baloratzen ditugu jaiak. Egia da domeka gauean txosna batera lapurtzera sartu zirela; ez zuten apenas ezer lapurtu, baina eraso larria da. Lapurreta horrek eraginda kandadu eta giltza guztiak aldatu behar izan ditugu".

Bideberriko kontzertuak "bereziki arrakastatsuak" izan direla diote: "Jendeak oso ondo baloratu ditu kontzertuak, giro itzela izan da ia emanaldi guztietan". Horrez gain, Xaxauk gero eta garrantzi handiagoa ematen dio eguneko egitarauari, eta pozik daude, adibidez, zapatu goizeko giroarekin: "Gaupaseroen argazkia inoizko jendetsuena izan da, eguneko egitarauari balio handia ematen diogu".

**POZIK DAUDE XAXAU ETA MUGIMENDU SOZIALISTA EUREN EGITARAUAREN HARRERAREKIN**

**Mugimendu Sozialista ere pozik**

Mugimendu Sozialistak plazan jarri du txosna aurten ere, Udal Artxiboaren atarian. Pozik daude antolatu dituzten "askotariko ekintzek" izan duten harrerarekin: "Antolatutako egitarauan eta txosnako txandetan izandako parte hartzea handia izan da. Eguraldiak hainbat ekintza moldatzera behartu gaitu, baina, hala ere, erantzuna ona izan da. Aurtengoa aurrerapen handia izan den arren, datorren urteei begira herriko eragileen txosna jartzeko eskubidea aldarrikatu eta orain arte egindako lanaren jarraipena egitea dagokigu. Bukatzeko, eskerrak ematea gustatuko litzaiguke txandetan parte hartu dutenei, musika teknikariei eta egitaraua osatu duten artistei".




Sotoalde taldearen zuzenekoa, Mugimendu Sozialistaren txosna ondoan.

# Dominguez: "Badugu zer ikasi bide komunitarioaz"

Maiatzaren 25ean Afrika Eguna ospatzen dela-eta, helburu solidarioa duen aste bukaera osorako egitaraua prestatu du Ndank Ndank elkarteak. Udaleko Kulturarteko Mahaiarekin elkarlanean, herrian gertatzen diren segregazio egoerei buelta ematea da helburuetako bat

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA

Asteburu berezia dator Ndank Ndank elkartearentzat, Nazioarteko Kultura Aniztasunaren Egunaren eta Afrika Egunaren bueltan egitarau berezia antolatu dute eta. Gasteizen bizi den Elh Malick senegaldarraren kontzertu solidarioa –gaur, Seminarixoan, 20:00etan–, kultura arteko moda desfilea –bihar, Seminarixoan, 18:30ean–, Togoko dantza ikuskizuna eta munduko hainbat jaki dastatzeko aukera egongo da –etzi, San Martin plazan, 13:00etan–.

Musika eta ikuskizun exotikoak bai, eta baita hamabost bat herrialdetatik etorritako jakiak ere. Seminarixoko ekitaldietarako sarrera doakoa izango da, baina ekarpen boluntarioa egiteko aukera izango dute bertaratzen direnek, eta diru ekarpenetarako kontu korronte zenbakia ere ireki dute, kontzeptu gisa *Poltsa soziala* jarrita: ES86 3008 0169 5224 5922 8025.



Asteburuko egitarau berezia aurkezteko agerraldia, asteon, Usondo parkean. J.B.L.

### Ezkutukoa azaleratzeko nahia

Ekitaldi guztiek dute helburu solidarioa, diru poltsa bat sortu nahi dute-eta herriko segregazio egoeren aurkako ekimenak abiatzeko. "Udalak duela pare bat urte sortu zuen Kulturarteko Mahaia, eta hainbat arlo aztertu ostean erabaki da arreta jartzea bereziki ume eta gaztetxoengan. Aukera berdintasuna ez dago bermatuta; aisialdian eta ikastetxeetako irteeretan, esaterako, arrazoi ekonomikoak edo beste arrazoi batzuk medio eskaintza ez da modu orekatuan ematen. Horregatik jarri nahi dugu arreta egoera horretan dauden ikasleengan, eta errealitate bat da horietako asko jatorri ezberdina duten ikasleak direla", dio Ndank Ndankeko Eli Dominguezek.

Dominguez sinistuta dago "ezkutuan" dauden errealitate horiek azaleratzea "oso garrantzitsua" dela: "Halako gaiak askotan lagatzen ditugu Udalaren edo administrazioaren eskuetan, eta ez diot ez denik hori egin behar, ardura badutelako, baina halako egoerak gizarteratzeak ere badu garrantzia. Izan ere, askotan, ez gara ohartzen zer dugun inguruan. Senegalgo egunerokoa da modu komunitarioan lan egitea; alde horretatik, hemen badugu zer ikasi, herriko gabezia orokorrei denon inplikazioarekin aurre egiteko ohitura galtzen ari gara eta".

## Moda desfilerako ateak zabalik dituzte

Moda desfilea izango da asteburuko egitarauko ekintza esanguratsuenetako bat, iazko arrakasta errepikatzeko asmoz. "Gure boluntario sarearekin osatuko ditugu modeloak, baina zabalik gaude jende berriak ere parte har dezan. Ndank Ndankeko bildumaz gain, beste bi bilduma ere erakutsiko ditugu. Etorri, ondo pasatuko dugu-eta", adierazi du Eli Dominguezek.



Iazko maiatzean ere egin zuten moda desfilea, Seminarixoan. GOIENA

## NIRE USTEZ



**MAITE TOLEDO**

### Inbentarioak

Ondasunen inbentarioak egiten eta balantzean kokatzen ikasi nuen gaztetxotan Elementalean; egun, Migel Altuna Institutua. Nire bizitzako arloetako bat orduan zedarritu zen: profesionala.

Gerora, berraragiztatuko banintz, zein bide egingo nukeen irudikatzen jolastu naiz inoiz. Kontuak kontu, bizitzeak erakusten du ondasunena bakarrik ez, bizipenen inbentarioak egitea ere komenigarria dela, gure ongizatea zainduko badugu. Esaterako, noiz, non, nola eta norekin egon nahi dugun. Psikiatra ospetsu bati irakurria diot zoriontasuna ondare psikologikoa orekatzean datzala, gauzei angelu onetik begiratzea eta borondate irmoa eta ilusioak izatea; hori, jakina, norberak diseinatutako bizitza proiektuarekin koherentea izanda lortzen da. Alegia, bizitza afektiboa, profesionala, kulturala, adiskidetasuna eta zaletasunak zainduta.

Eta zela ikasitakoek batu egiten duten, pasadizo onak eta txarrak inbentariatzen hasi nintzen: txarrak kaxoi batean gordetzen ditut, giltzapean; onak, ostera, eskuko poltsan daroatzat, bidelagun.

## OHARRAK

### Athleticzaleen lagunarteak 25 urte bete ditu

Bihar, hilak 25, ospakizuna egingo dute Basalgoko elkartean. 35 bat lagun elkartuko dira bazkaltzeko; Matxiategiko Toki Onan egin dute hitzordua (12:00), lagunartea sortu zen lekuan.

### Musika Eskolaren jaia: bazkarirako txartelak

Musika eskolaren 40. urteurrenaren barruan, ekainaren 1erako Udaberriko Musika Jaia antolatu dute. Herri bazkaria Espoloian izango da; bi menuetarako txartelak salgai jarriko dituzte maiatzaren 28an, musika eskolan edo Pol-Pol tabernan.

### Euskara Plana diseinatzeko parte hartze saioa

2024tik 2027ra arteko Euskara Planera begira herritarrek parte hartzeko saioak antolatu ditu Udalak. Hurrengo saioa hilaren 30ean izango da, udaletxeko areto nagusian, 18:30etik 20:30era.

### Kukubaso: Baso Bizien Egunean izena eman

Kukubaso elkarteak Baso Bizien Eguna antolatu du ekainaren 16rako: mendi ibilaldi bidatua egingo dute, Usondo parketik abiatuta (10:00), eta, ondoren, bazkaria egingo dute San Martzialgo ermitan. Parte hartzeko, izena eman beharra dago ekainaren 12a baino lehen: *basobiziakplataforma@gmail.com*.

UGARTE
AROZTEGIA · ALTZARIAK
Proiektuak · Koltxoiak
Horma-armairuak
Altzariak neurrira
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630
AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491
BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com
21K KALITATEA

# Egindako lana saritu dute Mahonero Sarietan

Emandako maila, egindako lana eta erakutsitako konpromisoa baloratzen dituzte, besteak beste, BKEren Mahonero Sarietan, eta aurten Ibai Leizeaga, Maider Jorge, Iñaki Mardaras, Alaitz Olabarrieta, Andoni Pato eta Aitor Arregiri egin diete aitortza

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA

Aurten ere banatu ditu Mahonero Sariak Bergarako Kirol Elkarteko futbol sailak, eta Erregionalen Ohorezko Mailako taldeak domekan Eibarren aurka Agorrosinen jokatu zuen partiduko atsedenaldia aprobetxatu zuten horretarako.

Erregional Ohorezko Mailako Ibai Leizeagak jaso zuen jokalari onenaren saria gizonezkoetan; emakumezkoetan, berriz, Preferente Mailako Maider Jorge jokalariarendako izan zen. Liga Nazionalean dagoen gazte mailako taldeko Iñaki Mardarasendako izan zen entrenatzaile onenaren saria eta Futbol Eskolako monitore nabarmenena Alaitz Olabarrieta izendatu zuten. Bazkidearen saria Antonio Patorendako izan zen.

Domekan Sari Berezia eman barik geratu zen. Aitor Arregi futbolariari eman nahi zioten saria, baina osasun arazoengatik ezin izan zuen saria jaso. Hala ere, klubetik adierazi dute aurrerago emango diotela saria.

Zuzendaritza eta klubeko kirol zuzendariaren artean egiten dute sarituen hautaketa, eta, besteak beste, denboraldi osoan emandako maila, egindako lana, erakutsitako konpromisoa eta urteetan klubaren alde egindako lana eta emandako babesa hartzen dituzte kontuan.

### Laugarren postua

Etxeko azken partidua jokatu zuen Erregional Ohorezko Mailako Bergarako taldeak domekan. Hirugarren Mailarako igoera jokoan zuen Eibarren aurka. 0-4 amaitu zen partidua, eta, duela asteburu batzuk ziurtatu bezala, laugarren postuan amaituko du denboraldia BKEk.

Iker Ruiz de Larramendiren taldeak Oiartzunen jokatuko du denboraldiko azken partidua, zapatuan, eguerdiko hamabietan. Oiartzuarrak hamargarren postuan daude sailkapenean. BKEko presidente Iosu Elorzak taldeak egindako denboraldiaren balorazio positiboa egin du. Azaldu duenez, azken 20 urteetako posturik onena lortu du taldeak, haren esanetan, "etxeko jokalariez" osatutako talde batetik. Oiartzunen aurkako partida horri begira, 60 puntuak gainditzea dute helburu, denboraldiari amaiera "polita" emateko. Gaur egun, 59 puntu dituzte mahoneroek.



Mahonero Sariak banatu zituzten domeka arratsaldean. BKE



Bergara Hiriko finalaren egunean aritu ziren pilotariak. BKE

## Murua-Uriondo eta Ibarluzea-Calvo, Bergara Hiriko txapeldun

Ander Murua arrasatearrak txapelketako jokalari onenaren saria eskuratu zuen astelehenean

**I.A.A.** BERGARA

Ander Muruak eta Endika Uriondok 22-13 hartu zituzten mendean Unai Amiano eta Beñat Garmendia astelehenean jokatu zen Bergara Hiria torneoko nagusien finalean. Murua arrasatearrak bigarren urtez jarraian jantzi du Bergara Hiriko txapela. Promes mailan, Oier Ibarluzeak eta Markel Calvok 22-19 irabazi zuten Oier Zabaleta eta Urko Bullonen kontra.

Txapelketako jokalari onenaren saria ere arrasatearrarentzat izan zen. "Azkenaldian, gauzak ondo ari dira ateratzen. Eskuak ondo zaintzen ari naiz eta fisikoki ere ongi nago, eta hori ere kantxan antzematen da", zioen Muruak.

### Jarraitzeko gogoz

BKEko pilota saileko presidente Julen Aranburuk pozik zegoen, bi finalak "onak eta gogorrak" izan zirela iritzita. Txapelketan zehar ikusleek emandako erantzunarekin ere gustura zegoen: "Txapelketan zehar, final-laurdenetatik jendeak erantzun du. Gaur ere sekulako giroa egon da, eta horrek gogoa ematen du antolatzen jarraitzeko".

### Emakumeen txapelketa

Bi finalen aurretik, emakumezkoen lagunarteko norgehiagoka jokatu zen. Garai eta Mendizabal 22-13 nagusitu ziren Beitiaren eta Capellanen kontra. Aranburuk adierazi zuen badela helburu emakumezkoen txapelketa egitea Bergara Hirian, eta aurten egin dutela antolatzeko ahalegina: "Aurten bagenuen asmoa sartzeko, baina txapelketa askorekin dabiltza. Etorkizun laburrean saiatuko gara, ikusiko dugu datekin neskek erantzuten duten, eta hori izango da gure helburua".

## Lau jokalariri agurra

Berezia izan zen Eibarren aurkako partidua Xabier Azpiazu, Jon Laskurain, Paul Valgañon eta Mikel Larrañaga jokalariendako. Hainbat urtez BKEko elastikoa defendatu ostean, euren azken partidua jokatu zuten Agorrosinen. Agur esango diote futbolari lau jokalariek. Taldekideek eta entrenatzaileek eskerrak eman zizkieten egindako lanagatik.



Erregional Ohorezko Mailako taldea, lau jokalariri egindako agurrean. BKE

## Bi erremonte partidu jokatuko dituzte gaur gauean frontoian

Erremontari Herriz Herri proiektuko bi partidu jokatuko dira gaur, 22:00etan, Udal Pilotalekuan. Lehen norgehiagokan, Arluziagak eta Zubirik osatutako bikotea Irazuren eta Apezetxearen kontra arituko da; bigarrenean, berriz, Jabalerak eta Barrenetxea IV.ak Aldaberen eta Azpirozen aurka neurtuko dituzte indarrak. Jaialdia doakoa izango da eta gonbidapenak *www.seminarixoa.eus*-en daude.

Erremontari Herriz Herriren bigarren edizioa azarora bitarte jokatuko da, eta, erremontea beste herri batzuetara zabaltzeko asmoarekin, hamazazpi herritara zabaldu dute ekimena, eta horien artean daude Debagoienean Bergara eta Arrasate. Herri bakoitzak bere egutegira egokituko du jaialdia eta Bergaran gaurko eguna aukeratu dute herritarrek erremontea bertatik bertara ikusi eta ezagut dezaten.



*Karteletrak* erakusketa Olaso dorrean. OLASO DORREA FUNDAZIOA

# Euskal palindromo bilduma Olaso dorrean

Markos Gimenok idatzitako 53 palindromo kartel bihurtu eta 'Markos Gimenoren Karteletrak' erakusketa sortu du Joseba Sarrionandiak Esteban Montorio diseinatzailearekin batera; Olaso dorrean dago ikusgai ekainaren 14ra arte

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA
Markos Gimenok (Ermua, 1947; Eibar, 2018) idatzitako palindromoak oinarri dituen *Karteletrak* erakusketa ikusgai dago Olaso dorrean. Gimenok idatzitako palindromoak hartuta *Markos Gimenoren 101 letrakartel* liburua idatzi zuen Joseba Sarrionandiak, Esteban Montorio diseinatzailearekin batera, eta erakusketa ere egin dute: "Markosen figura ez zen ezaguna eta gure lana izan da pixka bat ezagutzera ematea Markos Gimenoren lana". Orain arte Gernikan egon da erakusketa eta orain, ekainaren 14ra bitartean bisitatu ahal izango da Bergarako Olaso dorrean.

**Palindromoak, kartel**

Liburuan 101 palindromo bildu ditu Sarrionandiak eta erakusketa, berriz, 53k osatzen dute. Erakusketarako palindromo bakoitza kartel bihurtzen saiatu dira. Sarrionandiak adierazi du lan hori egina zuela Gimenok zenbait kasutan. Hala, 30 artistak baino gehiagok hartu dute parte "gorputz grafiko" bat sortzen Gimenoren idatziei. "Lagun grafitigile, argazkilari eta pintore asko zituen, eta haiei proposatu diegu palindromo bakoitzari gorputz grafiko bat emateko. Libururako, palindromo-kartel bakoitza testuinguru komunikatibo-literario batean ipintzen ahalegindu naiz. Zentzugabeziatik gutxienez uste dut atera dugula Markosen lana", dio idazleak.

Gimenoren lana ezagutzen zuen Sarrionandiak, baina Euskal Herrira itzuli zenean ezagutu zuen Gimenoren familia. Haien bitartez aurrez aurre ikusi zuen ermuarraren lana eta "harrituta" geratu zen Gimenoren lanak zuen dimentsioarekin. "Palindromo batzuk ezagutzen nituen, baina konturatu nintzen sormen lan itzela egina zuela, batez ere, hizkuntzaren zentzu ludikoan. Palindromoak, hitz asmatuak, kalanburrak...", dio.

Hasierako asmoa obra guztiak batzea bazen ere, artxiboko lana izango zela iruditu zitzaion, eta, horrenbestez, liburua eta erakusketa egitea erabaki zuen: "Bai liburua eta bai erakusketa Markosen hitz-jokoak geure artera itzultzeko ahaleginak dira".

**Zentzua badute**

Palindromoen zentzua berreskuratu nahi izan du Sarrionandiak: "Alfonso Reyes idazle mexikarrak esaten zuen palindromoak ez duela zentzurik ez ezkerretik eskuinera ez eskuinetik ezkerrera. Hori da arazoa. Eta gure abiapuntua izan da zentzurik ezaren ideia hori ez dela egia erakustea. Edozein mezuk du zentzua, kontestuan".

"Hizkuntza txikiek" dituzten mugak –egokitasun gramatikalak edota korrekzio politikoak– gainditu nahi izan dituzte lan horrekin, eta ohiko "txukuntasun eta zuzentasunetik" ateratzen saiatu dira; batez ere, umorearen aldetik. "Markosen izpiritua" deitzen diote horri liburuan.

**Ekaineko bisitak**

Erakusketa astelehenetik egubakoitzera dago ikusgai, 18:00etatik 20:00etara; zapatuetan, berriz, 11:00etatik 14:00etara. Gainera, ekainaren 8an bisita gidatua izango da Joseba Sarrionandiarekin, 11:00etan. Azken eguna ekainaren 14a da.

Halaber, Olaso Dorrea Fundazioak jakinarazi du dorrean bertan ekainaren 10etik 17ra bitartean egingo diren jarduerak direla eta *Karteletrak* erakusketa bisitatu ahal izateko aurretik telefonoz eskatu beharko dela hitzordua, 638 12 16 75 telefono-zenbakira deituta.

**SARRIONANDIAK ERAKUSKETAREN BISITA GIDATUA EGINGO DU EKAINAREN 8AN**

## Domekan banatuko dituzte Koldo Eleizalde lehiaketako sariak

Sari-banaketa Seminarixoan izango da, 12:00etan; herritarrek 331 lan aurkeztu dituzte 39. edizioan

**I.A.A.** BERGARA
Koldo Eleizalde lehiaketaren sari-banaketa domekan egingo dute 12:00etan, Seminarixoan. Aurten 331 lan aurkeztu dituzte –iaz 467 izan ziren– eta Bergarako Udaletik adierazi dute lan-idatzietan izan dela beherakada. Alabaina, azaldu dute igoera "nabarmena" izan dela interpretazio arloan.

Epaimahaiak azpimarratu du aipatutako genero horren kalitatean hobekuntzak egon direla: "Aurkeztu diren lan batzuk lanketa handi baten emaitza dira, bai gidoiaren, bai eszenografiaren eta baita interpretazioaren aldetik ere". Epaimahaiak komikien hirugarren kategorian saritutako *Bitorianatxo Alemanian* nabarmendu du lanaren originaltasunagatik, gidoiagatik eta marrazkietako xehetasun mailagatik.

Halaber, sari-banaketa zuzenean emango dute Bergarako Udalaren Youtube kanalean.

Saridunak ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonotik

## Baionako artisten lanak daude ikusgai Aroztegi aretoan

Bi urtean behin etortzen dira Baionako artistak Bergarara, eta aurten zazpi lagunek ekarri dituzte lanak

**I.A.A.** BERGARA
Beartek eta Baionako Kortsarioen Elkarteak egiten duten erakusketa-trukearen ohiturari jarraituz, Baionako bi eskulturagileren eta bost irudigileren lanak daude ikusgai Aroztegi aretoan. Beart elkarteko kideek bi urtetik behin erakusten dituzte lanak Baionan; haiek, berriz, bi urtean behin. Bearteko presidente Xabier Agirrek bere agurrean adierazi du "fitxaketa berriekin berrituta" datorrela Baionako lantaldea. "Mugaren beste aldetik, aire desberdinekin etortzen zaizkigu, aberastasun plastiko nabarmena eta askotariko aniztasun estilistikoa berresten dutenak. Adierazpen-berezitasunak gaikako garapenari eta elkarteko kide bakoitzaren jakintza metatuarekin lotuta daude, ezinbestean", dio Agirrek.

Ekainaren 2ra arte egongo da ikusgai erakusketa. Hauxe izango da ordutegia: martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era; zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.

## Jasan eta Txerrikumeak gaur kartzela zaharrean

Punk-rock eta rock-metal doinuez bustiko da kartzela zaharra gaur gauean, Debagoieneko Jasan eta Txerrikumeak taldeek kontzertua emango baitute, gaueko hamarretan hasita. Sarreraren prezioa bost euro da.

Jasan Aretxabaleta eta Eskoriatzako lau musikarik osatzen dute eta, besteak beste, 2023an kaleratu zuten taldearen izen bera daraman lehenengo disko luzeko abestiak joko dituzte.

Txerrikumeak, berriz, Aretxabaletatik datorren laukotea da eta dagoeneko bi disko argitaratu ditu: lehena 2020an, *Gorabeherak* izenekoa; eta bigarrena, *Nora heldu,* 2023ko ekainean.

Algaraka

BAKARRIZKETA LEHIAKETA

# finala

**Aurkezlea:** Miren Nogales eta Jon Olivares.

**Epaimahaia:** Idoia Torregarai, Aner Peritz eta Iosu Zubia.



Bakarrizketari eta
epaimahaikide gonbidatua:
**Yogurinha Borova**

Maiatzaren 31n, 20:00etan,
**Bergarako Seminarixoan.**

**Eskuratu sarrerak:**
*seminarixoa.eus* webgunean
edo egunean bertan leihatilan.

ANTOLATZAILEAK

Jardun

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

BABESLEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia

ORAIN GIPUZKOA

BERGARA

Bergarako Udala

LAGUNTZAILEAK

Urretxuko udala

Zumarragako Udala
Ayuntamiento de Zumarraga

Zumaiako Udala

ZUMAIA BIZITZEKO DA

SAIOEN EKOIZPENA

eitb

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

abao

# Ramon Aldasoro II. Trial Memoriala bihar, zapatua

Euskadiko Trial Txapelketaren parte da, eta lau kategoria egongo dira; gazteek eta alebinek ere parte hartzeko aukera izango dute. 15:00etan aterako da lehen pilotua, Irainen, eta antolatzaileek espero dute 55-60 parte-hartzaile inguru batzea

**Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria** ANTZUOLA
Irain motor klubak antolatuta, Ramon Aldasoro II. Trial Memoriala egingo dute bihar. Euskadiko Trial Txapelketaren parte da, eta laugarren aldia du, beste izen bat hartu zuen arren iaz. Izan ere, aurreko urtean hil zen Ramon Aldasoro Magunacelaya, trialaren antolatzaileetako bat, eta horregatik jarri nahi izan zioten haren omenezko izena kirol probari.

Lau kategoriatan banatzen da triala –TR1, gorria; TR2, urdina; TR3, berdea; eta TR4, horia–, maila bakoitzak kolore bana baitu, zailtasunaren arabera banatuta: horiak dira errazenak, eta hurrenkeran doaz gainontzeko guztiak. Horrez gain, alebinen, gazteen eta klasikoen kategoriak ere badaude. Parte-hartzaileek, beraz, euren mailaren arabera ematen dute izena. Halere, eguraldi txarra eginez gero "zaildu" egiten da egoera, lokatza-eta pilatu ohi delako inguruetan, basoa izango baitute, batik bat, topaleku.

Hamar gune egongo dira, guztira, eta parte-hartzaile bakoitzak bi buelta eman beharko dizkio bakoitzari. Zona bakoitzean, baina, ez da ibilbide bakar bat izango, maila bakoitzera egokitutakoak baizik. Guztien helburua, ordea, bera da: lurra hankekin ahalik eta gutxien ukitzea; ahal dela, ezin baita motorretik jausi, puntuazioa jaitsi egin daitekeelako. Hala, zenbat eta puntu gehiago eskuratu, orduan eta okerrago izango da, hanka lurrean jarri den seinale baita.

### Egiaztapenak

15:00etan irtengo da lehen pilotua, Irainen, eta antolatzaileek aurreikusi dute 55-60 parte-hartzaile inguru egongo direla, orotara. Alabaina, horiek guztiek lehenago bertaratu beharko dute, 13:30ean egingo baitituzte egiaztapenak; alegia, segurtasuneko baldintzak betetzen dituzten egiaztatu beharko dute, esate baterako, motorrak nola dituzten begiratuta.

**HAMAR GUNE EGONGO DIRA, GUZTIRA, ETA PARTE-HARTZAILE BAKOITZAK BI BUELTA EMAN BEHARKO DITU**

Klubeko kideak eta motorzaleak dabiltza antolaketa lanetan, baina laguntzaile dituzte, batik bat, Antzuolako Udala eta Goizper Group. Haiez gain, ordea, babesle dira Erreka, Epzoo Ate eta Automatismoak, Bergara Pneumatikoak, Leuntek, Jon Zuremoto, Amets Berezao Autoak eta Bikain Zentro Medikoa.

### Jertseak eta kamisetak

Jertseak eta kamisetak izango ditu, gainera, estreinakoz, Irain motor klubak. Trialerako egin dituzte propio, eta, beraz, egunean bertan jarriko dituzte salgai erosi nahi dutenendako, Irainen bertan.



Ramon Aldasoro I. Trial Memoriala iaz. IMANOL SORIANO



Antzuolako gaztetxeko leihoetan barrak jarrita. A.R.K.

# Barrak jarri dituzte gaztetxean, lapurretak saihesteko

Sarrerako atean ere aldaketak egin ditu Udalak; eta barrualdean, berriz, neurriak hartu ditu Asanbladak

**A.R.K.** ANTZUOLA
Hainbat lapurreta egin dituzte azken hilabeteotan Antzuolako gaztetxean, eta dozenaka neurri hartu dituzte horiek saihesteko; hala ere, ez dira aski izan, behin baino gehiagotan sartu baitira lapurrak. Beraz, azkenean, leihoetan barroteak jartzeko erabakia hartu du Gazte Asanbladak.

Udal eraikin bat izanik, Udalak jarri ditu barroteak; ez da, ordea, hartutako neurri bakarra izan. "Sarrerako atean ere beste aldaketa batzuk egingo dira, eta Asanbladakook, berriz, barrualdean beste neurri batzuk hartzen hasi gara", adierazi dute Gazte Asanbladako kideek. Neurri horiekin guztiekin "pozik" daude, eta espero dute horrela lapurretak ekiditea.

### Salaketa, beste behin

Neurriak hartzearekin batera, gertaerak salatu dituzte, beste behin: "Lapurretak gertatzea onartezina den ekintza bat da. Herriari musu-truk sortzen gabiltzan eskaintza kultural bat da gurea, baina behin eta berriz lapurretak gertatzeak gure lana oztopatzen du eta, aldi berean, motibaziorik eza sortzen digu". Hala ere, gertaerak gertaera, "motibatuta eta gogoz" jarraitzen dute herriari askotariko ekintzak eskaintzeko, eta aurreratu dute gaztetxearen urteurrena izango dela ondorengoa.

### Laster da urteurrena

Ekainaren 8an, zapatua, ospatuko dute gaztetxearen urteurrena, eta dagoeneko antolaketa lanetan dabiltza Asanbladako kideak. Karropoteoa, herri bazkaria eta kontzertuak –Kontralde, Kaparrak, Oihu eta DJ Artze– izango dira egun horretan, baina aurrerago emango dute xehetasun gehiagoren berri.

## Meaka-Irimok energia berriztagarrien auzia du mahai gainean

Meaka-Irimo herri plataformaren eskutik, *Energia berriztagarrien inplantazioaren beharra, bideragarritasuna eta naturan dituzte kalteak* izenpean, energia berriztagarrien auziaz jarduteko aukera izango da datozen asteetan Antzuolan. Joan den eguaztenean, hilaren 22an, Aritz Otxandiano ingeniaria izan zen Olaranen hitzaldia egiten, eta Antonio Aretxabala geologoa izango da ekainaren 5ean, 18:30ean, Olaranen.

Ekainaren 7an, eguraldia lagun bada, Irimora irteera egingo dute gauean, mendi gainean ekitaldi bat egiteko. Ekainaren 11n, berriz, elkarretaratzea egingo dute Eusko Jaurlaritzaren atarian, Gasteizen.

Ekintza horiez gain, beste batzuk egiteko asmoa du plataformak ekainean zehar, baina egitekoak zehaztu ahala emango du horien berri.



Aitzagako hodiko lanak. A.R.K.

# Aitzagako hodia aldatzen, herriak ura izan dezan

Aitzagako depositutik Ondarrerainoko hodia "oso zaharkituta" zegoen, eremuko lur mugimenduengatik-eta "puskatuta". Gipuzkoako Ur Kontsortzioa, beraz, hodi berri bat jartzeko lanetan ari da, lurzoruaren nolakotasunera egokituta dagoena

**A.R.K.** ANTZUOLA
Urkulutik iritsitako urak Aitzagako depositutik herrira banatzeko asmoz, duela 60 urte instalatu zen Aitzagatik beherantz doan hodia. Hala ere, behin baino gehiagotan eman ditu arazoak; azkenekoz, 2023aren hasieran, bizpahiru aldiz puskatu baitzen. Behin behineko konponketa lanak egin zituen orduko hartan Gipuzkoako Ur Kontsortzioak; hodi guztia aldatzen ari da orain, ordea.

Aritz Igeltz Antzuolako Udaleko Hirigintza zinegotziaren hitzetan, "handia" da Aitzagatik Ondarrerainoko malda, eta gertatzen diren lur mugimenduengatik "oso zaharkituta" zegoen hodi zaharra. "Ikusita herriarendako duen garrantzia eta eragina, eta herriak urte askotarako arazorik ez edukitzeko, obra sakona eta handia egiten dabiltza eremu hartan". Hain justu, azaldu du 150 milimetroko diametroa izango duela hodi berriak eta, horrez gain, trazadura ere "ezberdina" duela aurrekoarekin alderatuta, era horretan "lur mugimenduek hodian eragiten dituzten kalteak murrizteko".

Gipuzkoako Ur Kontsortzioko bulego teknikoak egin eta bideratu du lanen proiektua, eta baita obraren esleipena ere; zehazki, 161.865 eurokoa da adjudikazioa. Udala, berriz, lursailetako jabeekin hizketan aritu da, baimenak-eta lortu ahal izateko. Hala, Igeltzek nabarmendu du eguraldi ona lagun izanez gero uztailaren bukaerarako amaituko dituztela lanak.

**Herria da onuraduna**
Urkulutik datozen ur guztiak Aitzagako depositutik doazela azaldu du Igeltzek, eta handik herritar guztien etxebizitzetara. "Hoditik pasatzen diren ur guztiak, beraz, herritar guztiok erabiltzen ditugu".

**HERRITAR GUZTIEK ERABILTZEN DUTE HODITIK PASATZEN DEN URA, HERRIRA BAITOA AITZAGATIK**



Aiherra auzoko lanak martxan dira, ura bideratzeko. A.R.K.

## Aiherran hasi dituzte lanak

Eztalatik herrira jaisten diren urek Kalebarrenen eragiten dituzten arazoak saihesteko lanak hasi ditu Udalak, 88.000 euroko inbertsioarekin. Sagastitik Aiherrara doan bidetik bideratuko dute ura, aparkalekuetatik, Altzarteko hodira joan dadin ur guztia.

## Gipuzkoa Bertsotaneko saioa izango da bihar Torresoroan

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako sailkapen faseko bigarren faseari ekingo dio Gipuzkoa Bertsotan-ek, eta Antzuolan izango da saioetako bat bihar, 17:00etan, Torresoroan. Beñat Iguaran Amundarain, Emaitz Murua Arzallus, Manex Astigarraga Bergara, Manex Mujika Amunarriz, eta Haizea eta Oihana Arana Cardenal ahizpa eskoriatzarrak arituko dira bertsotan; gai-jartzaile, berriz, Olatz Zuazubiskar arrasatearra arituko da. Hala, hara joan nahi izanez gero, sarrerak salgai daude: *bertsosarrerak.eus*. Zazpi euroko prezioa du sarrera arruntak eta bostekoa, aldiz, gazteenak eta bazkideenak.

## Gaur da AKE eguneko bazkarirako txartelak erosteko azken eguna

Lehen Erregional Mailan jokatuko du Antzuolak datorren denboraldian, mailaz jaitsi baitira Gorengoen mailatik; hala ere, ez dute ospakizunerako aukerarik galduko, AKE eguna ospatuko baitute ekainaren 1ean, zapatua. Herri bazkaria izan ohi da ekintza jendetsuenetariko bat egun horretan, ehunka herritar batzen baitira, eta oraingoan ere horrela izango dela dirudi, azken 28 txartelak erosteko aukera izango baita gaur arratsaldeko zazpietan, Kalebarrenen. Mugatua izango da, ordea, txartelen salmenta, AKEko kideek azaldu baitute pertsona bakoitzak gehienez ere bi erosi ahalko dituela.

## Izena eman daiteke Kursaalera balleta ikustera joateko

Kursaalean *La cenicienta* ballet ikuskizuna izango da maiatzaren 29an, datorren eguaztenean, 19:30ean, Les Ballet de Monte-Carlo konpainiaren eskutik, eta hara joateko aukera izango da Antzuolatik, autobusa egongo baita, baldin eta hamabost pertsonako taldea osatzen bada. Horretarako, gaur da izena emateko azken eguna, eta hiru bide daude: udaletxean, 943-76 62 46 zenbakian eta *kultura@antzuola.eus* helbide elektronikoan. Ikuskizuneko sarrerei dagokienez, Kursaaleko webgunean erosi beharko du nork berea. Taldea osatzen ez bada, sarrera erosita dutenei itzuli egingo diete dirua.



LANDATXOPE JUBILATU ETA PENTSIODUNEN ELKARTEA

## Landatxopekoak Costa Bravan

Landatxope jubilatu eta pentsiodunen elkarteko 43 herritar Costa Bravan (Girona, Herrialde Katalanak) izan ziren joan den astean, maiatzaren 10etik 17ra. Joxe Anjel Arbulu Landatxopeko lehendakariak adierazi du "nahiko ondo" pasatu zutela, eguraldi "narrasa" izan zuten arren egun batzuetan. Orain, jasotako balorazioetatik ondorioak aterako dituzte.



Euskal Mendizale Elkartearen mendeurreneko argazkia. L.Z.L.

# Euskal Herriko Mendi Biltzarra jaio da Elgetan

Omenaldien eta aitortzen unea izan zen Euskal Mendizale Elkartearen mendeurren ekitaldia. Autonomien eraketak banandutako bi mendi federazioek lanerako organo berria ere aurkeztu zuten, eta elkarlan handiago baterako borondatea erakutsi

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

*Betidanik betiko* lelopean urte hasieratik daude martxan Euskal Mendizale Elkartearen mendeurreneko ekitaldiak. Hitzordu nagusia, ordea, zapatuan Elgetan egindako ekitaldia izan zen. Omenaldien eta aitortzen eguna izan zen. Hasteko, Euskal Mendizale Federazioko presidente Zigor Egiak eta Nafarroako Mendi Federazioko presidente Martin Montañesek mendeurreneko plaka erakutsi zuten. Udaletxeko fatxadan kokatu du asteon Udalak, gainerako urteurren-plaken ondoan egon dadin.

Ekitaldian, sorrerako bost mendi elkarte –Baskonia, Bilbao Alpino, Club Deportivo Bilbao, Eibar Klub Deportibo eta Fortuna– eta bi federazioetan presidente izandako lagunak omendu zituzten. Emakumeek mendian, mendi taldeetan eta mendi federazioetan egindako lanak ere izan zuen aitortza. Cari Velezen eskutik jaso zuten aginte-makila bana Karmele Biurrunek eta Miren Aizmendik.

Ordezkari politikoek ere hartu zuten hitza. Ez zen Ipar Euskal Herriko ordezkari politikorik izan, baina bai Baionako Auñamendi Mendi Elkarteko Rafa eta Pantxika Valdivielso. Kataluniako eta Aragoiko mendi federazioetako ordezkariak ere izan ziren Elgetan.

**AURRERANTZEAN, BATERA ANTOLATUKO DITUZTE HAINBAT KIROL PROBA ETA KULTURA EKINTZA**

### Lankidetza sendoagorantz

Euskal Mendizale Elkartearen sorreran ez bezala, gaur egun bi erakundetan bananduta daude EAEko eta Nafarroako mendi federazioak. Lankidetza eta elkarlana sendotzeko borondatea dute alde biek, eta Euskal Herriko Mendi Biltzarraren sorrera-agiriak sinatu zituzten bi presidenteek zapatuan. "Ez gara inoiz guztiz bananduta egon. Gure gorabeherak izan ditugu, baina beti egon gara elkartuta. Orain, asmoa da kirol probak eta kultura ekintzak bateratzeko lan egitea, eta, batez ere, EMMOA museoari bultzada emateko. Lan askoren ondoren heldu gara gaur hona, Elgetara, Euskal Herriko Mendi Biltzarra aurkezteko", esan zuen Marti Montañes nafarrak.

"Diziplina askotariko Euskal Herriko Kopak antolatuko ditugu, nafarrek egiten duten erdiguneko ibilbidea eta guk hemen egiten dugun Besaideko eguna elkarrekin antolatuko ditugu, eta umeen zein beteranoen mendi martxak ere elkarlanean egingo ditugu Nafarroan eta EAEn, txandaka", azaldu zuen Egiak. Aurrerantzean, *Pyrenaica* aldizkaria ere jasoko dute Nafarroako mendi federatuek.

## Bi federazioak elkartuago



Egia eta Montañes agiriak sinatzen. EMF

**Euskal Herriko Mendi Biltzarra** Zigor Egiak eta Martin Montañesek sinatu zituzten organo berriaren eratze agiriak Elgetan egindako mendeurreneko ekitaldian.




Bazkaria Elgetako frontoian. EMF

**350 lagun bazkarian** Ekitaldi instituzionalaren ostean, bazkaria egin zuten mendizaleek frontoian. Mahaiaren bueltan elkartzeko eta hartu-eman informalagoak edukitzeko aukera izan zuten.

## Pagatza Taldea bazkide da

Pagatza Taldea Ixotzen energia-komunitateko bazkide laguntzaile egin da. Mila euroko ekarpenarekin, komunitatearekin bat egiten duen Elgetako lehen enpresa da. Pagatza Taldeko arduradun Ion Aguirrebeña Garitano eta Ixotzen kooperatibako lehendakari Roberto Sanz daude argazkian. Ixotzenek zabalik ditu ateak gainerako enpresendako ere.




IXOTZEN

## OHARRAK

### Elgetako abesbatza gaur Espaloian

17:30ean emango diote hasiera saioari. Sarrera doan da.

### Baserri inguruko plastiko bilketa zerbitzua

Martitzenean izango da bilketa. Eskaera egiteko: 943-76 25 47.

### Astrotopaketa, teleskopioa erabiltzen ikasteko

Eguaztenean, 18:30ean, liburutegian maileguan hartzeko dagoen teleskopioa erabiltzen ikasteko formakuntza.

### Saguzarrak ikusteko irteera maiatzaren 31n

Udalak Naturtzaindiarekin antolatutako irteera da. Taldea 21:00etan abiatuko da, plazatik.

# Zaleak gogoz Intxortako I. Rallysprinterako

Ekainaren 1ean jokatuko da eta kronometratutako tarte bakarra izango du: Bergarako garbigunetik Kanpanzarreraino, Angiozartik eta Asentziotik pasata. Amasgas taldeak antolatua, Mendi Mendi Racingeko kideak laguntzaile eta babesle lanetan ari dira

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Denboraldi erdialdean dator Intxortako I. Rallysprinta; hiruzpalau jokatu dira aurretik, eta beste bizpahiru gelditzen dira ondoren. Lehenengo aldiz jokatuko da Intxortakoa, eta zaleak gogotsu daude probak emango duena ikusteko. "Ez da entrenamendu saiorik izango, eta tarte kronometratu bakarra izango du: Bergarako garbigune paretik Kanpanzarrerainokoa, Angiozartik eta Asentziotik pasata", azaldu du Mendi Mendi Racing taldeko pilotu Mikel Beretxinagak. "Lau pasada izango dira, eta lau denboren baturan azkarrenak irabaziko du".

Ibilbide oso azkarra dela esan du pilotu elgetarrak: "Oso azkarra da eta, aldi berean, denetik dauka: hasieran, lautada; eta gero, aldapak gora, aldapak behera, eremu azkarrak, eremu motelak... Denetik".

Proba 12:30ean hasiko da eta sarrera 10 eurokoa izango da. "Hiru sarrera-puntu izango dira: garbigune parean bat eta Asentzion eta Kanpanzarren beste biak".

Proba ikusteko, Asentziora heltzeko faltan 500 bat metrora gelditzen den gunea gomendatu du Beretxinagak: "Leku ona da rallysprinta ikusteko".



Mendi Mendia Racing taldeko Unzetabarrenetxea anaien autoa. M.M.R.

### Rallysprint falta bailaran

Bailarak merezi zuen rallysprint bat. "Inguru honetan badugu halako proben falta; denak gelditzen zaizkigu Gipuzkoa barrualdean. Orain urte batzuk egin genuen rallysprint bat antolatzeko saiakera, baina pandemia heldu zen eta bertan behera geratu ziren proba gehienak", esan du elgetarrak. Beretxinagak uste du zaleak gogoz daudela. "Laguntza eskatu dugu komisario lanak eta beste egiteko, eta berehala bete dira postu guztiak. Oso eskertuta gaude".

### Elgetako auto bat lehian

Mikel Beretxinagak badu Intxortako I. Rallysprintean parte hartzeko asmoa. "Autoarekin arazo batzuk ditugu, baina espero dugu garaiz konpontzea eta listan egotea", esan du. Oskar Sarasua izango du kopilotu.

Maiatzaren 11n jokatutako Gorlako Igoeran estreinatu zuten auto berria: "2022an Goilurrako rallyan izandako istripuaren ondoren, osorik berritu dugu. Gorlako Igoeraren ostean, aldaketa batzuk egiten ari gara; ea egunerako heltzen garen".

# 'Kirola' da umeek udalekuetarako aukeratu duten gai nagusia

Ekainaren 24tik uztailaren 24ra emango du zerbitzua Udalak; izen-ematea zabalik da, ekainaren 7ra arte

**L.Z.L.** ELGETA

Bost asteko udaleku irekiak izango dira aurten ere Elgetan. Udalak emango du zerbitzua eta HH-2tik LH-6ra arteko umeendako izango da, astelehenetik barikura, 09.00etatik 13:00etara.

### Parte hartze prozesua

Iaz moduan, aurten ere parte hartze prozesu bidez aukeratu dute gaia umeek. "Lehenengo eta behin, postontzi bana jarri genuen eskolan, liburutegian eta ludotekan, ikasleek proposamenak egin zitzaten", azaldu du Hezkuntza zinegotzi Kepa De Vegak. "Bestalde, eta eskolako ikasle batzordearen bitartez, dinamikak egin dira LHko gela guztietan, helburu berarekin". Proposamenak jaso, sailkatu eta bozketak egin dira gero. "Bozketan irten den gaia *Kirola* izan da, eta ekintza bereziak, irteera igerilekuetara, ihes gela –LH-3tik LH-6ra arte umeendako– eta gaubeila –LH-5eko eta LH-6ko umeak–".



**Udalekuak iaz.** GOIENA

Izen-ematea zabalik da udaletxean eta *Elgeta.eus* webgunean. Prezioen eta hobarien gaineko informazioa ere bertan kontsultatu daiteke.

## Beheko kaleko jaietako afarirako txartelak salgai

Ekainaren 6an eta 7an ospatuko dira Beheko kaleko jaiak. Seinalatuak dira aurtengoak; izan ere, hamar urte betetzen dira auzotar talde bat Beheko kaleko jaiak antolatzen hasi zenetik. Azken prestaketa lanetan dihardute batzordean. Aurreratu dute barikuan, ekainak 6, neska-mutikoendako txirrista erraldoia eta bits festa izango direla, eta iluntzean Unai Cantabranaren kontzertua. Zapatuan, berriz, VIII. Mendi Kriteriuma, Amaia DJ, entzierroa, afaria, suzko erruberak eta Gauargi taldearen erromeria.

Jai Batzordeak jakinarazi du afarirako txartelak salgai daudela. Helduendako txartelak Goikoetxe harategian daude salgai eta umeendako txartelak, Lola jatetxean. "Otarre eder baten zozketa ere egingo dugu; txartelak datorren astean saltzen jarraituko dugu".





Kale Zaharreko 13. zenbakian dagoen eraikinean egongo da emakumeendako espazioa. O.E.

# Ziklo berria hasiko du Emakumion Etxiak

Oinarri teorikoak, helburuak eta erabilera finkatzen ibili dira bi urtez parte-hartze prozesu baten bitartez. Ondorio horiek aurkeztuko dituzte eguaztenean, eta deialdia egin lantaldeak sortzeko, zabaltzen denean funtzionamenduan hasteko

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI

Duela bi urte, 2022an, jarri zuten Emakumion Etxia Eraikitzen izeneko parte-hartze prozesua. Beste eredu batzuk ikusi, Oñatikoak izango dituen oinarri teorikoak finkatu, beharko lituzkeen espazioak definitu, berrantolaketa nola egin adostu, nola eta nork erabiliko duen zehaztu... Espazioaren helburuak eta erabilera finkatzen ibili dira ordutik, talde irekietan batuta, eta egindako lanketa herritarrei erakutsi gura diete orain. Eguaztenean, maiatzak 29, Eltziako topagunean 19:00etan egingo den aurkezpenean azalduko dituzte parte-hartze prozesuaren ondorio nagusiak.

**Urtebeteko obrak**

Emakumion Etxiaren oinarriak, balioak, jarduna, kudeaketa eredua eta antolaketa sistema adosten joan diren heinean, paraleloan, Kale Zaharreko 13. zenbakian dagoen hiru solairuko eraikina bera txukuntzen, konpontzen eta moldatzen ibili dira. Bigarren fase baten daude sartuta lan horiek: etxearen barne banaketa eta eraginkortasun energetikorako lanak egingo dituzte. Hau da, barruko espazioak eta eskailerak, eta argindar, telekomunikazio, ur hornidura eta berokuntza nahiz aireztapen instalazioak eta pareten isolamendua. Itziar Zelaia arkitekto oñatiarrak idatziko du proiektua, lehen fasekoa egin zuen berak.

**Lantaldeak egingo dituzte**

Uztailera bitartean, hiru hilabeteko epean, idatziko dute bigarren faseko proiektua, eta udazkenean hasiko lirateke lanak. Obrek, gutxi gorabehera, urtebete iraungo dutelakoan daude, eta tarte horretan parte-hartze prozesua ez da geldi egongo. Lantaldeak sortuko dituzte, eraikina zabaltzen denean funtzionamenduan hasteko moduan egon dadin. Hau da, irudia eta komunikazioa landuko duen lantalde bat eratuko dute, esaterako, izena jartzeko eta irudia egiteko. Beste talde batek, bestalde, programazioa landuko du, zabaltzen denerako eskaintza prest egon dadin.

**MAIATZAREN 29AN DA AURKEZPENA HERRITARRENDAKO, 19:00ETAN, ELTZIAKO TOPAGUNEAN**

Taldeak herritarrekin osatu gura dituzte, eta datorren eguazteneko aurkezpena aprobetxatuko dute orain arte egindakoa azaltzeko eta dituzten asmoei buruz berba egin eta lantaldeak osatzen hasteko deialdia egiteko. Herritar guztiak daude gonbidatuta aurkezpenera; bereziki, Jabetze Eskolan parte hartu dutenak, etorkizunean bizikidetzan jardungo dutelako. Ekitaldi hori aprobetxatuko dute, bestalde, Jabetze Eskolako ikasturteari amaiera emateko.

## Txondorra piztu aurreko azken lanetan dabiltza San Martinen

Ekainaren 1ean piztu gura dute eta herritarrak animatu dituzte azken lanetara batzeko, auzolanean

**O.E.G.** OÑATI

Ikazkinen bizimodua nolakoa zen eta garai batean langintza horrek herrian izan zuen presentzia eta garrantzia gogora ekartzeko eta erakusteko jarri zuten martxan Oñatin txondorra egiteko ideia. Ikazkinaren etxola ere bai, horrekin batera, eta horretan hasi zen lanean Txondorraren Bueltan izeneko lantaldea, joan den udazkenean.



Txondorra egiteko lanak, San Martinen.

**San Martinen**

Egitasmoaren ideia eta helburuak zabaldu eta herritarrekin batera, auzolanean, egin gura izan dute proiektua. Horrela, azarotik hona, irteerak egin dituzte inguruko basoetara, orbelak batzera joan dira eta hitzaldiak egin dituzte. Gaur egun, azken egitasmoaren azken fasean sartuta daude lantaldekoak. San Martin auzoan ari dira egiten txondorra eta ikazkinen etxola, eta auzolanean jarduteko deialdiak egin dituzte zapatu goizerako eta martitzen eta eguazten arratsalderako. Lanak herritarrekin bukatu gurako lituzkete, eta ekainaren 1ean eurekin piztu txondorra.

## Zegama-Aizkorrirako autobusak geltoki bat izango du domekan

Oñati eta Arantzazu arteko autobus zerbitzua indartu egingo du zapatuan eta domekan Udalak, aurten ere Zegama-Aizkorri mendi maratoia ikustera joan ahal izateko. Autobusa Arantzazuko Ama kaleko geltokian bakarrik hartu ahal izango da. Autokarabanendako eta ibilgailuendako aparkalekuak ere egokitu ditu Udalak.

Domekan sei autobusek emango dute zerbitzua: 07:00etatik 11:00etara –10-15 minutuko maiztasunarekin– eta 11:00etatik 19:00etara –30 minutuko maiztasunarekin–. Bezperan ere egongo da autobus zerbitzua, zapatuan; orduro egongo da: lehenengo autobusa 07:30ean Oñatin eta azkenengoa 19:00etan Arantzazun.

Zapatu gauean, Ertzaintzak Arantzazuko bidea itxi egingo du, egoiliarrentzat eta baimendutako ibilgailuentzat izan ezik.

## Errekalden eta Araotzen dituzte jaiak asteburu honetan

Auzoko jaiak ospatuko dituzte asteburu honetan Errekalden, gaur, egubakoitza, hasita. Urtero moduan, musika kontzertu indartsuak antolatu dituzte egubakoitz zein zapatu gauerako; gaur, esaterako, Etxekalte, Larru Beltzak, Kontralde eta Belako taldeek joko dute eta bihar, Osaba Kimu, Lapur, Olgetan erromeria eta Albina Stardust izango dira zuzenekoak ematen. Horrez gain, baina, urteroko garagardo dastatzea egingo dute aurten ere Errekalden, erraldoiak eta txorimaloak aterako dira eta zapatu goizeko orientazio probara adin guztietako herritarrak daude gonbidatuta.

Araotzen bi eguneko egitaraua prestatu dute. Zapatuan egingo dute auzo bazkaria, bolo-jokoa, haurrendako jolasak eta musika emanaldia. Domeka goizean, berriz, meza, otamena eta musika.

# Olabartarren lehengo bizimodua, liburu batean

Auzoko lehengo bizimodua, langintzak, eskola-orduak, ospakizunak eta bestelakoak jaso ditu Ander Lizarraldek 'Olabartarrak' liburuan. Argazki zahar asko datoz bertan eta auzotarrei hartutako testigantzekin osatu du kontakizuna

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI
Olabarrietako auzotarren lehengo bizimodua jaso du Ander Lizarraldek *Olabartarrak* izeneko liburuan. Orduko soroetan zer landatzen zuten, ezkontzak nola ospatzen zituzten, eskolako kontuak... Auzotarrek utzitako argazki zahar asko datoz liburuan, eurei egindako elkarrizketetan jasotako testigantzekin batera.

### Maletatxoarekin eskolara

Astelehenean Olabarrietako elkartean auzotarrekin batera egindako txokolate-janean egin zuten liburuaren aurkezpena. Han elkartu ziren proiektuan parte hartu duten asko, eta tertulian aritu ziren liburua esku artean zutela, han jasotakoak elkarbanatuz eta oroitzapen berriak ere partekatuz.

Eskolarako joan-etorriak zituen gogoan, esaterako, Imittola baserriko Juli Arregik: "Morraxeneko etxe kontran zegoen eskolara etortzen ginen gu, hiru lagun, hirurok adin berekoak: Kortabarrikoa, Sustiabekoa eta neu. *Mendittarrak* esan ziguten guri. Maletatxo batekin etortzen ginen, Urraukuan uzten genuen, eta eskolatik irtendakoan, eguerdian, maletatxoa hartu eta jan egiten genuen, hotza". Orduko umeek nagusien lanak egiten zituztela dago konturatuta, berriz, Basazabalgo Carmen Markuleta, baina gustura bizi izan zirela dio: "Gu lehen genuenarekin ere gustura bizi ginen. Hori bai, egun guztiak antzerakoak ziren: soroan, ardi-zain... Eskolara ahal genuenean bakarrik joaten ginen; orduan, beti zegoen lana umeendako ere etxean".



**OLABARTARRAK**

- **Egilea:** Ander Lizarralde.
- **Autoekoiztua:** Gure Bazterrak elkartea.
- **Orrialdeak:** 215.
- **Non salgai:** Altuna estankoan, 15 eurotan.

### Araoztar gutxi Olabarrietan

Auzoko etxe guztietan jo du atea Lizarraldek argazkiak jasotzeko, eta adinez nagusiak diren auzotarrei elkarrizketak egin dizkie, lehengo Olabarrieta nolakoa zen erakusteko. "Hainbat gaitan banatuta dago liburua. Argazkiek lagundu didate lehengo bizimodua nolakoa zen kontatzen. Detaile txikietan ikusten da, esaterako, ezkontzak etxean egiten zirela, edo nortzuekin ezkontzen ziren hemengo bizilagunak: gehienak, Berezaokoekin eta Murgiakoekin; araoztarrik, apenas. Ibilgailuen aurreko garaiak ziren, eta Oñatik beste dimentsio bat zuen, bergararrekin ezkontzak egon arren".



Olabarrietako hainbat auzotar eta liburuaren egilea, asteleheneko ekitaldian. O.E.G.

# "Iruña-Veleiaz nahiko nuke berba egin oñatiarrekin"

**JOSETXO MENDIA** HISTORIAZALEA

Aztarnategiaz eta auziaz mintzatuko da eguenean

**O.E.G.** OÑATI
Iruña-Veleia aztarnategiaren gaineko hitzaldia egingo du Josetxo Mendia Azurmendik (Beasain, 1966) datorren eguenean, maiatzak 30, 19:00etan, zinema-aretoan. Auziaz ere mintzatuko da.



Josetxo Mendia. J.M.

**Ze garrantzi du Iruña-Veleia aztarnategiak?**
Izugarria. Burdin Aroko aurkikuntza handienetako bat da eta erromatarren garaiko handiena.

**Zer dimentsio hartzen zuen? Nolakoa zen lehen?**
120 hektareako hiri bat zen I. eta II. mendeetan, 10.000 bat biztanlekoa. Penintsula iparreko hirugarren jendetsuena. III. eta IV. mendeetan gainbehera etorri zen, eta hamaika hektareatara txikitu. Ibilbide historiaz eta orduko egoera sozioekonomikoez ere jardungo dugu.

**Orduko harresiaren aztarnak eta hainbat inskripzio aurkitu izan dira; gaia aldrebestu egin zen, baina, eta auzia zabaldu.**
2006an lehertu zen auzia. Aurkikuntzei datazio-probak, hiru proba mota, egitea eskatzen dugu, eta indusketa handitzea. Karean, adreiluetan eta hezurretan egindako hizkiak aurkitu dira eta horiei proba arkeometrikoak egitea da gure eskaera, baina ez digute onartzen.

**Auzia, alde batetik, eta indusketak, bestetik; zein puntutan daude horiek orain?**
Arabako Aldundiak du ardura eta enpresa pribatu bat du hartuta lan horiek egiteko. Hondeamakinak sartu dituzte, eta erokeria da indusketa arkeologiko bateko eremuan horrelako makineria sartzea. Iruña-Veleiaren inguruko puntu guztiez gurako nuke berba egin oñatiarrekin.



NIRE USTEZ

**MANU EGAÑA TXOPITEA**

## 'Demonixo' digitalak

1981ean jaio nintzen, italiar jatorrizko iturgin batek pantailetara salto egin zuen urte berean. Bai, Marioren kintoa naiz. Spectrum, Amiga eta ondoren zortzi biteko iraultza bizi izan genuen. Zer zen hori! Nintendoa zeukan edo jolas berri bat lortu zuen lagun baten etxera joateko iskanbila. 90eko hamarkadan hamasei biteko borroka epikoa ikusi genuen. Gero 64ak; eta azkenik, Play-a. Ezinezkoa zen guretzat imajinatzea, gure gurasoek ardo bat eta *orly* bat hartzen zituzten bitartean, 25 pezetaren truke beste dimentsio batera eramaten gintuzten makina haiek egunen batean gure etxeetan ikustea.

*Sala de juegos* deitutako tenpluetan bost duroko bidesaria gustura ordaintzen genuen unibertso berrietan jolasteko. FIFAk lapurtutako ikasketa-orduak ere joan ziren. Batzuetan, askotan, gehiegitan, oso maiz, nire semeen nerabezaroa nolakoa izango den galdetzen diot neure buruari. Nire akatsetatik zein errepikatuko duten eta zertan originalak izango diren. Dakidan gauza bakarra, benetako *demonixuak* ez daudela pantailetan, bideojokotatik kanpo baizik.

# "Emaitza ona lortzea izango da helburua"

**ANDER IRIZAR** FUTBOL JOKALARIA

Bi partidutara jokatuko du mailaz igotzeko kanporaketa fasea Aloña Mendik. Lasarten du lehen partidua, bihar, eta han izango dira Oñatitik joandako zaleak, animatzen

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI

Ohorezko Mailara igotzeko kanporaketa jokatzera heldu da Aloña Mendiko futboleko talde gorena. Lasarteko Ostadar taldearen aurka jokatuko du. Zapatuan, 17:30ean, da joanekoa, Michelin futbol zelaian. Markagailua alde dutela bueltatu gurako luketela aitortu du Ander Irizar (Oñati, 2001) kapitainak.

**Zer-nolako animoak dituzue biharko partiduari begira?**

Jokatzeko gogoz gaude. Ezin ukatu urduri ere bagaudela, baina indarra ematen duen urduritasun bat dugu guztiok gainean. Taldeko inor ez da inoiz egon *kale edo bale* izango den egoera honetan, eta denok baikor gaude, gogotsu.

**Nolakoak izan dira aste honetako entrenamendu saioak?**

Ohikoak, egia esan, ez dugu entrenamendu berezirik egin. Azken partidua galdu egin genuen, baina ondo ibili gara denboraldian zehar, eta aste barruko lan hori izango da oraingoan ere gure oinarria.

**Mailaz jaitsi zineten joan den denboraldian, baina igoera duzue berriz orain jokoan; denboraldia ona izan da, orduan, ala?**

Liga hasierako helburua ez zen berriz gora igotzea; ez, behintzat, epe motzeko helburua. Talde berria da gurea, gaztea, jokalari erdiak berriak dira, eta taldea finkatzea zen jarrita genuen helburua. Taldea egin, gure estiloa finkatu... Hori ere lortu dugula uste dut, eta denboraldia ona izan dela esan dezakegu, bai.

**Bat egin duzue denok?**

Zelaitik kanpo harreman ona daukagu denok, eta zelai barruan ere ikusten da hori.

**Eta zein da finkatu duzuen estiloa?**

Orain arte, askotan ibili gara, esaterako, datorrenari erantzuten, baina aurten aldatu eta lidergoa eramateko ahaleginak egin ditugu, errespetatuak izateko lan eginaz atera izan gara. Oraingo joko estiloa berria da, erabaki desberdin bat. Gotzon Urzelai entrenatzailearen erabakia, ausardia, izan da. Bat egin genuen jokalariok harekin, inplikatu egin gara modu berri horretan, eta urteko balorazioa ona da, bai.



Ander Irizar, baloiarekin, Azkoagainen jokatutako partidu batean. GOIENA

**"GUTARIKO INOR EZ DA INOIZ EGON 'KALE EDO BALE' DEN EGOERA BATEAN, ETA GOGOTSU GAUDE'**

**Nolakoa da aurkako taldea, Lasarteko Ostadar?**

Kategoria bereko beste taldean jokatu dute eurek, eta ez ditugu ezagutzen, talde berria da guretako. Gainera, azken jardunaldira arte ez da erabaki igoera fase hau noren kontra jokatuko genuen, eta ez gara joan euren partidurik ikustera. Heldu zaizkigu euren jokoari buruzko argibide batzuk, baina gu gure jokoa lantzen ibili gara asteko entrenamenduetan, eta partiduan ere geure jokoa egitera aterako gara futbol zelaira.

**Zein da helburua?**

Kanporaketa erabakita dagoela bueltatzea. Bi partidutara da eta kanpoan sartutako golek bikoitza balioko dute. Faktore hori aplikatuko da, eta, beraz, emaitzak izango du pisua. Egia da bueltako partidua, ekaineko lehen asteburuan Azkoagainen jokatuko duguna, aldeko izan daitekeela, baina, ahal dela, abantaila hartuta jokatu gurako genuke etxean, eta, kanporaketa erabakita baldin badago, askoz hobeto. Igotzeko ilusioa badugu, baina zentzuz jokatuko dugu, kolpea gogorragoa izango da-eta bestela.

**Jokoa baino gehiago, emaitza da oraingoan garrantzitsua?**

Kanporaketa fase batean gaude, eta bai. Emaitza onaz gain jokoa ere ona bada, partidu borobila izango da.

**Ohiko jokalariok jokatuko duzue?**

Buruan min hartuta, ebaki bat eginda, dago jokalari bat. Grapak ditu, eta oraingoan ezingo du jokatu, baina ohikoak izango gara besteok, bai.

**Zaleak ere izango dira Lasarten.**

Bai, eta eskerrik asko, aurrez, denei. Beti dira ongietorriak zaleen gertutasuna eta animoak.



Iñigo Ruiz eta Saioa Arconada, pumptrack-gunean. A.T.

## Erabilgarri dago Eltzia atzean egindako pumptrack-gunea

Asfaltoz egindako 150 metroko luzera dauka, bost peralte eta askotariko erabilerarako 24 modulu

**O.E.G.** OÑATI

Bizikletekin, patineteekin eta patinekin aritzeko eta euren trebeziak erakusteko asfaltozko 150 metro luzerako zirkuitua egin dute Eltzia atzeko espazioan. Bost peralte eta askotariko erabilerarako 24 modulu dauzka. "Hori posible izateko, bi zirkuitu independentek osatzen dute gunea, bata 86 metrokoa eta bestea 64 metrokoa. Eta guztira, 37 erabiltzailek gozatu ahalko dute aldi berean pumptrack-gunearekin", adierazi du Saioa Arkonadak, Udaleko Kirol batzordeburuak.

Ingurua txukundu eta irisgarria izateko lanak ere egin dituzte. Udaleko Hirigintza batzordeburu Iñigo Ruizek azaldu duenez, "batez ere, gunearen sarreratik hasi eta goiko futbol zelairainoko gunea asfaltatzea eta argiztatzea" izan dira lan nagusiak. Horrez gain, argi berezi bat jarri dute Eltziako atzeko sarreran.

Proiektua Oren Bike enpresak egin du, eta Poolsport enpresak exekutatu. 200.000 euro izan da aurrekontua: 88.800 euro pumptrack-gunerako eta gainerakoa urbanizazio lanetarako.

### Trikiti festarako txartelak salgai daude dagoeneko

Trikiti festa antolatu du herriko trikiti-zaleendako Lizargarate Trikiti Elkarteak ekainaren 8rako. Olakuako jaiekin batera egingo da eta trikiti emanaldia egongo da han, baina, herrian trikitia edo panderoa jotzen duten asko daudela ikusita, herriko trikitilarien kalejira eta bazkaria ere antolatu dute. Hauspotu Bizitza du izena festak eta 11:30ean Olakua auzoan egingo duten emanaldiarekin eta triki-poteoarekin hasiko dute. Bazkaria, berriz, gaztetxean izango da, eta txartelak salgai daud, dagoeneko Arrano tabernan, hamabi eurotan. Olakuara bueltatuko dira gero kalejiran, festarekin jarraitzeko.

### Abraham Cupeiro galiziarrak joko du udan Arantzazun

Abraham Cupeiro galiziarraren kontzertua izango da Arantzazun, Donostiako Musika Hamabostaldiaren barruan. Eñaut Elorrieta, Oreka TX eta Agus Barandiaranekin arituko da, besteak beste.

Abuztuaren 29an izango da emanaldia, Arantzazuko santutegian. Aste honetan jarri dituzte salgai sarrerak eta batzuk dagoeneko agortu dira. Hemezortzi edo hamahiru euro balio dute sarrerek eta Donostiako Musika Hamabostaldiaren webgunean sartuta eros daitezke. Urtero sartzen du hamabostaldi horrek Arantzazun egingo den emanaldiren bat egitarauan, eta aurten ere bai.




DESKARGATU
Play Store-n
DESKARGATU
APP Store-n
goienaOkmgida
Debagoienean baldin badago,
hemen dago.
Goiena
Okm Gidaren
eskaintza osoa.

# 'Arri': "Sinistuta gaude mailaz igo gaitezkeela"

**SASKIBALOIA** MUkoak LF2 mailara igo daitezkeela sinistuta abiatu dira Granadara. Gaur, egubakoitza, Zaragozako Casablancaren kontra jokatuko dute (17:00). "Taldea ondo dago eta mailaz igo gaitezkeela uste dugu", dio Iñaki Ogara 'Arri'-k

**Xabier Urtzelai** ARRASATE

Lerrook irakurri orduko, Mondragon Unibertsitateko neskek LF2ra igotzeko lehenengo partidua jokatuta izango dute. Atzo, eguena, iluntzean izan zuten lehenengo norgehiagoka, Granadako taldearen kontra –kronika eta argazkiak *goiena.eus* atarian–, eta gaur 17:00etan dute Zaragozako bigarren taldearen kontrako lehia. Igoera fasera, baina, multzoko lehenak izan daitezkeela sinistuta joan dira Granadara. "Gezurra esango nizuke bestela: sinistuta gaude mailaz igo gaitezkeela. Taldea ondo dago eta bide honetan helburua lor dezakegula sinistu dugu. Egia da erronka oso zaila dela eta gure mailako talde onenen kontra jokatuko dugula. Egia da halako faseak irabazteko asmoz jokatu behar direla. Horrekin batera, badakigu gozatu egingo dugula, egiten ditugun lorpen hauekin guztiekin disfrutatzen dugu, baina bai, lehiakorrak izan nahi dugu", adierazi du Iñaki Ogara *Arri* entrenatzaileak.

Gaur, egubakoitza, 17:00etan, Stadium Casablanca Zaragozako taldea izango dute aurrean, eta zapatuan 17:00etan Caceresko taldea. Hala, hiru partidu horiek jokatu ondoren multzoko onenak badira, MUkoak mailaz igoko dira, eta, bigarren sailkatzen badira, domekan (13:00) beste partidu bat izango dute, bigarren sailkatu den beste multzoko ordezkariaren kontra. Eta norgehiagoka hori irabazten duena ere LF2 mailara igoko da.

**Babes instituzionala**

Granadara bidaia egin aurretik, astelehenean klubeko ordezkariek tartetxoa hartu zuten Arrasateko udaletxean egin zieten harrerara joanda. Osoko bilkuren aretoan Arrasateko eta Aretxabaletako alkateek, Maider Morrasek eta Garikoitz Iturbek –MUko neskek Ibarran jokatu dituzte aurten etxeko partiduak–, animo mezuak eman zizkieten, orain arte egin duten bideagatik zoriontzeaz batera. Ointxe!-ko presidente Oihane Agirrek klubetik emakumezkoen saskibaloiaren alde egin duten apustuaren berri eman zuen, eta udal ordezkariei eta taldearen babesleei eskerrak eman zizkien, urte hauetan guztietan izan duten laguntzagatik.




MUko taldekideak, eguaztenean, Granadako kantxan entrenatzen. OINTXE!

## Zein helburu du taldeak?



**OIHANE SARASTI** MU-KO JOKALARIA

"Taldea oso gogotsu dago, denboraldian zehar prestatzen joan garen fasea da hau, eta iritsi da momentua. Fase honetan, gainera, kantxetatik kanpo ere beste bizipen batzuk izango ditugu, eta hori beti da positiboa. Uste dut taldekideok asko gozatuko dugula Granadan biziko dugun guztiarekin.



**LEIRE RODRIGUEZ** MU-KO JOKALARIA

"Urte asko daramatzat saskibaloian jokatzen, eta inoiz ez dut izan halako igoera fase bat jokatzeko aukerarik, oso gauza berezia da guretako. Fasea ondo prestatu dugula uste dut, jokalari guztiak oso motibatuta ikusten ditut eta fasean buru-belarri sartuta. Saiatu, behintzat, saiatuko gara".



**IRENE MURUA** MU-KO JOKALARIA

"Ointxe! moduko klub batean emakumezkoetan halako mailako taldea izatea gauza ederra da, eta igoera fasean nire ekarpena egin badezaket, ederto. Egia da fase honek baduela antza gazte mailan jokatu genuen Espainiako txapelketakoarekin. Gainera, orduko taldekideak hemen ditut oraindik".



**NAROA GARAI** MU-KO JOKALARIA

"Mailaz igotzen bagara, bikain, baina, bestela ere, biziko dugun esperientzia ederra izango da. Gu topera goaz finalera. Azken urteotan taldea Debagoienera zabaltzen dabil; ni oñatiarra naiz, eta Arrasaten beste maila bateko saskibaloiarekin egin dut topo, beste exijentzia maila batekin egiten dugu lan, eta pozik nabil".

# Madinabeitia anaien artean egon da titulua Espainiakoan

**KARATEA** Gasteizen jokatu duten txapelketan Aitor Madinabeitiak Iosu Madinabeitiari irabazi zion finalean

**Xabier Urtzelai** ARRASATE

KWFk antolatuta (Kyokushineko Munduko Federazioa), Espainiako Karate Txapelketa jokatu zuten joan den zapatuan Mendizorrotzan, eta Saioako zenbait karateka nabarmendu ziren han, bai katan eta baita kumitean ere. Txapelketak utzitako bitxikeria handiena, baina, Madinabeitia anaia arrasatearren artean jokatutako finala izan zen –senior mailan, 70 kilotan–. Carlos Sanchez entrenatzaileak eman ditu xehetasunak: "Aitorrek txapelketa izugarria egin du, eta erakutsi du maila nazionalean eta baita nazioartean ere karateka onenen artean dagoela. Lehenengo bi borrokaldiak ondo irabazi zituen, eta finala anaia gaztearen kontra jokatu zuen, Iosuren kontra. Iosuk ere sekulako txapelketa egin du, baina bi borrokaldiak hirugarren roundean irabazi zituen, eta finalera nekatuago iritsi zen". Hala, finalean Aitor ondo gailendu zitzaion Iosuri, eta sari potoloa Aitorrendako izan bazen ere –Espainiako txapelduna da–, antolatzaileek Kyokushin Espiritua izeneko saria eman zioten Iosuri, txapelketa osoan zehar erakutsitako jarreragatik.

Danel Izurrategi ere Espainiako txapeldun izan zen junior mailan, eta nabarmentzekoa da Xavier Varteniuc, Leire Valor eta Esther Gomez ere finalerako sailkatu zirela. Euskal Herriko karatekekin batera, nazioartetik etorritako 500 kirolari baino gehiagoren batu ziren.



Seniorren podiuma. SAIOA.

# Hamalau debagoiendar domekan Zegaman

MENDI LASTERKETAK Domekan 530 korrikalari batuko dira irteera puntuan, eta tartean izango dira bailarako erreferentziazko korrikalari Malen Osa, Ainara Urrutia eta Ainara Uribarri. Oihana Kortazar elgetarra ez da lasterketan izango

**Xabier Urtzelai** ARRASATE

Debagoienean gutxi batzuek izango dute domekan (09:00) Zegama-Aizkorriko mendi maratoian dortsala janzteko aukera. Orotara, 11.000 korrikalarik eman zuten izena, eta 550 aukeratuen artean hamalau dira ibarrekoak: Oñatiko Malen Onsa, Ainara Uribarri, Mikel de Jesus eta Xabier Lete; Bergarako Ainhoa Lendinez, Jose Mari Anduaga, Andoni Gomez eta Ander Uriarte; Aretxabaletako Ainara Urrutia eta Igor Olalde; eta Arrasateko Iker Agirreurreta, Gorka Caballero, Aritz Kortabarria eta Ander Nafarrate.



Xabi Lete oñatiarra, 2022ko Zegama-Aizkorrin, ikusleen txalo artean. E.A.

Hutsune nabarmenen artean Oihana Kortazarrena dago; Salomon etxeko ordezkariak birritan irabazi du etxeko lasterketa, baina elgetarrak beste helburu zorrotz batzuk ditu buruan, datorren asteburuan Annecyn (Frantzia) jokatuko duten Europako Txapelketan Espainiako selekzioarekin lehiatuko da eta. Ainara Urrutiaren eta Malen Osaren kasuan, euren debuta izango da lasterketa entzutetsuan, eta garaipenaren lehian ibiliko direnak dira iazko irabazle Daniela Oemus, Catlin Fieder eta Theres Lebouf korrikalariak. Gizonezkoei dagokienez, Kilian Jornet nabarmentzen da gainontzekoen gainetik; besteak beste, sare sozialetan argitaratu dituen entrenamendu saioek tente jarri dituzte gainontzekoen belarriak. Baina gertu izango ditu iazko irabazle Manuel Merillas, Davide Magini, Elhoussine Elazzaoui eta Robert Pkemboi.

### Dena ez da maratoia

Asteburuan hitzordu gehiago egongo dira Zegaman. Gaur, egubakoitza, kilometro bertikaleko proban (16:00) ibarreko beste hamabost atleta izango dira: Aretxabaletako Garazi Abasolo, Ane Alonso, Maite Zabaleta eta Alfonso Tesoro; Oñatiko Ainara Uribarri, Aitor Beitia, Joseba Molinero eta Mikel Urrutia; Arrasateko Iñigo Alzola eta Iñaki Hormaetxe; Elgetako Elender Lozano, Urko Lozano Etxaniz, Alazne Lozano eta Unax Agirre Osa; eta Bergarako Aritz Unamuno. Domekan egingo duten junior mailako lasterketan (10:30), berriz, lau gazte debagoiendar izango dira: Alazne Lozano, Urko Lozano, Eider Trujillo eta Julen Azkarate.

## MMA Yaman Mahjedek debuta egingo du profesionaletan

Yaman Mahjed *El diamante*-ri iritsi zaio profesionaletan debuta egiteko ordua. Arrasateko MMAko borrokalariak bihar, zapatua, egingo du hori, WOW14 jaialdian –19:00, Vistalegre pabiloia, Madril–. Arrasatekoak capoeirako oinarriak dituen Warlen Lopes borrokalari brasildarra izango du aurrean. 59 kilokoen mailan lehiatuko dira.

## FUTBOLA Genuine torneoa eta futbol egokitua, biak Ibarran

Futbolaren bueltan bi hitzordu berezi izango dira asteburuan Aretxabaletan. Zapatuan Genuine torneoa jokatuko dute Realak, Osasunak, Athleticek, Alavesek eta Eibarrek –taldeak %30etik gorako desgaitasun intelektualak dituzten jokalariz osatuta daude–. Domekan (11:30), berriz, futbol inklusiboko saioa egingo dute.

## UR KIROLAK Espainiako apnea txapeldunordea da Eider Gutierrez

Espainiako Indoor Apnea Txapelketa jokatu zuten joan den asteburuan, eta arrasatearrak zilarrezko domina eskuratu zuen proba estatikoan, sei minutu eta zazpi segundoko markarekin; hala, Espainiako txapeldunorde da modalitate horretan. Taldeka, Euskadiko Apnea Selekzioa bigarrena izan zen, 995,4 punturekin.

## ESKUBALOIA Kopako finalak zapatuan Labegaraietan

Gazte mailako Kopako finalak Labegaraietan jokatuko dituzte bihar, zapatua. Eta, emakumezkoei dagokienez, mahoneroek ordezkariak izango dituzte kantxan. Hala, 15:30ean, Goizper BKE taldeko neskek Sinergia Orio hartuko dute, Gipuzkoako talde onenetakoa. Bergararrek denboraldi bikainari amaiera ezin hobea emateko aukera dute.

## ZIKLISMOA San Martzialera igoera gaur Bergaran

Emakumezkoen San Martzialeko Igoeraren zazpigarren aldia –Bergara Hiria torneoa– jokatuko dute gaur, egubakoitza, Bergaran. Ohikoa den moduan, kadete, junior, 23 urtez azpiko eta elite mailetako ziklistak batuko dira kronoigoera motz baina gogorrari aurre egiteko. Lehen ziklista 18:30ean abiatuko da San Martzialera bidean.



Ziklista bat, iaz, kronoigoeran. GOIENA

PELLO BILBAO TXIRRINDULARIA

'ELKARRIZKETTAP' SAIOAN
MAIATZAREN 29AN, EGUAZTENA, 19:30EAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN
AMAIA URIBEK EGINDAKO ELKARRIZKETA

DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.





Gipuzkoa Bertsotaneko sailkapen fasearen bigarren itzulian parte hartuko duten Debagoieneko bertsolariak. BERTSOZALE ELKARTEA

# Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan egon guran, lagunarteko lehia estua

Udazkenean jokatuko den Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako sailkapen fasearen bigarren itzulia abiatuko dute bihar, zapatua, Antzuolan eta Pasaian egingo dituzten saioekin; Debagoieneko zazpi bertsolarik jardungo dute txartelaren lehian

**Aitziber Aranburuzabala Juldain**
ANTZUOLA

74 bertsolarirekin abiatu zuten Gipuzkoa Bertsotan-eko sailkapen faseko lehen itzulia. Eskoriatzan egin zuten estreinako saioa, apirilaren 25ean, eta Oñatin azkena, maiatzaren 17an. Bi multzotan banatuta, hamabi kanporaketa jokatu zituzten, guztira, eta haietatik 48 bertsolarik lortu zuten bihar abiatuko den bigarren fasera pasatzea.

Debagoieneko bertso eskoletako ordezkariei dagokienez, bederatzi bertsolarirekin abiatu zen Gipuzkoa Bertsotan izena duen sailkapen fasea eta honako hauek egin dute, oraingoz, aurrera: Haizea eta Oihana Arana Eskoriatzako ahizpek; Ane Zuazubiskar arrasatearrak; eta Oñatiko Maider Arregik, Aitor Tatiegik, Urko Egañak eta Urko Arregik.

**Aurreko saioan, "gustura"**

Salbuespenak salbuespen aurreko saioan egindako akatsak edo hobetu beharrekoak alboratu barik, orokorrean "gustura" dira Debagoieneko ordezkariak lehen itzuliak emandakoarekin. "Ez nuen espero hain ondo egingo nuenik, eta aurrera jarraitzeko indarra eman dit", dio Haizea Aranak, eta zera gaineratu du haren ahizpa Oihanak: "Lehen itzulia, orokorrean, polita izan da. Saio ezberdinak entzun dira, bertsolari oso ezberdinak izan gara. Esango nuke, helburu pertsonalez gaindi, helburu kolektibo batzuk ere betetzea ekarri duela lehen faseak, eta kontentu nago". Eta zera dio Ane Zuazubiskarrek: "Sailkapen fasera jendea oso prestatuta iritsiko zela espero nuen, eta hala topatu dut; lehen itzuliko saioarekin gustura nago, neurriko urduritasun-puntuarekin aritu nintzen, baina gozatu egin nuen bertsotan".

**48 BERTSOLARI, ZORTZI SAIOTAN BANATUTA, UDAZKENERAKO TXARTELAREN LEHIAN**

Aurreko kanporaketan bizitako urduritasuna nabarmendu du Aitor Tatiegik ere: "Orokorrean, nahiko urduri hasi ginela uste dut, baina esango nuke saioak hanka-sartze handi barik joan direla eta bertsolarien arteko maila nahiko parekatuta egon dela". Eskualdean "bertso-maila ona" dagoela nabarmendu du Oñatiko Txinparta Bertso Eskolako Urko Egañak: "Horren erakusle da zenbat pasatu garen". Eskola bereko Urko Arregik dio orokorrean "saio nahiko gorabeheratsuak" izan direla: "Bertsolari batzuk oso fuerte ikusi ditut, gehienbat, gazteak, eta gustatu zait hori".

**34 txartel jokoan**

Lehenengo itzulian moduan, bi multzotan banatuta jokatuko dituzte bigarren itzuliko kanporaketak, eta, guztira, zortzi saio izango dira. "Bertsolariok trankilago aterako gara kantura, gauzak zehaztuta ez baina ezberdin ikusten direlako etapa honetan. Bestetik, ariketak zailagoak dira; seiko motza dago, besteak beste, eta horrek eragin dezake hanka-sartze gehiago izatea". Udazkenean jokatuko den Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako txartelak jokoan, Urko Arregik, Ane Zuazubiskarrek eta Urko Egañak "lehia estua" aurreikusten dute.

**Antzuolan eta Pasaian bihar**

Bertsokide bertsuak izango dituzte batzuek; hori da, esaterako, bihar Antzuolako Torresoroa aretoan lehiatuko diren Haizea eta Oihana Aranaren kasua. Hauxe dio Haizeak: "Berriz egokitu zait ahizparekin kantatzea, eta ez dakit ilusioa edo grazia ematen didan. Lehenengo fasean bezala, esango nuke ez nagoela nire onenean, baina gogotsu nago saio txukuna egiteko". Ahizparekin lehiatzeak "alde onak eta txarrak dituela" dio Oihanak: "Baina gustura nago Haizearekin eta Antzuolan kantatzearekin. Gustatzen zait Debagoienean kantatzea".

Pasaiako Donibane Kulturgunean jardungo du Zuazubiskarrek bihar, eta Arrasatekoak ere bertsokideak errepikatuko ditu. "Eskertzen dut hori, eta uste dut horrek emango digula saio polita egiteko aukera".

**Etzi, Alegian eta Usurbilen**

Etzi, domeka, Alegian eta Usurbilen ere saio bana jokatuko dute. Maider Arregi eta Urko Tatiegi izango dira Usurbilekoan. "Pozik nago berriz Maiderrekin abestuko dudalako. Saio parekatua izango dela uste dut", dio Tatiegi oñatiarrak.

**LEHENENGO ITZULIKO URDURITASUNAK GAINDITUTA, "GOGOTSU" DAUDE DEBAGOIENEKOAK**

## Bertso saioen egutegia eta aretoak

Gipuzkoa Bertsotan-eko lehen itzulian egin zuten moduan, bi multzotan banatuta jokatuko dituzte kanporaketa saioak; zortzi saio egingo dituzte, guztira, eta horietako bost aretotan lehiatuko dira Debagoieneko bertsolariak.

- **Antzuola** Maiatzaren 25ean, zapatua, 17:00etan, Torresoroa antzokian. Eskoriatzako Haizea eta Oihana Aranak hartuko dute parte.
- **Pasaia** Maiatzaren 25ean, 17:00etan, Donibane Kulturgunean. Arrasateko Ane Zuazubiskarrek kantatuko du.
- **Alegia** Maiatzaren 26an, domeka, 17:00etan, Elizpe zinema-aretoan.
- **Usurbil** Maiatzaren 26an, 17:00etan, Sutegi aretoan. Oñatiko Aitor Tatiegi eta Maider Arregi izango dira taularen gainean.
- **Ataun** Ekainaren 1ean, zapatua, 17:00etan, Herri Antzokian.
- **Elgeta** Ekainaren 1ean, 17:00etan, Espaloia Kafe Antzokian. Oñatiko Urko Arregik hartuko du parte.
- **Hernani** Ekainaren 2an, domeka, 17:00etan, Biteri kultura etxean. Oñatiko Txinparta bertso eskolako Urko Egañak abestuko du.
- **Soraluze** Ekainaren 2an, 17:00etan, Herri Antzokian.

Bihar, zapatua, abiatu eta ekainaren 2ra bitartean egingo dituzten kanporaketa saio guztietarako sarrerak *Bertsosarrerak.eus* atarian daude eskuragarri: sarrera arrunta zazpi eurotan; eta bost eurotan, berriz, 6 eta 18 urte bitartekoendako eta Bertsozale Elkarteko bazkideendako.

# Urte luzez egindako lana erakusteko gertu orain

Londresen bizi den Bea Asurmendi aramaioarrak udazkenean argitaratuko duen 'Otsemeak' estreinako diskoaren single aurrerapena sare sozialetan zabaldu zuen atzo, eguena; datorren udazkenean argitaratuko du 'Otsemeak' bilduma osoa

**A. Aranburuzabala** ARAMAIO

Oraingo astean, haren ahizpa Idoiaren bi kontzertutan kantatu du Bea Asurmendik: Donostiako Victoria Eugenia antzokian maiatzaren 19an eta atzo, eguena, Madrilgo Lara antzokian. Baina dagoeneko hartu du Londreserako hegazkina eta buru-belarri ari da urteetan ondu duen *Otsemeak* proiektua jendaurrean erakusteko lanean.

Ekainaren 1ean, Londresko Euskal Etxeak gonbidatuta, proiektu horren estreinako kontzertua egingo du, eta alboan izango du Idoia; nork bere diskoko kantak joko ditu, eta, ondoren, elkarrekin abestuko dituzte beste hainbat kantu.



Bea Asurmendi, Londresen bizi den Aramaioko musikaria. EIDER BALLINA

### Bilduma "hunkigarria"

"Jazza eta folka fusionatzen dituzten euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko abesti hunkigarriekin osatutako bilduma" dela dio musikariak. "Barkamena, familia, maitasun propioa, sonoritatea eta osasun mentalaren garrantziaz hausnartzera bideratzen duten abestiak direla", gaineratu du.

Londresko Fish Factory eta Crowshed estudioetan grabatu du eta honako musikari hauek izan ditu bidelagun: Giovanni Cresseri baxu-jolea; Gianluca Corona gitarra-jolea; Milena Granci piano-jolea; Filippo Galli bateria-jolea; Demi Garcia Sabat perkusioan; Yoanna Prodanova txeloarekin; Finn Bradley tronpetarekin; eta Claudia Marquesek egin ditu koruak.

### Udazkenean diskoa

Bildumari izena emango dion kantua zabaldu zuen atzo sare sozialetan. "Emakumeen terapia-talde batean izan zuen esperientzia eraldatzailean inspiratuta dagoen bidaia musikala" dela dio kantu berria aurkezterakoan, "ahotsa, perkusioa –udua eta pandero karratua– eta inprobisazioa kontrabaxuarekin eta baxu elektrikoarekin" uztartzen direla gaineratuta.

### Musika ikasten Londresen

Musika Modernoko Interpretazioko Gradua egitera joan zen 2013an, eta Jazz Interpretazioko Masterra egin zuen 2020an. Harrezkero, Londresko areto ezagunetan abestu du, eta "gogotsu dago" haren kantuak Erresuma Batuan, Euskal Herrian eta Espainian erakusteko.

# 'Algaraka'-ren hirugarren saioa Zumaian jokatuko dute gaur

Lau bakarrizketari lehiatuko dira Aita Mari aretoan, 20:00etan; 'Sarrerakzumaia.eus'-en daude sarrerak salgai

**A. A. J.** ARRASATE

Manex Astigarraga debarra, Etxarri Aranazko Joxe Aldasoro, Albizturko Ander Maldabi eta Amaia Ruiz de Galarreta tolosarra izango dira gaur, egubakoitza, Zumaiako Aita Mari aretoko agertokian lehian, 20:00etan hasiko den *Algaraka* bakarrizketa lehiaketako hirugarren eta azken kanporaketan.

Aner Peritz bertsolaria bakarrizketari gonbidatua izango da; aldi berean, epaimahaikide ere bada Idoia Torregarai eta Josu Zubiarekin batera, baina laugarren epaimahaikide bat izango dute gaurko saioan: hain justu, Maria Blanco umorista.

### Datorren astean, finala

Bergarako Seminarixoa aretoan abiatu zuten, maiatzaren 10ean, euskarazko bakarrizketa lehiaketa, eta areto berean jokatuko dute finala, maiatzaren 31n; *Seminarixoa.eus* atarian eskura daitezke finalerako sarrerak, lau eurotan.

Goienakideen txokoa

MAIATZEKO SARIAK

**Errigorako saskia**

Parte hartzeko sariaren izena: **Errigora**

ERRIGORA



**Sarrerak**

**Arrikrutz kobak bisitatzeko, sarrerak.**

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz

ARRIKRUTZ oñatiko kobak

**Otarrea**

**Bidezko merkataritzako produktuak.**

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremandenda.org Bidezko Merkataritzako produktuak

**Zelai talasoterapia-hotelari esker**

**Hiru hilabeteko bi bonu ditugu Zelai talasoko zirkuitura joateko.**

Parte hartzeko azken eguna: maiatzak 29



**PARTE HARTZEKO:**

**Posta elektronikoz:** *goienakide@goiena.eus* **Whatsapp:** GOIENAKIDE *"sariaren izena"* [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

**'goiena app'-a / zozketa atalean.** Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *goienakide@goiena.eus*

**Irabazi bi lagunendako sarrerak**

**Bergarako Udalari esker**

'Algaraka' bakarrizketa lehiaketako finalerako sarrerak ditugu.

**Bergara | Seminarixoa | Maiatzak 31 | 20:00**

**PARTE HARTZEKO:**

**E-postaz:** *goienakide@goiena.eus* **WhatsApp:** GOIENAKIDE *"algaraka"*[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

**'goiena app'-a / zozketa atalean.** Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *goienakide@goiena.eus*

**Irabazi bi lagunendako otordua**

TARTUFO JATETXEARI ESKER

Begiratu *Puntua* aldizkariko *Otorduan* atala eta hartu parte!

Parte hartzeko azken eguna: maiatzak 28.

943 25 05 05 *goienakide@goiena.eus* 'Goiena app'-a / zozketa atalean.

*GOIENAKIDE Jatetxea* [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.





*Puntua* aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailez gozatzeko...



**GOIENAKIDE KUOTA: 65€**

Deitu: **943 25 05 05** • *goienakide@goiena.eus*

DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena kide

**Okm:** *batzen gaituen distantzia*

## IRAGARKI SAILKATUAK

### 1. ETXEBIZITZAK

**102. EROSI**

**Bergara.** 3 logela eta igogailua duen, eta Poligono inguruan kokatuta dagoen etxebizitza erosiko genuke. Lan egongokorra duen bikote gaztea gara. 673 35 95 98

**Debagoiena.** Etxebizitza erostea nahiko nuke. Ez zait zein egoeratan dagoen etxebizitza. Momentuan egin dezaket ordainketa. 623 17 95 37

**103. ERRENTAN EMAN**

**Calpe (Alacant).** Oporretarako apartamentua ematen da errentan. Hondartzatik 100 metrora. Bi logela, egongela, sukaldea, bainugela osoa eta balkoi ederra. Interesatuok deitu edo jarri harremanetan Whatsapp bidez:.655 74 57 97 (Txaro) edo 615 75 98 32 (Jesus)

**104. ERRENTAN HARTU**

**Bergara.** Bi edo hiru logela dituen etxebizitza baten bila gabiltza. Igogailua izatea gustatuko litzaiguke. Biok egiten dugu lan. 645 72 92 87

**Debagoiena.** Etxea errenta hartuko nuke Debagoieneko edozein herritan, Oñatin izan ezik. Telefonoa: 663 40 92 67

### 2. GARAJEAK

**201. SALDU**

**Garajea salgai Bergaran.** Bergarako Tokieder plazan dagoen garajea saltzen dut. Garaje itxia da eta ate automatikoa du. 607 94 08 65

### 4. LANA

**402. ESKAERAK**

**Arrasate.** Emakumezkoa etxeetan garbiketak egin eta nagusiei lagundu edo zaintzeko prest. Etxetik kanpo bizi izaten lan egingo nuke, orduka, goiz, arratsalde zein gauetan. 672 78 04 30

**Arrasate.** Neska arrasatearra, arduratsu eta atsegina, umeak zaintzeko eta nagusiei paseatzera lagundu edota konpainia egiteko gertu. Telefonoa: 695 73 87 95

**Arrasate.** Umeen zein nagusien zaintzan edota garbiketa lanetan aritzeko prest. Goizetan lan egingo nuke arratsaldetan lan egiten baitut. Soziosanitario titulua dut. Telefonoa: 634 94 30 78

**Bergara edo Antzuola.** Emakume euskalduna arratsaldetan hiru edo lau ordu artean lan egiteko gertu. Zaintza lanak edo laguntzaile lanak egingo nituzke. 637 52 89 83

**Bergara eta inguruak.** Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest nago. 642 11 57 74

**Bergara, Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza.** Bergarako neska pertsona nagusiak zaindu edota etxeetan garbiketa lanak egiteko prest. Orduka lan egingo nuke. Soziosanitario titulua dut. 696 84 19 51

**Bergara.** Neska bergararra, udan umeak zainduko nituzke. 634 43 71 49

**Debagoiena.** Pertsonen zaintzan lanean esperientzia duen emakumea. Berehala lanean hasteko aukera. Malgutasun osoa. 677 14 64 27

**Debagoiena.** Atariak, etxeak eta era guztietako lokalak garbitzen edota pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Orduka lan egiteko gertu. Soziosanitario titulua dut. 620 23 58 15

**Debagoiena.** Emakumea garbiketa lanetan orduka lan egiteko prest. Telefonoa: 666 07 42 98

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest. Telefonoa: 697 72 78 19 (Saida)

**Debagoiena.** Emakumea prest garbiketa lanak egin edota haurrak eta pertsona nagusiak zaintzeko. Deitu 671 64 11 25 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea zaintza edota garbiketa lanak egiteko gertu. Etxetik kanpo bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. 671 18 50 83

**Debagoiena.** Asteburuetan lan egiteko prest dagoen emakumea naiz. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egingo nituzke. Telefonoa: 624 81 93 71

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea naiz. Soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. 677 00 90 26

**Debagoiena.** Erizain laguntzaile ikasketak dituen emakumea, umeak eta pertsona nagusiak zaindu edo laguntzeko edota garbiketa lanak egiteko prest. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. 613 16 97 02

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko prest. Ordutegi aldetik erabateko malgutasuna (orduka, asteburuetan, gauak...). Telefonoa: 688 74 20 75

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zainduko nituzke baserri zein etxeetan. 672 55 67 35

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten, etxetik kanpo bizitzen zein orduka lan egiteko prest nago. Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Soziosanitario ikasketak ditut, baita legezko agiriak ere. 603 26 70 87

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten, orduka eta asteburuetan lan egiteko prest dagoen neska gaztea. Garbiketa lanetan, zaintzan edota tabernetan lan egingo nuke. Deitu 624 09 84 65 zenbakira.

**Debagoiena.** Etxetik kanpo bizi izaten pertsona nagusien zaintzan lan egin nahi dut. Asteburueren eta gauetan etxe zein ospitaletan lan egiteko prest. Soziosanitario ikasketak ditut. 602 80 15 38

**Debagoiena.** Emakumea garbiketa lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. 642 36 70 42

**Debagoiena.** Gizonezkoa pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario eta garbiketa ikasketak ditut. Eskarmentu handi dut lan hauetan. Legezko agiriak ditut. Malgutasun osoa dut, etxean bertan bizi izaten edo kanpoko langile bezala lan egin dezaket. Telefonoa: 643 47 39 37

**Debagoiena.** Lantegietan, dendetan, zerbitzari gisa taberna zein jatetxeetan lan egiteko prest dagoen emakumea. Gidatzeko baimena eta kotxea ditut. Malgutasun osoa. 611 53 63 39

**Debagoiena.** Lantegietan, dendetan, zerbitzari gisa taberna zein jatetxeetan lan egiteko prest dagoen emakumea. Malgutasun osoa dut. Telefonoa: 688 71 08 09

**Debagoiena.** Neska euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Beste lan batzuk ere egingo nituzke. Soziosanitario ikasketak ditut. Gidabaimena eta autoa ditut. 656 79 28 37

**Debagoiena.** Pertsona nagusia zein umeak zainduko nituzke. Esperientzia handia dut pertsonen zaintzan. Beste edozein lan egiteko gaitasuna dut. Deitu telefono zenbaki honetara: 622 15 84 54

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak edota garbiketa lanak egingo nituzke, baita sukaldari laguntzaile lanak ere. Telefonoa: 603 26 66 18

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zein umeak zainduko nituzke edota garbiketa lanak egin. Deitu 631 30 15 86 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Kanpoko langile gisa edo orduka lan egin nahi dut. Soziosanitario titulua ateratzen ari naiz. Deitu 604 23 18 20 zenbakira

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke lanaldi osoan edo erdian. Soziosanitario ikasketak ditut. 602 64 68 17

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzeko prest dagoen gizona. Soziosanitario ikasketak eginak ditut. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Malgutasun osoa. 643 21 04 28

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zein umeak zaindu edota garbiketa lanak egingo nituzke. Soziosanitario titulua dut. Arratsaldetan zein asteburuetan lan egiteko prest. 625 25 57 78

**Oñati eta Arrasate.** Pertsona nagusiak zaintzeko gertu dagoen gizonezkoa. Soziosanitario ikasketak egiten ari naiz. Legezko agiriak ditut. Malgutasun osoa dut, etxean bertan bizi izaten zein orduka lan egiteko prest nago. Deitu 644 78 30 45 zenbakira.

### 6. MOTORRA

**602. EROSI**

**Land rover Defenderra erosiko nuke.** Land rover Defenderra behar dut baserrirako, berdin dio ze egoeratan dagoen: ITV gabe, matxuratua, kolpearekin. 623 17 95 37

### 7. ANIMALIAK

**704. BESTELAKOAK**

**Euskal artzain txakurra.** Emea den euskal artzain txakur bila ari naiz, nik dudan euskal artzain txakurrarekin txakurkumeak izan ditzan. 686 50 06 92

### 8. DENETARIK

**806. GALDU**

**Arrasateko Zigarrola auzoa.** Apirilaren 17an, autoko bi buru-euskarri eta maletategi-estalki bat ahaztuta utzi genituen Zigarrola auzoan dagoen Merkal denda aurrean. Informaziorik baldin baduzu, deitu, mesedez: 629 38 59 15

**Pultsera Bergaran.** Apiril bukaeran urrezko pultsera bat galdu nuen Santa Marina eliza eta anbulategi artean. Bertan, Saioa izena ageri da. Aurkitu baduzu eskertuko nuke harremanetan jartzea. 652 77 13 77

**809. ERRENTAN EMAN**

**Lursaila Aretxabaletan.** Aretxabaletan lursailak ematen dira errentan. Aproposak orturako, txakurrentzako, eta abar. Interesa izanez gero, deitu 618 76 34 40 telefono zenbakira.

**IRAGARKIA JARTZEKO:**

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Korosti inmobiliaria

Bergara: San Antonio,
69m² erabilgarri,
2 logela, terraza,
trasteleku eta garajea
igogailuarekin.
203.000€





Bergara: Ibarra,
87m² erabilgarri,
3 logela, ganbara eta
trastelekua. Erabat
kanpoaldekoa.
140.000€

Bergara: Burdiñate,
65m² erabilgarri, 2 logela,
igogailua, trastelekua,
bizitzera sartzeko..
150.000€



Ibargarai 3 BERGARA
Tel.: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com
Informazio gehiago:

## ZORION AGURRAK



BERGARA
**Alaia Aznal Azpeitia**
Maiatzaren 28an, 4 urte. Zorionak, Alaia! Familia guztiaren partez, ondo-ondo pasa.



ARRASATE
**Nora Kortazar Gonzalez**
Maiatzaren 26an, 2 urte. Zorionak! Besarkada erraldoi bat etxeko danon partetik. Asko maite zaitugu.



OÑATI
**Jonas Galdos**
Maiatzaren 26an, 9 urte. Zorionak, maittia! Oso ondo pasau zure egunian!



BERGARA
**Eder Orgaz Ugarte**
Maiatzaren 25an, 6 urte. Zorionak, Eder! Primeran pasau zure egunian! Sei muxu potolo etxeko danon partetik! Asko maitte zaittugu!



ARETXABALETA
**Peio Uribe Coves**
Maiatzaren 25an, 7 urte. Zorionak, Peio! Besarkada haundi etxekoen partetik. Ondo pasa zure egunean.



ESKORIATZA
**Xabier Orobengoa Nevado**
25an, 11 urte. Zorionak, txapelduna! Bazabiltza gizontzen. Jarraitu ezazu alai eta jator. Besarkada haundi bat etxeko guztien partetik.



ARAMAIO
**Galder Ibarguren Beltran de Guevara**
23an, 10 urte. Zorionak, Galder! Ondo pasa zure egunian ta ederto ospatu. Muxu handi bat familia guztian partetik! Mundiala zara!



ARRASATE
**Maialen Agirre Pinacho**
Maiatzaren 22an, 10 urte. Zorionak! Musu bat Arrasateko amama, izeba Amaia, osaba Hakan, eta bereziki, Finn eta Naiaren partetik!



ARRASATE
**Hugo Ayala Torres**
Maiatzaren 22an, 11 urte. Zorionak eta urte askotarako, laztana, gurasoen partetik. Egun eder eta zoriontsua izan dezazula. Asko maite zaitugu. Patxoak!



OÑATI
**Uxue Beitia Maisterrena**
Maiatzaren 21an, 10 urte. Zorionak, Uxue! Ondo-ondo ospatu zure eguna! Patxo haundi bat familixako danon partetik!



ARRASATE
**Oier Martin Lazpiur**
Maiatzaren 20an, 2 urte. Zorionak, Maitia! Jarraitu gure bizitzak horrela alaitzen. Patxo haundi bat etxeko danon partetik!



ARRASATE
**Beñat Alonso Lopez**
Maiatzaren 19an, 21 urte. Zorionak, Beñat! Maitasunez beteriko 21 urte, jarraitu horrelakoa izaten, maite zaitugu. Etxekoak!



ARETXABALETA
**Julen Cruz Garcia**
Maiatzaren 18an, 12 urte. Zorionak, Julen! 12 urte txapeldun! Ederto ospatu eguna familixia eta lagunekin. Asko maitetzugu!



ARRASATE
**Haitz Souto Lasa**
28an, 9 urte. Zorionak, morroxko! Egun ederra pasatu ezazu lagun eta etxekoen artean! Bihotz-bihotzez maite zaitugu txiki!



OÑATI
**Ane Garmendia Zumalde**
Maiatzaren 24an, 5 urte. Zorionak! Ondo ondo pasa zeure urtebetetze eguna. Patxo haundi bat familixa guztixan partetik.

## ASTEA GOIENA TELEBISTAN



**TOMATEA PROTAGONISTA**
Tomatearen gaineko tailer batean parte hartuko du Julen Murua kazetariak.
***'Landara'*** *Astelehena, 18:00, 20:00 eta 22:00*



**MUREN IGOERA FASEA GRANADAN**
Ointxe!-ko neskek asteburuan lortzen dutenaren gaineko laburpena egingo du Xabi Urzelaik.
***'Harmailatik'*** *Astelehena, 19:30, 21:30 eta 23:30*



**TTT GROUP EZAGUTZEN**
Bergarako San Juan auzoan dagoen enpresa ezagutzen egon da Iñigo Barrena kazetaria.
***'Debagoienean egina'*** *Eguaztena, 18:00, 20:00 eta 22:00*

GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:
***goiena.eus/telebista***
Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

### ESKER ONA



**Carmen Errasti Lasa**
Gregorio Isasi-isasmendiren alarguna

2024ko maiatzaren 17an hil zen, 93 urte zituela.

Seme-alabak: Jose Mari eta Elena Landaluze, Angel eta Ana Rosa Martinez de Agirre; bilobak: Antxon, Anje eta Amaia Uribarren, Arrate; zaintzailea: Salvadora Campos; eta gainerako ahaideak.

—

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Aretxabaletan, 2024ko maiatzaren 24an

### OROIGARRIA



**Mario Padilla Maguregi**

2024ko maiatzaren 16an hil zen, 95 urte zituela.

*Txistularia,*
*Maisua,*
*Erreferentea.*



Eskoriatzako txistulariak.
Eskoriatzan, 2024ko maiatzaren 24an.

### ESKER ONA



**Libe Atxa Madinabeitia**

2024ko maiatzaren 21ean hil zen, 94 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2024ko maiatzaren 24an.

### MEZA



**M. Angeles Arana Alcelay**
Juan Ayastuy 'Otxua'-ren alarguna

2024ko maiatzaren 11n hil zen, 96 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

—

Haren aldeko ondra-meza zapatuan izango da, maiatzaren 25ean, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan.

Oñatin, 2024ko maiatzaren 24an.

### ESKER ONA



**Andoni Urcelay Eguren**

2024ko maiatzaren 19an hil zen, 68 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2024ko maiatzaren 23an.




## BERRI-ZAKUA



**Urrezko ezteiak**
Maiatzaren 25ean beteko dituzte Amaia Mondragonek eta Ramon Arresek. "Ezkontza-urteurren zoriontsua opa dizuete etxekoek. Segi zoriontsu izaten".





**Urrezko ezteiak**
"Jose Andres eta Maria Jesus. Familia eta lagunen partetik, zorionak 50. ezkontza-urteurrenean! Asko maite zaituztegu".





**Urrezko ezteiak**
"Zorionak zuen urrezko ezteietan, Javi eta Esti! Primeran ospatuko dugu! Familia osoaren partetik, zoriontsu izaten jarraitu. Musu bana!".

# AGENDA

**EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN.** Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 24

**ARAMAIO Energia fakturen gaineko azterketa**
Izena emateko: 699 99 00 49 edo *ingurumena@gorbeialdea.eus*.
***Osoko bilkuren aretoan, 10:00etan.***

**ARRASATE Munduko jolasen lanketa**
Haur eta familiekin jaialdia egingo dute Arizmendi Ikastolan, Aniztasunaren Astearen baitan.
***Arimazubi plazan, 14:30ean.***

**ELGETA Elgetako abesbatzaren emanaldia**
Xalbadorpe elkartearen eskutik.
***Espaloian, 17:30ean.***

**ARAMAIO 'Juana' liburuaren aurkezpena**
Jon Artano kazetariaren eskutik.
***Kultura etxean, 18:00etan.***

**ARETXABALETA Disko-festa**
Aretxarteren eskutik.
***Ilargi plazan, 18:00etan.***

**ARETXABALETA Dantza Astea**
Informazio osoa 15. orrian.
***Herriko Plazan, 18:30ean.***

**OÑATI Errekaldeko jaiak**
19:00etan, etxafuegoak, txorimaloak eta erraldoiak; 19:30ean, garagardo dastatzea; eta 21:00etan, Etxekalte, Larru Beltzak, Kontralde eta Belako taldeak.
***Errekalde auzoan.***

**OÑATI Zinema-emanaldi berezia**
*Udalatx, Ura eta Atxa; Oinez* eta *Zuloan Zu.*
***Zinema-aretoan, 19:00etan.***

**ARRASATE Alarma Morea taldea**
Al-Andalusen Kultura Astean.
***Al-Andalus elkartean, 19:30ean.***

**ARRASATE 'Dantza sorta txiki bat'**
Lore Gazteak eta Arrasateko gaitariak.
***Iturriotz kalean, 19:30ean.***

**BERGARA Elh Malick-en kontzertua**
Afrika Egunaren harira.
***Seminarixoan, 20:00etan.***

## ZAPATUA 25

**ARAMAIO Auzolana**
08:30ean, Andra Marirako eskaileratik karobia doan bidea garbitu eta txukunduko dute; eta 09:00etan, Lurgorri eguneko zentroko paretak margotuko dituzte.
***Aramaion.***

**OÑATI Txondorrean auzolana**
Ikazkin-etxola eta txondorra egiteko lanak.
***San Martinen, 09:00etan.***

**ESKORIATZA Eskomotor jaia**
Uztaileko rallysprinterako dirua biltzeko egun osoko jaia.
***Eskoriatzan, 09:00etan.***

**ESKORIATZA Eskoriatza Kirol Elkartearen Eguna**
Informazio osoa 17. orrian.
***Eskoriatzan.***

**ARETXABALETA Butoh dantza ikastaroa**
Ainhoa Alberdiren eskutik. Izena emateko: 686 17 87 19.
***Kuartelean, 10:00etan.***

**ARETXABALETA Genuine adeitasun torneoa**
Realak, Alavesek, Eibarrek, Athleticek eta Osasunak parte hartuko dute.
***Ibarran, 10:00etan.***

**ARAMAIO Leintz Eskola Kiroleko azken jaia**
Lehen Hezkuntzako eta DBHko 1. eta 2. mailetakoentzako.
***Frontoian, 10:30ean.***

**ARRASATE Ttak! Eguna**
10:00etan, hika tailerra gaztetxean; 14:30ean, gazte bazkari herrikoia; eta 22:30ean, Sukena, Azken Sustraiak eta DJ BD.
***Arrasaten.***

**ARRASATE 'Guk eiñ, guk jan' ekimena**
Arrasate Herri Eskolaren eskutik, Aniztasun Astearen baitan.
***Herri eskolan, 11:00etan.***

**OÑATI Errekaldeko jaiak**
11:00etan, orientazio proba; 14:30ean, bazkaria; 19:00etan, txorimaloak eta gargardo dastatzea; eta 19:30ean, Osaba Kimu, Lapur, Olgetan erromeria eta Albina Stardust.
***Errekalde auzoan.***

**ARRASATE Aniztasun Astea**
12:00etan, boxeoa ardatz hartuta genero ikuspegia landuko dute emakume boxeolari batekin; eta ostean, *Naturan jolasean* ekimena eta Ziorlako balkoira ibilaldia.
***Erdiguneko gaztegunean.***

**ARRASATE Kultura Astea Al-Andalus elkartean**
12:30ean, parrillada eta umeendako jolasak; 21:30ean, afaria; eta 23:30ean, playback jaialdia.
***Al-Andalus elkartean.***

**ARETXABALETA Txakolin Eguna**
Agerre, Aizpurua, Basa Lore, Erlete Goikoa, Mokoroa eta Sagarmiña upategiak egongo dira.
***Mitarte kalean, 12:30ean.***

**ARAMAIO XV. Eguzkierripa Rock Jaialdia**
12:30ean, poteoa; 14:30ean, bazkaria; 17:00etan, pilota partiduak; eta 21:30ean, The Gominola, The Mindfucks, Xementerio, Rukula, Gorroto eta Coyunda & Ñacunda taldeak.
***Aramaion.***

**OÑATI Araotzeko jaiak**
14:00etan, auzo bazkaria; 17:00etan, umeendako jolasak eta txokolate-jana; 18:00etan, bola-jokoa; 20:30ean, pintxo poteoa, eta 22:00etan, kantaldia.
***Araotzen.***

**ANTZUOLA Ramon Aldasoro II. Trial memoriala**
Irain motor klubaren eskutik.
***Antzuolan, 15:00etan.***

**BERGARA Gipuzkoako bola-txapelketa**
53. txapelketako jaurtialdia.
***Bolatokian, 17:00etan.***

**ANTZUOLA Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa**
Sailkapen faseko bigarren itzulia hasiko dute. Gai-jartzailea Olatz Zuazubiskar izango da.
***Torresoroan, 17:00etan.***



RUKULA

**ARAMAIO XV. Eguzkierripa Rock jaialdia**
Poteoa, bazkaria, pilota partidua eta rock kontzertua (21:30) egongo dira. Azken horretan parte hartuko dute The Gominola, The Mindfucks, Xementerio, Gorroto, Coyunda & Ñacunda eta Rukula –argazkian– taldeek.
***Bihar, zapatua, Aramaion, egun osoan.***

**ARRASATE Naturan Jolasean**
18:00etan, Ziorlako begiratokira igoera, Zaldibartik abiatuta; 19:30ean, *Praktika onak mendian* tailerra, Amaia Etxebesterekin; 20:30ean, afaria; eta 21:30ean, gaubeila mitologikoa *Sua* rol jolasarekin. Ondoren, *vivac* egiteko aukera, Ziorlako begiratokian.
***Arrasateko hainbat gunetan.***

**BERGARA Kulturarteko moda desfilea**
Afrika Egunaren baitan, Ndank Ndank taldearen eskutik.
***Seminarixoan, 18:30ean.***

**ESKORIATZA 'Bendita locura' antzezlana**
Eskoriatzako Ausartak taldearen eskutik, gazteleraz.
***Zaldibarren, 19:00etan.***

**ARRASATE Iñar Sastre pianista**
XX. Udaberriko Musikaldia. Debalde.
***Juan Arzamendi Musika Etxean, 19:30ean.***

**BERGARA Jasan eta Txerrikumeak taldeak**
Sarrerak, bost euro.
***Kartzela zaharrean, 22:00etan.***

## DOMEKA 26

**ARRASATE Naturan Jolasean**
08:30ean, herri gosaria Ziorlako begiratokian; eta ostean, jaitsiera. Aurrez eman behar da izena, derrigorrez.
***Ziorlako begiratokian.***

**ARETXABALETA Haur Dantzarien Eguna**
10:00etan, taldeei harrera; 10:15ean, kalejira Herriko Plazaraino; 10:30ean, txistularien kalejira; 11:00etatik 12:30eran, taldeen dantza emanaldiak; eta, 12:45ean, alardea.
***Aretxabaletan.***

**BERGARA 'Lorategi historikoak' bisita gidatua**
Izena emateko: 943-76 90 03.
***Laboratoriumen, 11:30ean.***

**OÑATI Araotzeko jaiak**
11:30ean, meza; 12:00etan, otamena; 12:30ean, auzotarren arteko lehia; eta ostean, musikariak.
***Araotzen.***

**ARETXABALETA Futbol inklusiboko topaketa**
Gipuzkoako Futbol Federazioaren eskutik.
***Ibarran,11:30ean.***

**OÑATI Errekaldeko jaiak**
12:00etan, musika bandaren kalejira, 12:30ean, Oñatzekoen saioa; 13:00etan, musika bandaren kontzertua; 16:00etan, mus txapelketa; 16:30ean, puzgarriak; eta 19:00etan, bakarrizketa saioa.
***Errekalde auzoan.***

**BERGARA Koldo Eleizalde lehiaketen sari banaketa**
Lehiaketako lan onenak sarituko ditu Udaleko Euskara Zerbitzuak. Ekitaldi irekia.
***Seminarixoan, 12:00etan.***

**ARRASATE Sevillana emanaldia**
Lourdes Oncala eskolakoen emanaldia.
*Al-Andalus elkartean, 13:00etan.*

**BERGARA Togoko dantza eta musika**
Afrika Egunaren harira. Ostean, munduko jakiak probatzeko aukera.
*San Martin plazan, 13:00etan.*

**ESKORIATZA 'Bendita locura' antzezlana**
Eskoriatzako Ausartak taldearen eskutik, gazteleraz.
*Zaldibarren, 19:00etan.*

**ESKORIATZA Angry Zeta taldea**
Rock and roll, garajea, psychobilly eta country doinuak.
*Inkernu tabernan, 19:00etan.*

**ARETXABALETA 'Memorandum' kontzertua**
Ganbara Abesbatzaren eskutik.
*Parrokian, 19:00etan.*

**ARRASATE Eñaut Zubizarreta**
XX. Udaberriko Musikaldia. Debalde.
*Juan Arzamendi Musika Etxean, 19:30ean.*

## ASTELEHENA 27

**ARRASATE 'Gure nortasuna' proiektuaren aurkezpena**
AMS eta Garagune elkarteen eskutik, Aniztasun Astearen baitan.
*Kulturaten, 11:30ean.*

**ARETXABALETA Odol-ematea**
Autobusa egongo da.
*Durana kalean,16:45ean.*

**ARETXABALETA Dantza Astea**
18:00etan, euskal dantzak; eta 18:30ean, bat-bateko dantza saioa Jaiki elkartearekin.
*Mitarte kalean.*

**ARRASATE Teknologia berriei buruzko hitzaldia**
Mikel Cerezok egingo du berba, gaur euskaraz.
*Kulturaten, 18:00etan.*

**ARRASATE Amillubi proiektuaren aurkezpena**
*Arkeologiatik askatasunera* delako aurkezpena.
*Kulturaten, 19:00etan.*

## MARTITZENA 28

**ARETXABALETA Dantza Astea**
17:30ean, talde eta lineako dantzak; 18:30ean, erritmo latinoen tailerra; eta 19:30ean, saltsa dantzak.
*Mitarte kalean.*

**ARRASATE Teknologia berriei buruzko hitzaldia**
Mikel Cerezok egingo du berba, gaur gazteleraz. Izena emateko: *Arrasate.eus* edo 943-25 20 00.
*Kulturaten, 18:00etan*

**OÑATI 'Argindarraren merkatua' hitzaldia**
Energiaren Zikloa Aktibatu zikloan.
*Kultura etxean, 18:30ean.*

**BERGARA Film laburrak**
Debalde.
*Seminarixoan, 19:00etan.*

## EGUAZTENA 29

**OÑATI Panpinen pijama festa**
3-5 urte arteko umeendako.
*Haurren liburutegia, 16:30ean.*

**ARRASATE 'Hizkuntzen kudeaketa eta euskara gure enpresetan' mahai-ingurua**
Haiseran, hiru enpresen esperientziak kontatuko dituzte.
*Garaia Berrikuntza Gunean, 17:00etan.*

**ARETXABALETA Dantza Astea**
17:30ean, euskal dantzak; eta 19:00etan, *permormance*-a.
*Mitarte kalean.*

**ELGETA Astrotopaketak**
Teleskopioaren erabileraren gainean egingo dute berba.
*Liburutegian, 18:30ean.*

**ARAMAIO ¿De que hablamos cuando decimos transicion ecosocial justa? hitzaldia**
Yayo Herrerok egingo du berba.
*Kultura etxean, 18:30ean.*

**BERGARA 'How to have sexo' pelikula**
Jatorrizko bertsioan eta azpitituluekin. Sarrerak, hiru euro.
*Seminarixoan, 20:00etan.*

## EGUENA 30

**BERGARA 'Euskarazko bideo jokoak eta bizi dituzten erronkak' hitzaldia**
Game Erauntsia taldeko kideek egingo dute berba, euskaraz.
*Seminarixoan, 10:00etan.*

**ARRASATE Sasoibide**
Irteera berezia egingo dute. Aurrez eman behar da izena.
*Zalduspeko geltokian, 10:00etan.*

**ARRASATE Kultura aniztasunaren jaia**
Arizmendi Ikastolaren eskutik, Aniztasun Astearen baitan.
*Santa Teresa gunean, 16:00etan*

**OÑATI Panpinen pijama-festa**
Familiak etorriko dira gaur umeekin euren panpinen bila.
*Haurren liburutegian, 16:30ean.*

**ARRASATE 'Txiukue' antzezlana**
Doke antzerki taldearen Akaso taldearen lana.
*Amaia antzokian, 17:30ean.*

**ARRASATE Literatura solasaldia**
Miren Amurizaren *Basa* liburuaren gainekoa, Alex Gurrutxagarekin.
*Kulturaten, 18:00etan.*

**ESKORIATZA Gitarra entzunaldiak**
Musika eskolako ikasleen eskutik.
*Kultura etxean, 18:00etan.*

**ARRASATE 'Romeo eta Julieta' antzezlana**
Doke antzerki taldearen Zalantzatiak taldearen lana.
*Amaia antzokian, 18:30ean.*

**OÑATI Iruña-Veleia aztarnategiari buruzko hitzaldia**
Jose Mendia Azurmendirekin.
*Zinema-aretoan, 19:00etan.*

**ARETXABALETA Dantza Astea**
Euskal dantzak, Dagda tabernaren atzeko partean.
*Belorrieta auzoan, 19:30ean.*

**ARRASATE Kooltur Ostegunak: Lisabö**
Irungo zazpikotearen kontzertua. Sarrerak, zazpi euro.
*Gaztetxean, 22:00etan.*

## ZINEMA

**ARRASATE**

AMAIA ANTZOKIA

**Nina**
Zapatua, domeka eta astelehena: 19:30.

**Gardfield**
Domeka: 17:00.

**BERGARA**

SEMINARIXOA

**Menudas piezas**
Domeka eta astelehena: 19:30.

**Gardfield**
Domeka: 17:00.

**OÑATI**

KULTURA ETXEA

**Nina**
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka eta astelehena: 19:30.

**GASTEIZ**

FLORIDA

**Los buenos profesores**
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 22:00.
Domeka: 21:00.
Astelehena eta eguena: 16.45.
Martitzena: 19:30,
Eguaztena: 16:45, 19:30.

**Siempre nos quedará mañana**
Egubakoitza eta zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 18.35.
Astelehena: 19.30.
Martitzena: 17:00, 20:00.
Eguaztena eta eguena: 17:00, 19:30.

**La casa**
Egubakoitza: 16:30, 20:30.
Zapatua: 12:00, 16.30, 20.30.
Domeka: 12:00, 16.30.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 18.30.
Martitzena: 17:00, 18:30.

**Amigos imaginarios**
Egubakoitza: 17:00, 19:15.
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00, 19:15.
Astelehenetik eguenera: 17:15.

**Calladita**
Egubakoitzetik domekara: 18:15.
Astelehenetik eguenera: 20:15.

**El reino del planeta de los simios**
Egubakoitza: 19:15, 22:10.
Zapatua: 12:00, 19:15, 22:10.
Domeka: 12:00, 17:00, 20:00.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 19:45.
Martitzena: 16:45.

**Hasta el fin del mundo**
Egubakoitza eta zapatua: 19:15.
Domeka: 21:00.
Astelehenetik eguenera: 17:00.

**Segundo premio**
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 22:00.
Domeka: 16:30, 18:45.
Astelehenetik eguenera: 19:30.

**Furiosa: de la saga Mad Max**
Egubakoitza: 16.30, 19:30, 21:30.
Zapatua: 12:00, 16.30, 19:30, 21:30.
Domeka: 12:00, 17:30, 20:30.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:00, 20:00.
Martitzena: 16:30, 19:45.

**Jugando con fuego**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 18:20.
Astelehenetik eguenera: 17:15.

**El último verano**
Egubakoitza eta zapatua: 20:15, 22:30.
Domeka: 20:15.
Astelehenetik eguenera; 19:15.

**Red**
Egubakoitza: 17:15.
Zapatua: 12:00, 17:15.
Domeka: 12:00, 16:30.

**Dragon keeper (euskaraz)**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Gardfield**
Egubakoitza: 17:00.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30.

KRITIKA

### La casa

★★★☆☆

**Zuz.:** Alex Montoya. **Herr.:** Espainia (2024). **Aktoreak:** David Verdaguer, Oscar de la Fuente, Olivia Molina.

## Konpondu gabeko gaiak

**ANTONIO ZABALA**

La ca*sa* filmean, hiru anai-arreba biltzen dira gurasoek zuten etxe bat apaintzeko, gero saltzeko asmoz. Aitak etxea bere eskuekin egin zuen, udan eta urtean zehar familiak denboraldiak pasa zitzan. Pelikulan zehar, etxearen egoera eta familiaren kideen arteko harremanak oso parekoak dira. Istorioan zehar pertsonaia batek esaten du "gauzak zaindu" egin behar direla, eta hori ere gizakien arteko harremanei dagokie. Etxearen hondamena eta hustea hiru anai-arreben arteko urruntzearen isla da. Berriz elkartzen direnean argi antzematen da euren artean –batez ere, bi anaien artean– konpondu gabeko gaiak daudela. Batzuek seme-alabak dituzte; beste batzuek, ez. Batzuk ekonomikoki ondo daude; beste batzuk nahiko estu dabiltza. Aitaren gaixotasunari dagokionez, portaera desberdinak izan zituzten.

Horrek guztiorrek tentsioa sortzen du, eta nahiko giro arraroa. Horrekin batera, aukera dugu ikusteko etxeak berak, hango osagaiek eta han bizitakoek sorrarazten dituzten oroimenak. Hainbat urtetako aitari buruzko irudi asko ikus ahal izango dira. Agian, momentu batzuetan, irudi gehiegi. Eszena batzuetan ondo erabiliak daude, baina beste batzuetan ez hainbeste. Aktoreak oso ondo daude eta zuzendariak lortzen du haien portaera eta sortutako egoerak oso gertukoak izatea.

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
PEFC/14-38-00187
www.pefc.es

goiena
Zu hemen zaude.

AZKEN BERBA



AINTZANE OIARBIDE

## Deabru sareak

Geroz eta zailagoa da benetako informazioa zein den jakitea; are gehiago, gizarte sareetatik bakarrik elikatzen bagara. Inork erakundeek hartutako erabakien berri jakiteko, jo dezala erakundeen webgune, telefono edo bulegoetara, norberaren mesedetan, gainera, ze askotan aukerak galdu egiten ditugu bideo manipulatu eta erakargarriei sinesgarritasuna emanez.

Gaiak asko dira, erakunde desberdinek ezartzen dituzten hobariak, adibidez, edo hezkuntzan, gizarte zerbitzuetan edo etxebizitzan ematen diren laguntzak, besteak beste. Ikaragarria da *deabru sare* horietan ze hizkuntza lotsagabea, iraingarria eta manipulatzailea erabiltzen den.

Edozeinek telefono batekin edozeini egin diezaioke min inolako ondoriorik gabe. Penaz ikusi dut azken egunotan jende helduari nola egiten zaion sinesgarri seme-alabek bidalitako *fake* notizia bat bideo erakargarri batean.

Landu dezagun iritzi kritikoa datu objektiboekin, onartuta eta argitaratuta dauden lege eta arauak ezagutuz, iturri ofizialetara joz. Geroz eta iritzi kritiko gutxiago izango dugu sare manipulatzaileen artaldean sartzen bagara, eta jada ez dakit ez ote den beranduegi.

BUKATZEKO

# Zazpi hilabeteren ostean, harriarekin erakustaldia

Paulo Azpiazu harri-jasotzailea eta 'influencer'-a harri-jasotze erakustaldia egiten izan da asteon sorterrian, Bergaran, Pentekoste jaietan. 'Llados' fenomenoak eraginda plazetan denbora batez agertu barik egon ostean, saio ederra egin du

**Imanol Beloki Unamuno** BERGARA

7 urtera arte Bergaran bizi izan zen harri-jasotzailea eta online bidezko fitness entrenatzailea da Paulo Azpiazu (Bergara, 1996), eta aurten Pentekoste jaietan izan da, San Martin Agirre plazan, herri kirolen erakustaldian harriak jasotzen.

### Erakustaldi berezia

Zazpi hilabete plazetan harria altxatu barik egon ostean, etxera bueltatu da Azpiazu erakustaldia egitera, eta saio berezia izan dela azaldu du harri-jasotzaile bergararrak. "Ondo joan da saioa. Denbora batez, ia zazpi hilabete, inguru geldi egon ostean, berrartzea kostatu egin zait. Urtero nire aitaita etortzen da herri kirolen saiora, eta, osasunez ez dagoenez oso ondo, ez da etorri; beraz, hunkigarria izan da, berezia. Gaur, aizkolarien eta harri-jasotzaileen arteko konbinazio bat egin dugu Bergarako saioan; horrela egitea dinamikoagoa da. Ikusteko politagoa da, gainera; beraz bertaratu direnen gustukoa izan dela esango nuke", azaldu du Paulo Azpiazuk, harri-jasotzaile bergararrak.



Paulo Azpiazu harri-jasotzailea Bergarako saioan, asteon. ANDREA GONZALEZ

Harri-jasotzailea izateaz batera, fitness *coach*-a ere bada, eta online eskolen bitartez ikasleak aholkatzen ditu, eta haien aldaketa fisikoak zein garapenak Instagram eta Youtube bitartez partekatzen ditu –*azpiazup_fitness*–. *Azpiazu kondairak* izenpean, *Meteleeee!* esaten zuen bideoarekin hasi zen sare sozialetan ezagun egiten, eta handik aurrera jarraitzaile ugari lortu zituen. Behin haren komunitatea sortua zuela, Amadeo Llados ezagunaren "sektan" parte hartzen hasi zen, eta jarraitzaileak galdu zituen. "Sektatik ateratzea" lortu zuen, albo-kalte ugarirekin, eta nola bizi izan zuen prozesu hura ere kontatu du komunikabidetan.

### Lanak gainezka eginda

Bergarako saioa amaitutakoan, honela azaldu du Lladosekin gertatutakoa: "Saturatu egin nintzen. Harriak duen lana oso exijentea da, eta sareetan ere lan asko egiten dut. Une batean, egiten nuena gustatu beharrean, gainezka egin zuen. Lasaiago hartu behar nuen, baina harria utzi eta denbora baten ostean faltan igartzen nuenez, berriz bueltatu naiz. Lladosen gaia dela-eta, asko fidatu nintzen berataz; izan ere, asko lagundu zidan, baina, azken urte honetan hura ere asko aldatu denez, eman dizkidan aholkuek ez didate askorik lagundu edo ez nituen ondo interpretatu. Lagundu beharrean, gaizki egin zidan".

### Gazteekiko kezka

Horren baitan, gazteek fitnessaren gainean duten obsesioari buruz galdetu zioten Euskadi Irratian, eta hauxe adierazi zuen: "Euren bertsiorik onena ateratzeko esaten diet niregana datozenei. Entrenatzeko, baina ez fisikoagatik soilik, pertsona moduan hobetzeko baizik. Uste dut mezua ondo helarazten dudala". Izan ere, fitness munduari lotutako kezka badago gazteekin, jakintza gabe aritzen direlako. Bergarako Agorrosin kiroldegiko arduradunek, esaterako, ohar bat bidali diete guraso diren erabiltzaileei, gimnasioa erabiltzen duten 14 eta 17 urte arteko seme-alabarik izanez gero haiekin berba egiteko; haien ariketekin eta dinamikekin "kezkatuta" dago Kirol Zerbitzua.

'ALGARAKA'
BAKARRIZKETA LEHIAKETA BIGARREN KANPORAKETA
GOIENA TELEBISTA
MAIATZAREN 25EAN, ZAPATUA, 23:00ETAN
MAIATZAREN 26AN, DOMEKA, 18:00ETAN
MIREN NOGALESEK AURKEZTUTAKO UMOREZKO SAIOA
NAHIERAN
PRIMERAN
STREAMING PLATAFORMAN
goiena
Zu hemen zaude.

